

Nork ez dau maite, batez be bere erritarren artean, Zeanuri'n, Gabirel apaiz jauna, gure Manterola jakitun eta euskaltzalea?

Ain biotz onekoa ta erri-zalea, ta ain adiskide ona!

Ori dala ta, Zeanuri'ko gazte talde batek Gabirel jaunari omen-aldi bat egitea erabagi eban, eta omen-aldi au egin da.

Asiera emoteko, Enbeita'tar Balendin'ek bertso batzuk abestu zituan. Gero alkar-mezea abade talde batek eta Gotzain jaunak erriagaz. Erriko ta erbesteko jendetza aundi batek bete eban eleizea. Euskera utsean mezea abestu zan.

Gotzain jaunak egin eban itzaldia euskera garbi ta ederrez: Gabirel, Jaungoikoaren gizon lez eta erriaren gizon lez goratu eban, batez be bere euskaltzaletasuna ta idazlaritza goratu zituan. Gabirel oso samurtuta ikusi neban.

Gero, eskintza aldian, Enbeita'k barrero bertsoetan ekin eban eta gazte bik, artzaiñen eta nekazarien izenean, ogia ta gaztaia eskiña ebezan.

Mezearen amaieran Gabirel'ek berba egin euskun: «Nik ez dot besterik egin neure egin-bearra beteten alegindu baiño, ta neu olakoen zalea izan ez arren omen-aldi onetara etorri zareen guztioi eskerrik asko. Egin dagigun beti aurrera geure bidean, egi, zuzentasun eta maitasun bidean, eta gero, Kristo'k irakatsi euskun lez, esan dagigun, barru-barrutik, onura bako otsein batzuk baiño ez gara».

Beste bertso batzuk abestu ondoren, Puxana, erriko bertsolariak, be bai, eleizpera urten gendun eta an Lemoa'ko talde batek euskal-dantzak egin zituan, gero euskal-abetesiak, eta geiago barik amaitu zan omen-aldi au.

AGÜR'etik zorionik beroenak Gabirel gure adiskeari!

**Manterola'tar Gabirel, Zeanuri'n** jaio zan 1890'gneko Epaillaren 18'an. 1914'gtik Eibar'en ezagutu gendun apaiz, Isasi'n zan Markesko lekaimeen abade, ta an iraun eban gudara arte. Ordukoak dira bere lan ezagutuenak, Eibar'ko aizean ebillan euskal giro indartsu arek gogor eragin eutsan, baita berak be eibartar euskaltzaleeri.

Ekin, Yakintza, Jaungoiko Zale ta beste aldizkari askotan idatzi eban, or aurkituko dozuz «Mitarga» edo «Gama» edo «Urigoiti» baita «Gabirel» izen ordezkoekin izenpetuak. Aldi orretan baita, berak idatzitako idaztiak argitaldu ebazan: «Goi-Izpiak» (1921); «Santuen Bizitza Laburrak» (Editorial Vasca, 1925), idatzi onen zati bat, Oyartzabal'dar Martin'ek idatzi eban; «Ipuintxoak» (1929), eta itzulpen bi, «Jesukristoren Nekaldia» ta «Gabonetako antzerki jaunkoia».

«Obenak kentzen etorri zan eta Yosu (Gaizkatzalle) izena artu eban. Izenik ederrera Yaungoiko Aitak ipiña izan zalako; egokiena bere izateaz bat dalako; gurgarriena berau entzunda, zeru lur eta gaiztokian belaua makurtzen dabelako; pozgarriena, «Izen au aitatzen dabena gaizkatuko dalako» (Santuen Bizitza Laburra, Urtarrilla 1; ezin izan doguz an dotozan «r» ta «l» kakodunak emen jarri izan).



# TXORIAK BE...

**Txoriak amegandik  
entzun daun abestia,  
maitasunez abestea  
beretzat poz guztia.**

**Beste batzuk politago  
abestuten ba'dabe,  
ez dau arein ondamuraik,  
berea geyen maite.**

**Toki batetik bestera  
aldatuten danean  
bere abesti gozoa  
daroa biotzean**

**Eta ez bildurrik izan  
ez yako ez astuko,  
amagandik ikasia  
onena beretzako.**

**Espetxeratu arren be  
ñoiz kaiolen baten  
itun aldi ta pozetan  
berea dau abesten.**

**Ta gizon ankerrak nozbait  
izkilluz il ba'dagi,  
azken txio larria be  
beren izkuntzan dagi.**

**Txoritxo begiko orren  
ikaskizun ederra!  
Amaren altso gozoan  
ikasirik Euskera,  
zer dala ez darabilgu  
txoriaren antzera?**

GABIREL

# NEGUA

**Negu baltz ta bildurgarri  
egun labur, gau luze,  
mendi-goyak zuri yantziz  
edurrez bete-bete.**

**Txoriak muturik dagoz,  
zugaztiak billozik,  
besoak gora yasota,  
zerbait lortu gurarik.**

**Errekak orrura baten  
itxasora arinka,  
euren atsedeen tokira,  
alkarrereri bultzaka.**

**Zeru-goyak laino baltzez  
bildurgarri agertzen,  
euri, txingor ta edurra  
gau ta egun yaurtitzen.**

**Eguzkia goyan nonbait  
bildurrez eskutauta,  
laino artetik ixuti  
noizipein begiraka.**

**Mosu gorri agertuaz  
bere suzko azkonez,  
laino baltz ibiltariak  
beti zulatu nayez.**

**Zarrak sutondoan eta  
gazteak buru makur,  
neguko aize otzagaz  
nor ez ete da bildur?**

**Alperrak oe beroan  
nagiak kendu ezin,  
zoliak diranak bere  
sarritan dabiltz bardin.**

**Negu baltz eta illuna  
eriotzan irudi  
bere barruan daroa  
udabarri pozgarri.**

# ZAR ETA GAZTE

Gizon zar eta yakintsu batek  
aurkitu eban bidean  
mutil begiko, sendo, mardul bat  
adiñin ederrenean.

Mutil gazte ta ameslari au  
itun xamar ikusirik,  
zarrak tamalez, itandu eutson:  
zelan zoaz ain itunik?

Gaurko munduan zuzenik-eza  
norberekeri-legea.  
goi eta bean ikusiagaz  
naigabez nago betea.

Nire buruak argia nai dau,  
nire biotzak bakea,  
nire ametsa, alkar-maitatzen  
gizon danak ikustea.

Gazte nazanez alaitasuna  
maite dot biotz-biotzez,  
alan da bere gizadi dana  
ikusten dot zoritxarrez.

Zelan ez naz ba itun egongo  
gizarte onen erdian,  
gose, naigabe ta zoritxarra  
nagosi dala lurrean?

Gazte maitea ez al dakizu  
bizitza burruka dala,  
argi ta illun, guzur ta egi,  
onen kaltez beti txarra?

Ez al dakizu bizitz onetan  
ez dala zorun osorik,  
emen ez dala gure biotza  
asetu leiken gauzarik?

Gauzak zuzendu nai ba'dituzu  
Egian alde z yokatu,  
zuzena dana maite izanaz  
txarra onagaz garaitu.

Baikor izanaz itunak yaurti,  
ez galdu alaitasuna;  
goi-laiño baltzen ostean dago  
eguzki-argitasuna.

# ZAR ETA GAZTE

Gizon zar eta yakintsu batek  
aurkitu eban bidean  
mutil begiko, sendo, mardul bat  
adiñin ederrenean.

Mutil gazte ta ameslari au  
itun xamar ikusirik,  
zarrak tamalez, itandu eutson:  
zelan zoaz ain itunik?

Gaurko munduan zuzenik-eza  
norberekeri-legea.  
goi eta bean ikusiagaz  
naigabez nago betea.

Nire buruak argia nai dau,  
nire biotzak bakea,  
nire ametsa, alkar-maitatzen  
gizon danak ikustea.

Gazte nazanez alaitasuna  
maite dot biotz-biotzez,  
alan da bere gizadi dana  
ikusten dot zoritxarrez.

Zelan ez naz ba itun egongo  
gizarte onen erdian,  
gose, naigabe ta zoritxarra  
nagosi dala lurrean?

Gazte maitea ez al dakizu  
bizitza burruka dala,  
argi ta illun, guzur ta egi,  
onen kaltez beti txarra?

Ez al dakizu bizitz onetan  
ez dala zorun osorik,  
emen ez dala gure biotza  
asetu leiken gauzarik?

Gauzak zuzendu nai ba'dituzu  
Egian aldez yokatu,  
zuzena dana maite izanaz  
txarra onagaz garaitu.

Baikor izanaz itunak yaurti,  
ez galdu alaitasuna;  
goi-laiño baltzen ostean dago  
eguzki-argitasuna.

GARIBEL

# AITA AGUSTIN KARDABERAZ

Ernari tar euskeltzale ospetsu au il zala ointsu berreungarren urtea bete da. Igaro dan Urrilla'ren 18<sup>gn</sup>. AGUR, euskerea zabaldu ta indartuteko sortua da-ta, bere gomutaz zerbait esan bearrean gagoz. Gorpuztez erkin eta osasun gitxikoa izan arren, txikitatik, oso bizkor eta on izanez gainera lanean nekatzen ez zana izan zan. Latin Donosti'a'n, Pilosopi Iruña'n eta Legedia Valladolid'eko Ikastetxe Nagusian ikasi ondoren, Jesus'en Lagundian sartu zan. 1727<sup>gn</sup> lenengo mezea emon, urte batzuk Bilbo'n irakasle ta ogei urtean Gipuzko, Naparra, Araba ta Bizkaya, mixiñoak emoten, arakatu zituan. Ainbeste lan eta nekez osasuna galdu ebanean, Loyola'n yarraitu eban, 1767<sup>gn</sup> urtean yosulagun guztiak erbestetuak izan ziran arte. Lenengo Corcega'ra ta gero Castel S. Giovanni'n deun entzutegaz il zan arte. Guztiak deuntzat euken, nai ain andia izan zeikeanik ez uste izan gizartean edozein lez agertzen zalako. Deuntasun gayetan bere gaztako bizitzia arrigarria ezagutu gura dabanek, or dauko «Ardores de un Serafin» idazti bitan 1924<sup>gn</sup> A. Gonzalez Pintado, S. J.'k argitaldu ebana.

## Kardaberaz Euskeltzale zintzoa

Kardaberaz A'k, ainbat idazti euskeraz argitaldu zituan. Onein artean, 1761<sup>gn</sup> «Eusqueraren Berrin Ona» deritxona. Antxe agertzen dira ainbeste bider aitatu diran itz oneik: «Baiña gure probetxu on ta askoren anima salbatzeko Euskarak burua jasotea Jaungoikoak nai du. Gure baserritan gente prestuak dirauten artean, euskerak iraungo du. Esan oi dana: oiei lepoa ebaki edo bizia kendu gabe euskerak ezin utzi ta kendu diteke». Gaur ainbeste baserri etxe ustuten ikusita zer esango ete leuke?

## Gaur ba'litz be!...

Berreun urte igaro arren aurrerabide andirik ez dogula egiten ikusteko ara zer diñoan: «Seme eta alabak txikitatik eskolan erderaz eta euskaraz edo guztitara, oitu bear dira, ta arrazoi gabeko lotsa beltz gaiztoa izatu ta kentzera. Bestela zer lotsa gaizto ta itxusiagorik, euskaldun galtzadun ta gizon egin bat, lau erregloi euskaraz ezin irakurririk, ez atzera ez aurrera ikuste baño. Ta ori zergaitik? Ain aisa, erraz lau egunean liburu bat irakurten ez ekin edo jardutzeagatik. Lau eguneko ejerzizio piska batekin seguru erderaz bezala edo aisago, euskaraz irakurtzera egingo zera; egin eta irakurri eta nekerik eta lotsarik eztago. Emen gurasa ta maisuak falta andi bat erremediatu bear dute, gure euskara oraindaño baño mesede geyago egin jenteen artean, beste lengoajerik euskara baño ditxa gabekorik ezta ikusi, ta gure jatorrizko edo jaiotzako izkera ez ba'litz bezala, ta euskara itz-egitea pekaturik andiena ba'litz bezala giza arretik kendu ta lurpean ondatu nai dute, ta eskoletan sortija edo señalearekin, azote ta kastiguakin galerazo nai dute. Zer erokeria andiagorik au baño? Euskaldun prestuak, ez arren orrelako ofensarik egin zuen lenengo ta beti bear dezuten euskarari egin. Zuen juizioa non da? Euskalerrietan nola gauza onik izango da».



## Orduan be!...


Dirudienez ba-ziran euskerarik ez ikasteko aitzaki billa astia galitzen ebanak. Ara Kardaberaz Aita'k diñoakuna: «Orregatik deabruak bere gezurrarekin engañatuak kalte geiago animetan egiten dute. Batek dio Euskerazko Dotriña ta liburuak ezin irakurri edo aditu dituela, besteak Euskera Algarabia, gregeria, girigai edo naspil madarikatua dala. Ah, dontsu txoroak ondo erruz itsutuak! Orrek gezurrak ametsak edo aitzakiak dira. Euskera bedeinakua, edo Jaungoikoaren benedizioz eta erregalioz bete da. Euskera, Euskera berez txiti nasgabe edo garbia argia ta bizia da. O, Euskaldunak ala ba'lira! Euskera guziak bezin ederra eta beste asko baño ederragoa da; erreza ikasten, itz-egiten eta irakurten da» (Kardaberaz A., Ondo Ilten Icasteco, idaztiaren sarreran).

## Geigarria

Amaitzeko, ara H, h, ta J dirala-ta A. Kardaberaz'ek diñoana: «Atxea letra dan edo ez, autoren artean eztabaida andiak dira, naiz letra naiz aspirazioz dala soñu gogorra ematen duana, emen gure euskeran eta Bizkaian atxe ori alferreko edo serbitzen ez dun gauza da» (Eusqueraren Barri Ona). «Jota, J, j, euskerarena ezta, baizik erderatik artu edo etorria».

Kardaberaz Aita'ren gomutaz berreungarren urte onetan egin geinken gauzarik onena «bakotzak egin adabena ta mañtasun batez alkartu danon lana be; ez da geyegi nai bogu Euskerea sendotu.

# KONTU KONTARI



## Alkar-izketan

—Kaixo, Manu, aspaldion zelan abil?

—Ba, ondo esan bearro, txarrago yabilzanak be ezagutzen yozat eta. Eu be, Anton, itxura oneko ago.

—Bai, I. e, osasunez ondo ta egunokaz lanpetuta ibili nok eta atsedeen apur bat artzeko, eugaz «barriketaldi» bat egiteko asmotan ñengoala, eu ikusteagaz asko poztu nok.

«Alkar-izketa bat» esan gurako dok, gaur egunean labatik arako opillaren antzera, oin besterik ez dok entzuten eta.

—Esakera ori ondo yakok baiña eñok asetzen. Bakik zegaitik? Alkar-izketa izan bearrean, bakar-izketa sarritan biurtzen dokalako. Len barriketaldi bat egin eta bakean etxeraten gintzozan. Oin alkar-izketa, alkar-aitu eziñegaz amaitzen dok, asarrez ez dokonean.

—Neu be eretxi orretakoa nok. Aiko, lengo egun baten lagun bi alkar-izketan ikusi ñoazan, eta alango baten, sututa bataak besteari esan yeutsan: «Igaz ezin leikek gauza onik egin...» eta beste barik bakarrik itxi yoa... Adizkide zirudienak alan ikusiaz arrituta gelditu nintzoan.

—Nik etxakiat zer gertatzen dan, baiña bayirudik, gaurko yentea piperminduta yagoala, bazter guztietan alkar-aitu eziña baiño ez dok ikusten eta.

—Neuk be orixe oarizen yozat, batez be gazte ta zarren artean, naiz ta oingo gauza bakarrik ez izan, ezta arrizkekoa be. Bakik ba, gaztearentzat

gauza guztiak barri dozakala, lengorik ez yok ikusita, eta zarrantzat, gazteak barrizat daukozan gauza asko zarrak dozakala. Alkar aitu eziña ba aitzekoa dok.

—Ez dok ori bakarrik! Ez dok ikusten euren artean zelan yabizen? Uskeri baten eretxi batekoak ez diralako alkarri itzik egin barik. Ori zelan azaldu?

—Nik etxakiat, baiña yakituri larregi dabelako ez beintzat. Epebako, arro, ala euren aurrean guztiak burua makurtu bear dabela uste dabelako ez ete dok izango? Batek bayakik!

—Olangoakaz alkar-izketarik ezin leikela, bai beintzat. Nik uste yoat benetako «alkar-izketarako auxe bear dokala: Norberea garbi azaldu, besteena gogo onez entzun, norbere eretxikoa ez danari itzalez begiratu, ta egi-bidean ipinteko alegiñak egin eta... eroapena...

—Olan izan ezkerro esakun zar au egia izango litzakek: «Gizonak itz-eginda aittuen dira».

—Ori alan dok. Baiña gaurko urduritasun, norberekeri, arrokeri ta «batxillerkeri» norberak egin, erein, ta norberak izan eta gauzak bapatera lortu gura izateagaz alkar-izketa baketsurik amesetan be ezin leikek izan.

—Orretan nagok neu be. Eta oin yoa bearra yaukat eta agur adizkide.

—Agur urrengorarte

# ALKAR-IZKETA (II)

Batzarrak.

—Arratsalde on!, Manu.

—Baita euri be, Anton. Ze barri dakak ba?

—Barri on askorik ez. Baiña lengo egunean euki giñoan barriketaldi ostean, etxera niñoala, asmo bat bururatuta etxeratu nintzoan. Ba dakik zer?

—Euk esan bearoko daustak, ni igarlea ez nok eta.

—Ba, nozik bein, astero edo, barriketaldi bat egiteko batu bear gintzakezala. Beti be, bizitzako garrastasunak gozatuteko asazkaldi bat ondo etorriko litzakek.

—Orretan ñagok neu be, mutil. Gaur egunean batzarrak egiteko oiturea, baratzeko porruak baiño ugariago egin dok eta, geuk be besteak baiño gitxiago ez yoguk izan bear...

—Alantxe dok izan be. Baiña ez az konturatu «goyenengoetatik» asita, yataldi eder bategaz amaitzen dozakala? Geyenak beintzat!

—Bai, gizona, ta uste yoat olan ez ba'litzok, ainbeste batzar eta «batzarzale» ez litzakela izango. Onegaz etxoat esan gura, ta urrik emon be, gizartean batzarrak bearreko ez diranik, ez ta onuratsu ez diranik be.

—Batzarrak beti dozak onuratsu, batzuentzat beintzat; esaterako yoan-etorriak eta ostekoa euren «kata-narrutik» ordaindu bear ez dabenentzat. Bestera ba litzok, batzarrak urriagoak izango litzakezak. Ez dok uste?

—Bai neu be orretan ñagok. Baiña ba dakik, gaur yoan etorrietarako erreztasun aundiak yagozak, gizonen artu-emonak be ugariago, auzi ta erabagigai geyago, alkar aituezin geyago ta... naste geyago be bai... eta olangorik ez dagoanean, gaur batzuk esaten daben lez «prolemak» asmau ta kitu.

—Ori be batzuetan gertatzen dok. Baita auziak erabagi bearrean urrengorako itzi be.

—Orixe egiten yoan nik ezagutu ñoan gizon batek. Bere morroia itugiñak kentzeko bialtzen yoanean au esaten yeutsan: «Itugiñak kendu egizak, baiña urrengorako be lana gertau».

—Olango zerbait batzarretan gertatzen dok. Gaur egunean itaunketa-aldian bizi gozak eta orretarako eskubidea guztiak yaukeek eta ezin galerazo. Onen ondorena «itaunak» ugaritzea, ta, ba dakik, onek ez yaukek amairik.

—Alantxe dok. Eta orrek gomutara yakarstak yakitun betek esan yoana. Ezyakin kirten batek aldi laburrean itaun geyago egin leikezala urte askotan yakitun askok erantzun leikezanak baiño.

—Ori olan ba'dok zati baterako batzarrak egin bearra izango dok mundu onetan, naiz ta guk legez, koparen bategaz amaitzen diranak izan ezkerok, gitxiago izan...

—Izan be, «gasolinea» amaitu ezkerok urrin ezin yoan leitekek.

—Gaurko naikoa izango dok. Etxean zeregin batzuk yaukazat eta, agur.

Agur ta ondo ibilli.



# ALKAR - IZKETAN III

## BATASUNA

—Manu, gauza bat esan bear daustat. Lengoan geure barriketaldi ostean etxera bidean, auxe gogoratzen yoan nintzoan: Batzararak onuratsu izateko ze asmogaz egin bear ete doazan.

—Or etxagok buru austerik mutil. Batzarren asmo, xede edo elburua eretxi batekoak ez diranak, zerbaitean batasunera eltzeko izan bear yok. Orretarako izan ezik, zetako batu?

—Sarritan «sakabanatu» ta bakotxa lengo lepotik buruagaz etxera biurtzeko. Ori dala-ta nik uste yoat, oin ainbeste aitatzen doan «batasuna» ta «sakabanatasuna» bikiak ezpadozak be, lengusuak beintzat izaten dozakala.

—Orrenbeste eñeukek esango baña alkarren ondoan ibilten doazala bai. Alan da be, «Batasuna» guztiok maite yoguan itz gozoa dot, «erre» ta «atxe» bakoa dok eta. Orrexegaitik edo, neugandik asita, guztiok maite yoagun itza dok «batasuna». Yakiña, oskol utsa ta maminbakoa eztanean.

—Orrexegaitik edo, mundu guztiaren **agotan** yabik itz eder ori, naiz ta biotz ta egitez gitxitan ikusi. Beste itz eder batzukaz yasoten dana: ogi, zuzentasun ta bakea, azkatasunagaz be bardin. Asko aitatzen diranean urri dabilzalaren ezaugarri izaten dozak. Ugari diranean iñok etxozak aitatzen.

—Ori be egia dok. Baña ez daustek ukatuko batasuna bere seme indarragaz ibilten ez danik, eta onuratsua ez danik be. Esakereak diñoan lez, «batasunak indarra emoten yok».

—Ez orixe! Baña batasuna, non, noz, zelan, zetan eta zertarako dan yakin bear yoagu. Or yagok untzea! Ori nok erabagi? Gitxi batzuk artu daben asmoari beste guztiak burua makurtuta? Ez daukek ames txarra! Nik uste yoat ori «batasuna» egiteko baño «sakabanatasunerako» bide ohea dala. Gaurko yentea, geyago barik be, burua makurtzen aspertuta yagok.

—Izan be alan dok! Batasunak indarra dakarrela egia izan arren, egi andiagoa dok indarrak benetako batasunik ez dakarrela, iñoz be ez yok ekarrita.

—Orduan zer egindo yoguk ba?...

—Zer egin diñok? Beste bide bat artu batasunerako egizko eta bakarra dan bidea.

—Bide ori zein dok ba?

—Ondiño eztok igarri? Ba nire ustez auxe dok: **Benetako batasunaren oñarria benetako maitasuna dok.** Ori barik batasun billa ibiltea amesetan ibiltearen urrengoa dok. Eta euskera arazotan be bai...

—Orregaz ez dok esan gureko, eure eretxikoak ez diranak euskeraren maitasunik ez dabenik?

—Maitasuna era askotakoa ta bakotxak bere erara aitatzen yoan gauza dok, eta ni enok iñor ukatzeko. Baña sentzunak diñostak **benetako** maitasun barik iñora ez goazala. Bakotxak gura dabena esango yok. Nik neurea esan yoat eta kitu.

—Orretan neu be eugaz ñagok. Euskera maite yabenak, euskera argi itz-egin, garbi idatzi, gai guztietan erabilli, txukundu, ta al dan guztian erabilten eta zabaltzen aleginduko dok. Ori barik barriketa utsa izango litzakek eta itz utzak aizeak eroaten yozak...

—Ondo esana. Gaurkoz naiko izango dok eta urrengorarte.

—Agur, mutil.

# XXIII YON

Zazpi urte Bagilla'ren 3'gn deun entzuteaz il zala. Mundu guztiak ain maite izan eban Aita Santu au, Eleizak deuntzat iragarteko gertakizunak egiteko asmoa, VI'gn Paul bere ondorengoak berealako baten agertu eban. Orren ardurea Cairolu prantzizkotar abarri emon eutson. Onak ointsu auzia ondo ta aurrera doala esan dau. XXIII Yon, Aita Santu izan aurretik, 27 urtean, Bulgaria, Grezia, Turkia ta Paris'en egona zan, eta bere bizitzaren barri yakiteko, osterabat egin dau, eta ezagun ez ziran barri asko bildu ditu.

Alde guztietan maite izan eben. Istanbul'en gexoak ikertzen yoaten zanean, bertan ikastola ta gexo etxeetan lan egiten eben alemandar lekaimeai beti auxe esaten eutsen: «Ez astu gero, guztiakaz onak izan bear zariela, katoliku ta ez diranakaz».

Bein baten lekaime bat, ezpaz yoan yakon turkarrak eroapena galdu eragiten eutsoela-ta. Ronkalli jaunak erantzun eutson: «Mundu onetan eroapen gitxi ez da inoz be naikoa. Zuk eroapen ugari bai ugari bear dozu».

Gudaren azken aldean, Turkia Alemania'ren aurka gudan sartu zan. Istanbul'en ikastola ta gexo etxeko ardura eukien lekaime talde batek euren errira, Alemania'ra yoateko erabagia artu eben, Ronkalli ordezkariari ezer esan barik. Euren pardelak gertautu urteteko egozala Aita Santuaren Ordolariak yakin eban eta arrapalada baten yoan eta lekaime guetiei deitu ta itandu eutsen: «Nondik bururatu yatzue zeuen gexo etxe ta ikastolak itxitea zeuen gotzaniari ezer esan barrik?» — Lekaime - buruak zalantzaz esan eutson: «Alemania'ko Ordolari jaunak agindu dausku». Ronkalli'k erantzun eutsen: «Nok bialdu zinduzen ona Hitler'ek ala Erroma'k?». Lekaimeak erantzun: «Erroma'k». «Orduan Erroma'k gura dau zuok emen gelditzea».

Lekaime-buruak esan eutson, Alemania'ko Ordolariak estu artzen zituela, eta 800 alemandar eroateko bultzi-trena gertu egoala. «Gu emen gelditzen ba'gara, Alemania'n gure etxeak itxi egingo ditue, eta gure sendiak arriskuan egongo dira». Ori larregi be ba-zan.

Euren eta bere eginbearra bertan yarraitzea zala-ta ordu bi luzeetan ekin ondoren, lekaimeak bertan yarraitzea erabagi eben. Ronkalli'k kapelea artuta aterantza yoyala, barrero biurtu irribarrez ta esan eutsen: «Yakiña, nik ez dot gura inor indarrez gelditu daiten, Yaungoikoaren batelean indarrezko itxastaririk ez da bear-eta».

# ALKAR-IZKETAN IV

## BITASUNA

—Gaur, Manu, negargarri ezpalitzok barregarri dan gaya bururatu yatak, alkar-izketa onetarako.

—Len be naiko negargarrik ikusten yoagu, baiña batekoagaitik euk guroana eik.

—Ba arrituta gelditukoaz baiña, gaurko alkar-izketako gaya «bitasuna» izango dok.

—Zer dinok? I be itz barriak asmatzen asi az?

—Enok itz-barri zalea be baiña, gauza barriei izen barria ipiñi bear.

—Ezaik esango bok, «bitasun» orrek zer esan gura daben ezin yoat igarrita.

—Neu be lenengotan bitasun ordez «bikeria» deituteko egon nok baiña «bitasuna» aukeratu yoat, biguntxoagoa dok-eta. Lengoan euskeraren batasuna dala-ta yardun aldia izan zoon, eta oin batasunetik sortu dan ume yayoparria dan «bitasuna» agertu dok. Ointxe esango daustat zer dan. Erdeldunak ta euskeldunak batera aitzeko euskerea erabilli. Ori zelan izan leitekek?: Erdiak erderaz ta beste erdiak euskerazkoak erabillita.

—Ori irakurle guztiak agoa zabalik izteko ohea dok. Eta gaiñera eztok gauza barria be. Oin urte asko dala izlari ospetsu batek langilleai auxe esan yautsen «Pueblo soberanoaren deretxoak defendidu bear doguz». Eta entzuten yegoan galleguak auxe esan yoan: «A ese siquiera se le entienda algo». Etxekiat euskeldunek zer esango ete eben.

—Orren ondoan «domistikun» bat baiño eztok oin esango yoadan au. Eta antxiña baserritarrak erabilten yoen «aterki» andirik badaukok, zabalduik, datorren txingor zaparradeari eutsiteko naikoa ez dok izango ta. Euskera garbia gura ba'dok entzun ondo:

Estremoetatik, oskurantismoa, ideologia, sexoa, justifikatzen, konzeptzioa, premisa, perbertituta, metafora, naturaleza, sexualtasuna, kultibatu, experientzia ta pedanteria. Oneik euskel-aldizkari bateko idaz-lan batetik. Orrez gaiñera or yabizek «moldako letretan», koordinatu, seriooki, erresponsabilidadea, errentabilidadea, programazioa, konformismo, sikolokiju sinplifikatu, teknika modernoa, kritika kanala, okul-tismo misteriosos, asolutamente konkreto, abstrakto, errealismoa ta errealitatea ta abar...

—Tirok, tirok, naikoa dok. Nire lagun batek ori «la akabision del euskera» dala esango lleukek.

—Ori ez dok txarrena. Tamalgarria dok «kultura» itza espanetatik dingilizka darabiltenak «zer» ori ontzat emotea.

—Erderaz idazten dabenak, orrenbeste euskerazko itz erdereagaz nastuko ballebezak zer esango ete lleukiek?

—Esan bearrik etxagok, edozeiñek igarri leikek eta.

—Uste yoat gaurko naikoa izango doala, «zaparrada» orreik buruko miña be egin yaustek eta.

—Olan ba'dok, atsedeen apur bat eta eroapen ugari bearkozak bai, ta agur urrengorarte.

—Agur, ondo ibilli ta... ekin... Euskera maitareen alde. Ostean gureak egin yok.

# ALKAR-IZKETAN V

## EUSKELZALETASUNA

—Gaurko gaya, Anton, euskeldunon biotza nasaitzekoa dok. Gero ta euskerazko idazti geyago, aldizkariak gai guztietzaz euskeraz, Kili-Kili'n bidez ainbeste milla umek Euskera ikastea pozgarria dok izan be.

—Ori egia dok baiña, baita be bazter guztietan gero te erdera geyago entzuten dokala, ta ori euskelzale burua egiten yaben artean be bai...

—Orixe nik aitu ezin yoadana; euskelzaleak ugaritu ta euskerea urritu. Yateko gauzea ba' litzok aitzekoa litzakek, zenbat eta geyago yan gitxiago gelditzea, baiña izkuntzeagaz besterantza gertatzen dok: zenbat eta geyago erabilli ugariago egitea. Eta orixe ez yoat ikusten.

—Euskera zaletasuna biotzean sus-traitua dokanean, biotzean yagoanak agotik errez urtetan yok eta, euskera ugariago entzungo litzakek, baiña zaletasun ori miñekoa bakarrik dokanean axeak eroaten yok. Eta olango geyegi ikusten dok, tamalez!

—Zaletasunak izan be, era askotakoak izaten dozak. Batzuen zaletasuna tamalezkoa izaten dok. Euskera ez dakiela-ta tamal andia agertzen yabek, baiña ikasteko egundo be ezer ez yabek egiten. Ugari dozak baita, euren umeai euskelizena ipinteko su ta gar yokatzen yabena, ta gero, gurasoak euskeldunak izan arren, Nongoa zara? itanduta «no sé baskuenze» erantzuten dabenak, ta gero, cómo te llamas? itanduta, «Garbiñe» erantzuten dabenak. Beste batzuk apur bat ikasten yabek baiña urrin yoan barik. Ba-dozak, orratio, euskerea, ikasi, ekin eta txukundu, garbitu ta zabaltzen alegintzen diranak.

—Ni gauza batek arrituten nayok, euskera ez yakitearen ain tamal andia, agertzen yaben orreik tamalez ez iltea... Ikasteko benetan gura izatea dok naikoa... baiña orixe latza!... Bakik zer gertatzen dokan. Euskera yakin arren, askok erdera erabilten yabek, euskera sakelean erabilten dokan erloyu edo orduarian antzera erabilten yabelako, ze ordu dan yakiteko, besterantza eginbearrean. Beste izkuntzak sakelean erabilli, bear danerako, ta euskera beti agoan. Ostean oin gertatzen dokana: Euskera galdu dan tokian il da, ta galdu ez dan tokian atzerantza... Eta orren azkena edozeiñek yakik...

—Tamalgarria izango litzakek Europa'ko izkuntzarik zarrena, arerioen indarkeriz ta euskeldunen zabarkeriz ondatzea.

—Nik ez yoat uste ori yazoko dokanik, len aitatu yoadan lez, gexorik egon arren, euskerea osatzeko alegiñak egiten osagille asko lanean yabizek-eta.

—Osagilleak diñok? Nik uste yoat euskerearen osagille artean «sasi-osagille» asko agertu dozakala, eta bakik, askon artean... osatu bearrean eztabaidan astia galdu ta gexoa iltea yaso leitekek.

—Eta ori asmorik onenagaz yokatuta be gertatzen dok.

—Bai, ori be bai batzuetan. Eta olango yazokun bategaz gomutatzen nok. Baiña gaur berandu egin yakuk eta iurrengoan esango daustat.

—Urrengorarte ba, agur mutil.

—Agur eta ondo ibilli.

URIGOITIA

# EUSKERA GAXOA! ZELAN OSATU...?

*Kritika kanaletik informatua naz dalako Okultismo misteriosoaz.*

*Konkretuz ori zer dan ez dot nik sentitzen, baiña intelijenziz zerbait dot ulertzen.*

*Erreportak diñonez au da gaur prolema: erreformatu bear Euskera lenena.*

*Teknika modernoak gogoan artuta, abstrakto antzekoak industriaz itxita,*

*H bat or ta emen ipiñi ezkeru, Euskera modernoa lortuko da... gero!*

*Absolutamentean ori egin ezik, egundo bere ez da Euskel-batasunik.*

*Errealismoa da guretzat legea naiz ta guztiz ondatu Euskera maitea!!!*

*Euskeldun zintzo batek entzun dabeneko: —Zoratu egin al az olan idazteko? ori Euskera ba'dok, itxi eik betiko—*

*Nik:*

*—Ezeik uste, gizona nireak diranik ez yakiat, yakin be ainbat Euskera'rik.*

*Itzok agertu dozak moldako letretan, euskel izena daben Aldizkarietan.*

*Euskeldun zintzoak:*  
*Olan ba'dok, obe dok itxi Euskerea, eta zorioneko Alfabetatzea.*

*Nik:*

*Onen antzekoa dok esatea ori: «Estula osatzeko lepoa ebagi».*

*Ba-dok bide oberik Euskeraren alde, benetan gura ba'dok izkuntz ori maite:*

*Itz eta idaztean garbitzen yokatu, ta esakun yatorrez guztiz aberastu.*

*Euskeldun zintzoak:*

*—Ori dok bide zuzen ta benetakoa, orretan eugaz ñagok, «Eutso bostekoa».*

GABIREL

# KONTU KONTARI



## ALKAR-IZKETAN VI

### EUSKEREAREN BIZIA

—Aste au, Manu luze egin yatak, lengoan euk aitatu eindun «yazokun» aren barri yakiteko gurariz egon nok-eta.

—Ori baiño ezpadok, poztuko aut. Labur, labur auxe gertatu zoan: Gizon bateri burutik-berako batek emon yautsoan eta konorte barik gelditu. Bere emazteak arin bai arin erriko osagillari deitu yeutsoan. Goitik bera aztertu ta beretzako baiño geyago zala-ta, beste osagille batzuen eretxia yakitea egoki izango zala usterik beste osagille biri deitu yeutsen. Baiñan banan gexoa aztertu ta bakotxak bere eretxia agertu ondoren, biderik egokiena gexoari odola ataratea izango zala erabagi yoen. Gexoagana yoan zoazan ba, eta emaztea negar baten aurkitu yoen. —Andrea, esan yeutsoen, ez zaitze estutu, zure senarra osatuko da-ta». —«Bai zera!» erantzun yeutsen emakumeak, «il da ba ta»... Orduan osagilleak ago batez: —«Tamala...! Apur baten itxaron ba'leu»...! Euskereagaz beste ainbeste ez ete dok gertauko?

—Yaunak ez dagiala nai izan, baiña bildur izatekoa dok. Euskeldunok batzen ezpagozak etxoguk egingo gauza onik.

—Euskeldunok batu ezik, euskerea zelan batu?

—Izan be, euskera batuteko biderik egokiena, euskeldun guztiok, al dogun guztian euskeraz egitea dok. Orixe dok euskeldun guztiei, lenengo buruan sartu bear litzakiona. Bakotxak orixe egingo ba'llok...

—Ik uste dok ori lortu leiken gauzea dokala? Bayetz esan al izatea pozgarri izango litzakek baiña, nok lortu? Euskeldunok buru gogorren entzutea yaukoguk, eta ikusten yoaguna ikusita egia izan bear yok. Alan da be...!

—Zerbait egin geinkela uste dok?

—Bai, baiña orretarako auxe gogoan artu bear: Bearreko gauzetan batasuna, eztabaidakoetan azkatasuna, eta guztien gain maitasuna. Au antxiñeko esakuna izan arren beti dot barri ta beti bearreko...

—Zuzen ago. Guztiok eta bakotxak orixe egiten ezpayoguk, nik etxakiat auxe baiño: Euskera'ren etorkizuna Yaungoikoaren eskuetan itxi bearko yogula.

—Orrek gomutara yakartak Kardaberaz agurgarriak oin berruen eta amar urte esan yoana: «Euskerak burua yasotea Yaungoikoak nai du».

—Neuk be ori ziñesten yoat, baiña bakik Yaungoikoaren guraria betetea, geuri, gizonoi yagokigun gauza dala, lur onetako okerrak zuzentzea geure eskuetan itxi yoan-eta.

—Orduan euskeraren bizia geure eskuetan yagok, eta olan izan ezkeru, bide bat bakarrik yagok: Etorkizuna geure eskuetan ez yagok eta, ori alde batera itxi ta gaur guztiok egin bear yoguna egin, etorkizuna guk gaur egiten yogunaren ondorena baiño ez dok-eta.

—Euskerearen bizia dala-ta baikor izateko bidea auxe dok: Guztiok maitasun batez euskera zoritzarrekoaren alde, zintzo, eten barik, nekatu barik lan egitea. Ori egiten ba'yoguk, euskera sasi-osagille guztiak be ez yabek ilgo, geure ezpanetan bizi dan artean ez dok ilgo ta:

—Gaurko, mutil, naikoa izan dok, eta agur urrengorarte.

Agur, eta ondo ibilli.

# ALKAR-IZKETAN VII

## EUSKERAREN IRAUPENA DALA-TA

Manu, lengoan Euskeraren etorkizuna zala-ta, izan giñoan alkar-izketan! ain «baikor» ikustean pozik gelditu nintsoan baiña, «Zeruko Argia»n «Izazpi»n bertso batzuk irakurrita «nire poza pozura» yausi zoon.

—Zer yiñoan ba?

—Ba, labur, labur auxe: beribil edo automobilla erosi ta baztertu egin bear izan yoala, txoper-karneta ezin lortu yoalako.

—Zegatik ez?

—Entzuyok berari: —«Kotxe eder bat erosi nuan ta zorionez beterik, urrea balitz bezela antxe mandioan det gordeta Orain iñolaz ezin atera zorioneko karneta ta komeriak izango ditut erderaz ez dakit eta».

—Txoper izateko erderaz yakin bear dok ala? Ori baltza izango litzakek!

—Ori baiño baltzagoa dok aurreko bertso baten diñokana: «Zazpi biaje egiñak ditut «suspensio» eramatera, neure burua bota bearko leiza zuloen batera»!

—Bizitzan ori baiño eroapen geyago bear dok, baiña, bakik, ori esate alde esango yoan, eta bertsolaria dok eta parkatu egin bear...

—Bai, bertsolariari bai, parkatu leiokiok, baiña ori esan eragin yautsoanari parkatzea ez dot ain errez.

—Beintzat bertsolaria ez dok errudun berak diñoanez: «Erdel itzeri esanai utsa, kasi ez diet ulertzen nere buruan sartzeko ez da xistemarikan agertzen. Dana memoriz ikasi bear —burua ez bazait lertzen— baiña galdezka asita-koan —ez diet tutik ulertzen.

—Orretan zuzen ago. Izkuntza biak ikasita yayo ezpazooan, ze erru izango yok ba?

—Alan yiñok berak be: «Ez-ezagun dedan izkuntzan, injenieru danak mintz, izketan asten diran orduko ezin ulertu ainbat itz. Nere esku ta barren guztiak ikara baten dabiltz, bildur geyago ezin eramán, gerrara yoango banintz!»

—Errukarri orrek ez yoan igaro estutasun makala! Baiña yakin ezik!

—Ez zoon izan ezyakitearren. Ikusik zer diñoan: «—Naiz ta señale danak eraman— buruz ongi ikasita, an aldatuta aurkitzen ditut, paperak leitzen asita. Nik euskerara ezin biurtu, naiz ta burua ausita, au da mixeri zelebrezkoa, Euskal-lerrian bizita!»

—Nik oker ori laster zuzenduko ñeukek.

—Ez dok bururik ausi bearrik. Berak yiñok garbi: «Beraz zegatik ez gera asten —nagusi daudenengandik...? injeniru euskaldunikan, ez al da egin oraindik?»

—Ederto esana, geure errian erbeste-ko izatea lotsagarri dok izan be ta. Dana dok gaur ainbeste aitatzen diran «gizonaren eskubideak» aintzat ez artzearren.

—Ba egiñ-egiñean be orixe dok aurre- rapide guztien oiñarri. Ori barik aurre- rapide guztiak azalekoak dokak eta gafiñera barriketa utsa... Gizonaren onerako egiñak diran gauzak aintzat artzea zertako dok gizona bera aintzat artu ezik?... Zeozer geyago esango be esango ñeukek, baiña au luze yoak eta urregorako itxi bearko yoguk.

—Alan egin bearko yoguk eta agur urengorarte.

—Agur, eta ckin Euskeraren alde!

# BAKE - ZALE, NORTZUK?

## BAKE-ZALE, NORTZUK?

Itz ederrak agotan erabiltea naikoa ba'litz, aldirik onenean bizi gareala esango geunke. Egunoro ta era guztietara itz eder oneik entzungo doguz: bakea, batasuna, zuzenbatasuna, alkar-izketa, azkatasuna ta abar. Gaur eguneko zoritxarrik andiena, auxe da: itz eder orreik esan gura daben mamiña alde batera itxi ta azal, oskol utsagaz gelditzea. Gaurkoz bake itza bakarrik ikusi daigun. Bakea zer dan itanduten ba' dozu, batak erriak agiñetaraño izkilluz ornidu ta alkarren bildurrez gudan ez astea dala esango dautzu, besteak arerioak azpiratu ta zirkiñik egiten ez itxitea, lapurrak, barriz, ostu dabenagaz bakean biziten itxiteko eskatuko leuke. Nor beregaz urtenda gero guztiak «bakezale».

Eta alan da be gauza bakanak ikusten dira: guztiak bake gura ta bakerik ezin egin. Eta euren «bakezaletasuna» egitez erakusteko batzar bat egiten dabenean be, gauza barregarriak ikusten dira: Ara bat. Vietnam'go gudea zala-ta, Paris'en alderdi bietakoak batu ziranean, aste osoak igaro zituezan, mai borobil ala lauertzekoaren inguruan batzarrak egingo ete ebezan erabagiteko. Borobilla izan ezker maipuruko danak dira-ta... Gizonen umekeriak, besterik ez.

## EGIZKO BAKEA

Egizko bakea zer dan igartea azaltzea baiño errezago da. Bakea, gauza bakotxa bere tokian zaintzetik sortzen da. Gauzea bere izatez dagokion tokitik ataraten danean, azur bat bere tokitik aterata lez, bakea galtzen da. Ori dala-ta bakeak oiñarriztat egia euki bear dau, guzurra bakearen arariorik andiena da-ta. Orregaz batera doa, izate bakotxaren eskubideak aintzat artu ta dagokiona emotea, ori zuzentasunak eskatzen dau-ta; zuzentasun barik ba ez dago bakerik, asarre ta alkar-ikusi eziña baiño. Orrez gaiñera bakeak maitasuna eskatzen dau, eta maitasunak biotzak batu egiten ditu eta batasun onetatik bakebizia sortzen da. Orregaitik indarkeriak bakeagaz ez dau zer ikusirik, areriorik andiena dau-ta.

Azkenez, gizonak bere egiteetzaz erantzun bear dabelako azkatasuna bear dau, ori barik gizatasuna galduko leuke-ta.

XXIII Yon'ek itz gitxitan guzti au azaldu eban: «Bakeak oiñarriztat egia euki bear dau, zuzentasunez iragi bear da, maitasun bidez biztu ta osotu, ta azkatasunez egiztu» (Pacem in Terris AG 2).



# ALKAR - IZKETAN VIII

## GIZONAREN ESKUBIDEAK

—I, Manu, ez az gomutatzen igaroko astean Eleizak eta ONU'k be aintzat artzen yoazan «Gizonaren eskubideak» zirala-ta, zerbait esan gurea agertu eindula?

—Bai, gomutatzen nok, baiña bakik, berbeak berbea ekarten yok eta, gai orretzaz yardun aldia egitea urrengorako gelditu zoan.

—Alantxe dok. Eta gogoko ba'yata gaurko alkar-izketarako gaitzat artu geinkek. Ezteritxok?

—Pozik be bai. Gizonaren duintasuna ta eskubideak mundu guztiak agotan yarabizek eta ondo etorriko litzakek, gauzak garbi yakiteko gogo bizia yaukat eta.

—Asmo orretakoa nok neu be. Eta gaya garrantzitsua dokalako, gauzak zeatz yakiteko neure lagun abade bategana yo ñoan, eta berak emon yaustan, ondo irakurteko esanaz, XXIII Yon Aita Santu ospetsuak il baiño ille bat lenago argitaldu yoan «Pacem in Terris» (Bakea Lurraldeetan) deritxon Enziklika gomutagarria. Antxe yagozak gauzak garbi eta neurerik ez doat ezer esango. Bertan ikusiko dozak argi ta garbi azalduta gizonaren duintasun eta eskubideen oinarria. Lenen gizona here antz eta irudira, adimen eta aukeramen-deun Yaungoikoak egin yoalako eta orrez gaiñera Bere graziz Yaungoikoaren seme ta betiko zorionaren yaubegei egiten doalako.

—I baiña, gizonaren eskubideak aitatu doazanean eskubide orrei dagokiezan «eginbearrak» be aitatu bear eindungak.

—Yakiña, ori bebai, «eskubide» ta «eginbearrak» bikiak dozak eta batera ibiltzen dozak, naiz ta sarritan «eskubideak» bakarrik aitatu.

—Ori egiten yabenak ez yok zintzo yokatuten, «eginbearrak» alde batera itxiten yoazanak «eskubiderik» ez yok aitatu bear-eta.

—Ba nik olango asko ezagutzen yoazat, eta nire ustez ortxe yagok gaurko gaitz askoren zuztraya.

—Orixe esango ñeukek neuk be. Izan be, eskubide-eginbearrok zustraituta yagozalako, danentzakoak, ausi-eziñak eta aintzat artu barik itxi ezin leikezenak dozak.

—Orretarako gizonak diran gizonak borondate onekoak izan bear.

—Ori esan bearrik be ez yagok. Aita Santuak berak asieran argi yiñok, idazki ori borondate oneko gizon guztiei zuzentzean.

—Izan be, borondate ona ez yaukonagaz urrin ezin yoan leitekek.

—Ba, olango asko ikusten dok, mutil. Ez az konturatu Idazki ori guztiak txaloka artu ebela, gero polito-polito «ixiltasunaz» baztertu ta lurperatzeko...

—Borondate ona txaloetan baiño egiteetan obeto agertzen dok... Txaloak itxureagatik be yo leikezak eta olango larregi yabik munduan.

—Alan yabik yabillen lez.

—Bai, eta alan ibilliko dok esagille ospetsuen batek «borondate onekoak» ugaritzeko «inyeziñoen» bat asmatzen ezipayok.

—Dana dala, gu biok borondate onekoak izaten ba'gozak, bi geiago izangozak munduan.

—Alatxe dok. Baiña yardun au luzetuaz yoak eta urrengoan yarratu bearko yautsoguk.

# ALKAR - IZKETAN

(Euskeraren etorkizuna dala-ta)

—Lengoan, Anton, zeozer geyago esateko gogoagaz amaitu eindun alkar-izketa-ta, zer izango ete zozan yakingura biziagaz etorri nok.

—Ba, esango daustat. Ik aitatu einduzan eskubideak gizon guztienak dozak

eta, guk euskeldunok be eukiko yoguzala, gizon goazalako espadok be. Baña nik ikusten yoadana auxe dok: Askok eskubide oneik aintzat ez yoezala artzen. Eta ori barik Euskeraren etorkizuna illun xamar ikusten yoat.

—Ori oingo gatxa eztok. Ikusik Adema, Bayona'ko kanoniguak, Azkue yau-nari 1896'gn idazten yautsoana: «Oraiko modu ta lege suerteekin, ez or ez emen Eskuarak ez dezake luzez irauu». Ordutik ona zaparrada asko yausiarren, Euskerea ondiño bizi dok, gauza arri-garria izan arren be. Belutxo, baña euskeldun asko konturatu dozak Euskera galdu ezkerok «Euskeldun» izena guzurrrezkoa izango litzakela, eta orregaitik edo su ta gar Euskeraren alde yokatzen yabek.

—Izan be, ondo begiratu ezkerok Euskeraren iraupena ondo arrigarria dok, katuen antzera zazpi bizi yaukoazala yirudik.

—Kardaberaz agurgarriak be bere aldian orixe idatzi yoan.

—Zer esaten yoan ba?

—Euskerearen iraupena mirari andibat zala. Emen bere itzak: «Euskera zoill-zoil, bakarrik edo nik eztakit nola bizirik ainbeste sekulatan egon dan eta dagoan; añ berez ta añ garbi ta garbi bere erio ta arerio guzien damu gaiztoan badere. Ala ere asko egieki galdu da. Baña ori ezta euskeraren, ezpada euskeldunen desonra: bada oiek polikitu, apañdu ta edertu bearrean lotsarik gabe berek beren nagitasunez, itxustu, larrutu ta desegin dute».

—Itzok gaurko egunerako be elitzazak txarto etorriko.

—Or ikusten dok Euskeraren arerio txarrenak bertokoak dozakala.

—Etxeko arerio beti dok txarrena, gorputzagaz bardin gertatzen dok: barrutik datorren gexoa bildugarrien... Auxe dok Euskerearen gatxa be.

—Orretan fiagok neu be. Euskaldunok geure eskubideak aintzat artzen ezpayoguzak besteai aintzat artu eragiten ibiltea amesetan ibiltea dok.

—Gai oneri ekitea atsegin izango litzakek baña. AGUR'ekoak labur idazteko esaten yauskuk eta urregoan yarraitzea obeto izangok. Ezteritxok?

Bai, yatekoagaz orixe egiten yoguk, egun baten yan ezin dana urrengoarako itxi.

—Bitartean ekin gogor Euskeraren etorkizuna geure eskuetan eta ezpanetan yagok eta.

—Ekin ba gogor, nire lagun abade batek esaten yoan ba, ekin'ek ez yaukoala amairik eta atzekoz aurre irakurri ezkerok nike dokala, ta nitek gerkeraz «garratza» esan gure yoala.

—Alantxe dok, ekin barik ez yagok garratzerik. Eta oin agur urrengorarte.

—Agur ta ondo ibilli.

# ALKAR - IZKETAN

## (X)

—Kaixo!, Manu. Opor-aldian izan azela entzun yoat eta uste yoat zenbait barri ekarriko dokala.

—Zarrak barri, Anton, ostantzean gauza andirik ez. Besteak baiño gitxiago ez izatearren, neu be oporketan izan nok, eta opor aldian be, buruak lan egiten yok-eta, gauza bat burururatu yatak.

—Ire buruak opor andirik ez yok ezagutzen eta uste yoat, gaurko barriketaldirako zerbait garrantzitsu dana izango dokala. Esaik ba, pozik entzungo daustat eta.

—Auxe dok ba. Orain arteko gure yardun aldiak, Euskera, euskelzaletasuna ta gure izkuntzaren iraupenatzaz izan dozak, baiña beste zerbait be bearreko dala uste yoat: euskel oitura edo ekanduetzaz barriketaldi bat eukitea, orain arte euskera ta ekandu garbiak alkartuta ibilli dozakala ba-dakit-eta.

—Bai, alantxe izan dok; baiña, gaur, ikusten danez, alkartasun ori urratuaz yoak, eta orixe dok gauzarik tamalgarriena, ba-yakiguk ba, bata galtzen danean bestea galtzen dala.

—Ori be egia dok, baiña gauzak ain baltz ikusi bear diranik nik ez yoat uste. Beti be, gure txistu, abesti ta abar naiz ta «gitar» lagunduta, zabalduaz yoazak. Eta ori pozgarri dala uste yoat.

—Alan dok baiña, ez dok uste, sarritan, orreik amuzki lez ta lebatz inguruan ipinten yaben «perejil» antzera dirala? Ez dok ikusten, or zabal dabilzan «yolas toki» izenagaz, gazteen sakelak ustu, biotzak nastu, oiturak ondatuteko beste «zer» ori (izenik ez yoat aitatu gura be baiña aituko dok) neuk ezagutzen yoadazan baserri-tar gazteetaraño be eldu dala. Olan yarraitu ezkeru, gure Euskereagaz nora goazak?

—Neuk be zerbait entzun yoat. Errien etorkizuna gazteen eskuetan yagok, eta euren zintzotasuna zaintzen ezpayoguk, gureak egin yok. Eta olango «yolasen» zabal-kundea, izparringi ta erri-irratietan be egiteari, zer deritxok?

—Oso txarto, eta ni ez nok bakarrik. Nonbaiten irakurri yoat ba, erri baten, baserrian gazteai oin oitzen doan «itaunketa» bat egin yautsiela ta batek izan ezik, danak txarto ereisten eutsela, erri-irradi batek olango iragarkiak zabaltzeari. Baiña ba-kik diruak indar andia yaukoala.

—Onak gaozak, egia, zintzotasuna, ekandu garbi ta zuzentasunaren alde yokatu bear yoenak, dirua lenengo ipinten ba'yabek!

—Gaurko gaztediak, ainbeste arerion artean, burua argi, biotza garbi eta asmoak zuzen euki bear yozak.

—Eta orretan gurasoak izan bear lleukiek lenenak euren seme-alabak euskeldun zintzo ta ekandu garbietakoak izan daitezcan.

—Gurasoak diñok? Tamalez beterik ikusiko dozak, seme-alabakaz gauza onik ezin dabela-ta. Agintariekandik dana itxaron. Ori amesetan ibiltea izango litzakek, gura ta be, gurasoen laguntza barik ezingo lleukiek gauza andirik egin-eta.

—Dana dala, praille usañik euki ez yoan beiñolako Thomas Mann'ek auxe idatzi yoan: «Etorkizuna erri garbiena izango da».

—Ori egi andia dok eta gogoan artzekoa.

—Gaurko naiko izango dok eta agur, mutil.

Agur eta ondo ibilli!

# Yazokun arrigarria

Lourdes'ko egazkin-zelayan gertatua. Boeing baten 57 irlandar bidez-kundez eldu ziran Lourdes'era. Euron artean Dublin'go yatetxe baten uga-zabak yayotzatik elbarritua zan iru urteterdiko alabatxo bategaz.

Eta M. Jean Dauriac, bertako arduradun nagusiak yazo zana onantxe azaltzen dau: «Gu bideztien izenak artzen gengoan bitartean, amak bere altsoan eukon Tania Hogan bere alabatxo elbarritua. Ontan umea yatsi ta lurrean zutunik gelditu zan. Bapatean bidezti asko garrazika asi ziran, eta ama guztiz zurbilduta gelditu zan, bitartean an egozan guztiak arrituta ikusi eben neskatotxoa taka-taka 30 metro inguruan aretoa zear yoaten. Aitak yarraitzen eutson eta artean biotzikara andi bategaz amak otoi eta negar batera egin ebanzan, areto bazter baten».

Eta M. Dauriac'ek darrai: «Ama arek eukan arpegia baiño dizdira-tsuagorik egundo be ez dot ikusi. Umeak artegasunik ez eban agertu. Pozeko txilio bat egin, eta amari ezer ebazteko astirik emon barik erabagiz ibilten asi zan».

Dauriac'en eretxiz, eleizara yoaten dana izan ez arren, yazokun au izadi legez ezin leike azaldu. Mirari dala esateko arintxo da, baiña gauza arrigarria izan dala ezin ukatu, geure ondoan gertatu zan dana-ta. Egundo olan-gorik ez da gertatu, Lourdes'ko eleizara 12 kilometro dagozan tokian.

Bideztien artean ba zan beste ama bat ume elbarritu bat altsoan ebal. Uste eban minutu batzuk itxaron eta bere umea be ibilten asiko zala, baiña alperrik...

Oin Lourdes'ko Osagille Landolakoeri dagokie eleizatik 12 kilometrora gertu dan yazokun arrigarri ori azertzea.

# ALKAR-IZKETAN XI

## ERESI-ZALETASUNA

—Sarritan buru-austen ibilten nok, Manu, gaur «modan» dagozan eresiak diralata. Euren gatz, pipermin ta guzti, zuzenazetasuna agertzeko egoki yirudiek, baiña eusko-gogoarentzat kaltegarri be izan leitekezala uste yoat.

—Neuk be ori ez ñeukek ukatuko. Eresiak gure izakeran eragipen andia yok. Bakik zegaitik? Gure bizia giroaren txirrinka gainean lez yabik, eta gainean yoanari asko eragiten yautesok. Gorputz eta gogo. Eresi alayak gure gorputz eta gogo poztu egiten yozak, eresi itunak moteldu. Au egi garbia dok. Izakera ituna dabenari abesti, eresi, alairik ez yakok atsegin izaten, eta izakera alaikoari itunik ez. Ori bakoitzaren izakerea ezagutzeko bide ona dok, eta bildur barik egizat artu geinkek esakun au: «Ze eresi atsegin yakan esan egidak eta nor azan esango daustat».

—Ba ori egunoro ikusten yoguk. Nor dok txistua entzutean poztuten ez danik? Nor eresi itunak entzutean ituntzen ez danik? Eta nor gaur egunean entzuten diran abestiak entzunda (gogoz entzuten diranean) euren gorputzker, egoera ta kiñuetan sentzuna galduta lez agertzen ez danik. Gaurko biurrikeri ta zorakeri asko, ez ete dozak entzuten diran eresietan zusterrea dabenak?

—Ba, gaur besterik ez dok entzuten irрати ta urrutikuskiñez. Orixo dok naikoa gure euskal-izakerea apurka-apurka galdu eragiteko. Egia dok, aldi bakoitzak bere erak agertzen yoazala, baiña gaur egunean entzuten diran erbeste usaiñeko ainbeste abestigaz, geurea dana ito egin bear yauskuek.

—Neu be orren bildurrez egoten nok. Atzerriko eresiak bertakotu ala euskel-usaiña emoten ainbat gazte alegintzen dozak, baiña etxakiat geurea dana baztertu barik ori zelan egin leiken. Gaurko urioleari esia ipintea ez dok erreza-eta.

—Bertokoari eutsiteko be taldeak ba-yagozak, eta ori pozgarri ta onuragarri izango dokala esan bearrik be ez, baiña beti be egoki izango dok geure abesti ta eresiak biotzean ondo zustraituta eukitea, geure izatea ta antza galdu ez yaguzan.

—Zer edo zer egin bearko dok, euskeldunen ezaugarri bakarra arri astunak yaso, ukabillkadak emon eta tripakadak egiten bakarrik nagusi agertzea gura ezpayoguk.

—Gaur, yakintzea edo oin esaten daben «kulturea» miñean asko erabilten dok naiz ta gai orretan azkenengo maillan gelditzeko arriskuan egon.

—Pelotoyari ostikada batzuk emoten yakitea baiño, buru lantza, aziera ta eziera yatorra bearrekoagoak dozak izan be.

—Izparringiak irakurri ezkeru ez yirudik olan danik, orririk erdiek yolasantzat izaten yoezek eta dirua be ortik yabik bai eta ez dok arritzeko.

—Neurritz iñok zer esanik ez lleukek izango, ba gauzak goikoz bera artu bearrik ez yagok.

—Untzea ortxe yagok ba, Gauza bakoitzari zor yakon garrantzia emotea eta euskal-eresiari berea, lengo ona ta oingo ona berezi barik.

—Gaurko naikoa izango dok eta agur.

—Agur ba datorren asterarte.

# ALKAR IZKETAN XII

## EUSKO-ERESIA DALA-TA

—Lengo asteko alkar-izketan eresiatzaz esan einduna, Anton, aintzat artzekoa dala deritxoat. Gai onetzaz zerbait geyago esango ba enduken asko postuko nintzakek.

—Gai orretzaz nik entzun dodana bakarrik yakiat, batez be Aita Donostia ospetsuari. Eta bere eretxia aintzat artzekoa dok.

—Zer ñoan ba?

—Ondiño gazte zala neure etxean egun batzuk igaro yoazan eta barriketaldi baten auxe esan yaustan: «Ni erbesteko eresiak ikasteko beldur naiz eusko eresiak sakon-sakon ikasi arte». Bear ba'da eusko-eresiaren zentzuna gitxitu edo ito egingo ete eutson bildur zoon.

—Izan be, belarri ona yaukonari eresia izatzi, pegau, egiten yakok eta berea danari kalte egin. Arduraz ibilli ezik izkuntzakaz be bardin gertatzen dok.

—Olango zerbait gertatu yoakon Azkue yaunari be. Azkue Euskera gauzetan gorengoa izanez gaiñera eusko-eresian be gorengo maillan yebillan. Alan da be, gazterik erbesteko eresi-arauak ikasi ta trebetasuna lortzeko egin ituan ikasketak zirala-ta edo, URLO eres-antzerkia atara yoanean gai orretan aituak ziranak auxe esan yoen: Erbesteko teknika ta eresi asko ikasi ezipayoa obeto izango zoala. Atzerrietan ikasitako teknikak, berez biotzetik urtetan yautson eusko eresiari egoak mostu ta loratan mostuten yoazala.

—Orrek esan gura yok bere eusko-gogotik urteten yautsonari yarraitu ba'yautson askoz obeto izango zoala.

—Ortik atara geinkek, norbereak diranak ondo ikasi barik erbeste eresiak ikas-tea kaltegarri izan leitekela, bertako azia erbesteakoakaz nastau ezkeru nastautako landarak urtetan yoen lez.

—Orixe dala-ta, nik uste yoat, atzerriko eresiak geuregandu aurretik, geureak ondo zuztraitu bear yoguzala.

—Orretan yabizenak ardura andiz yokatu bearko yabek, naste negargarri bat sortu ta ango ta emengo barik gelditu ez gaitezen.

—Bai, osterantzean neuk ezagutu ñoan baserritar bateri gertatu yakona yazo leikiok.

—Zer yazo yakoa ba?

—Ba, Ameriketara yoan bai, ta ekian euskerea aztu ta ez ekian erdereka ikasi barik etorri. Entzutekoa edo obeto ez entzutekoa izaten zoon aren izkuntza barregarria.

—Orduan Txomin Agirre'k «Kresala'n» aitatzen yoan «indianoaren» antzekoa izango zoon. Baiña au urrengorako itxitea obeto izango dok.

—Neu be orretan ñagok, ordua be aurrera yoak eta.

—Agur ba. Y. I. datorren asterarte.

—Agur eta ondo ibilli.

# KONTU KONTARI



## ALKAR IZKETAN XIII

### EUSKEREAREN INGURUAN

—Gure izkuntza maitearen inguruan, Manu, gauza pozgarriak gertatzen dozak. Bat ezpai barik, eun eta larogetakaz Ipar-amerika'n yayotako euskeldunen semeak, ingalanderaz eta euskeraz emen, euren asaben lurrean, itz egiten ikustea. Eta beste bat aurtengo ikastaroan, Euskelzaleen ardurapean 19.000 umek Euskerea ikasten ekingo yautseela.

—Orren barri AGUR'en irakurri ñoan ta benetan poztu nintzoan. Baiña era be-rean beñiola aitatu giñoan «indiano» agaz gomutau nintzoan.

—A, bai, euskerea aztu ta erdereak ikasi barik etorri oan a?

—Bai, Txomin Agirre'k bere «Kresala»'n aitatzen yoana. Ak arrokeriz esaten yoan: «Yo puedo disir mejor que na-

die, porque ha visto muchos tierras, baskuntze no vale para ganar pan». Ederto erantzun yautsoan itxasgizonak: «Zelan irabazi dozu ba zuk geldo zar orrek? Erderaz yardun ederren bat eginda? Ezagun dozu».

—Lelo izatea ez dok pekatu baiña arro izatea bai, eta ori esan ebana biak batera zoan. Baiña ba-dozak euskerea gitxiagotzat daukenak, astegunetako soñekotzat legez, ta besterik ondo yakin ez arren, alde batera itxiten yabenak.

—Ori emengo gatxa bakarrik ez dok. Ara, oin ainbeste aitatzen doan Irlanda'n bein gertatu zoana. Irlandarren izkuntzea, gaelerea, galduez yoyan eta ingalanderea ugarituez, eta Hale eritxon gotzain batek erri-izkuntzearen aldezko Alkartasun bat sortu yoan. Eta yakiña, gotzain onek erritar guztiei euren izkuntzan itz egiten yautsoen.

—Gauza arrigarria benetan... gure artean ori yazo izan ba'zoan... Baiña, yarraituik...

—Gotzain arek egun baten baserritar bat aurkitu yoan gaeleraz ondo baiña ingalanderaz mordoillo egiten yoana. Gotzainak gaeleraz itz-egin yautsoan eta baserritarrak ingalanderaz erantzun. Orduan Gotzainak esan yautsoan: «Zegaitik ingalandera mordoilloz erantzuten daustazu, gaelerea ondo yakinda?» Eta baserritarrak erantzun: «Yauna, alantxe da baiña, berori lango yaun bateri...»

—Olango gauzak ikusteko ez yaukagu Irlanda'ra yoan bearrik. Au dok samin-garriena.

—Baiña ba-dozak, erri-izkuntza yakin arren be, arrokeriz edo euren yotzako-izkuntzea itxita beste izkuntzara yoten yabenak, batez be neskatillen artean. Ta ez emen bakarrik.

—Zuzen ago. Aste asko ez dala, Lapurdi'ko euskeldun erri baten bizi doan abade lagun batek auxe edestu yaustan. Euskeldun neskatilla bi parra-parra pran tzesez iñarduela Apirka'ko gudari erdi baltz bat urreratu ta esan yautseen: «Zuok zeuen izkuntzea euki ta, zer dala ta diarduzue prantzesez? Neskatillak ixillik gelditu yoazan. Baiña aprikatar gudariak barriro be itandu eta euskaldun neskatillak ixillik...

—Zer erantzungo yautsoen ba, ain bidez egiten yaken itaunari.

—Yazokun onek gauza asko bururatu-ten yaustazak, baiña au luze yoak eta urrengoan yarraitu bearko yautsoguk.

—Agur ba, mutil eta ondo ibilli.

# ALKAR-IZKETAN - XIV

## Gizarte-zuentasuna dala-ta

—Lengo baten, ezagun bategaz yardun aldi bat euki ñoan eta, esaten yaustan gaurko naste ta gizarteko alkar aitu eziña gizartean zuentasuna nagusi ez dalako dala. Zer deritxok, Anton.

—Zer eretxiko yautsat ba? Zuentasuna bearreko dokala. Zuentasun barik gizartea, bere tokian azurrak ez yaukoazan soña legez miñez egongo litzakek-eta. Baiña nik ez yoat uste *naikoa* dokanik.

—Zergaitik ez?

—Ez dakit ba, tramankulu edo makiña bat ondo ibilteko txirrinka ta atal bakotxa bere tokian ipintea *naikoa* ez dala? Orio, legungarri edo labangarren bategaz igortzi ezik nekez ibili, ta berotu egingo litzakek.

—Alantxe dok izan be, baiña zer dok gizarteak bear yoan labangarri ori?

—Ez dok igarri? Gizartean ain urri ikusi, ta ain bearreko dokan *maitasuna*.

—Ez dok ba miñean gitxi erabilten doalako.

—Zuentasunagaz be orixe gertatzen dok. Zenbat eta urriago ibilli, gauzea geyago aiatu. Bakotxak bereari bakarrik begiratu ezker zuentasunez yokatzea ez dok gauza erreza izan be.

—Ba, ori betiko gatxa dok. Lana eskintzen yoanok, al bait lan-sari gitxien ordainduta, al bait gauza geyen egitea gura izaten yok; langilleak ostera, al bait lan gitxien eginda, lan-sari geyen irabaztea. Eta bitzuok zuzen yokatu ezik ez yagok gizartea zuzentzerik.

—Baiña ondo dakik atalik txarrena beartsu ta menpekoena izaten dokala. Zartana kirtetenetik nagusiek yaukiek-eta!

—Alantxe dok. Ondiño egun gitxi dok izparringi baten auxe irakurri ñoala: «Berengo mailako alogerekoak (peoyak) bear dira. Orduko 38 lauerleko emongo yakez, *amar edo amabi* orduan lan egitearren». Zuentasuna ainbeste aitatzen dokan egunetan ori iragarri? Gizona gizon lez artzeko ordua dok eta «limoyen» antzera azkenengo tantakadararte estutzeko etxagok eskubiderik.

—Batzuk euren burua zuritzeko lenagoko aldean oingo langilleak ondo bizi dozakala esaten yabek, baiña orrek etxok esan gura gaurko ugazaba ta langilleen arteko artu-emonetan zuentasuna nagusi doakanik. Eleiza<sup>k</sup> aspaldi irakatsi yok, neurritz lan eginda gizonak bere sendiari eroso eutsiteko lain irabazi bear yoala.

—Alan da guzti be nik ezagutzen yoazat, sendia lotan itxita lanera yoan ta gau berandurarte etxerutzen ez diranak, aste guztian sendiagaz barrikeltadi bat egiteko asti barik.

—Ori zuentasun eta gizonaren duintasunaren aurka yagoala argi yagok.

—Alantxe dok izan be, baiña ori buruan sartu yok bera ondo ibilli ezkerro besteai «or konpon» egiten yakanari.

—Ba, olangoak *gizon* lez be ez yabek yokatsen. Gure asabak zeozegaitik esaten yoen: «Prakan, prakan ez dago gizona».

—Ordua aurrera yoak eta gaurko *naikoa* izangok.

—Agur ba, datorren asterarte.



# KONTU KONTARI



## ALKAR - IZKETAN XV

### EZTABAIDEA DALA-TA

- Zer deritxok, Manu, «eztabaidea»tzaz yardunaldi bat egiteari?
- Ederto, mutil, zeozegaitik esaten yabek eztabaidatik «argiak» urtetan yoala.
- Batzuetan bai, baiña beti ez ñeukek esango, sarritan «txatarrak» urtetan yabek eta.
- Ori be yazoten dok, baiña bakik zergaitik? Katuari bosgarren ankea billatzen zaleak doazalako, baita besteen eretxien aurka egiteko grña dabelako be bai.
- Olango batzuk neuk be ezagutzen yoazat. Ik «bai» esaten ba'dok, «ez» erantzuteko beti gertu doazanak, eta besterantza be bai. Orreik izaten dozak eztabaida zaleak.
- Olangoak be, bearreko diranik ez ñeukek esango, baiña erabagi gayetan «argia» billatzeko naiz egia ezagutzeko lagungarri doazala bai. Gaiñera gizarteko aruemonari bizitasun eta gazta emoten yautsiek.
- Ori ez ñoak ukatzen, baiña eztabaidea onuratsua izateko «egia» ezagutzeko asmoz egin bear dokala esan bearrik be ez yagok. Norbergaz gaiñetik urtetako asmoaz eztabaidan astea, astia galtzea izango litzakek.
- Olan ba'litzozak eztabaidak onuratsu izango litzakezak, baten argia besteengaz geyagotu egingo litzakek-eta.
- Alantxe dok izan be. Gizonak ba, alkarri itz eginda artu-emonetan asten dozak, eta lenen besteen eretxiei abegi ona egiten alegintzen ba'dok, bere eretxiak agertzeko «eskubidea» be aintzat artu bearko yautsiek.
- Orixe ez egitearren eztabaidak azkenbakoak izaten dozak, eta ondoren onik bakoak, len baiño gogotsuago norberengaz yarraitzeko asmoaz amaitzen diranak.
- Eta gizonak ankea sartu dabela aitortzeko apaltasunik ez dan artean olan izango dok.
- Orduan zati baterako ba-yaukoguk.
- Batez be nik ezagutu ñoazan bi langoak izan ezkero.
- Euren eztabaidea zetzaz izan zoan ba?
- Neure aurrean eztabaidan asi zoazan. Ba-kik ze gai erabilli eben? Ba, bietatik zein zoan setatsuen a edo terkoena. Batak esaten yautsoan besteari: —I ni baiño setatsuen a az. Eta besteak erantzun: —I ni baiño geyagoa az. Eta olan luzaroan yarraituta gero batak besteari esan yautsoan: —Errezoya emoten daustat. Eta besteak erantzun: —Ez euki ez baiñoan...
- Yoadi olakogaz eztabaidan zerbait atarako alakoan.
- Ba, gauza onik egiteko olango geyegi ikusten dok bazterretan.
- Ordua aurrera yoak eta gaurko naikoa izango dok.
- Agur ba ta ondo ibilli.
- Agur!...

# ALKAR - IZKETAN XVI

## Eztabaidakeria dala-ta

—Eztabaidea dala-ta, izan giñoan lengo yardun aldiaren ondoren, euskeldunok orretan mutillak gozala gogoratzen etxeratu nintzoan.

—Etxekiat beste toki batzuetako barri, baiña gure artean eztabaida bat naiko izaten dok euskel-idazleak ugaritzeko. Alde guztietatik agertuko dozak ta ondo idazten dabena. Tamalgarriena izaten dok eztabaidea amaituaz batera idazleok ixiltzea.

—Neuk be, bein baiño geyagotan esan yautset ori neure lagunei, eta alde orretatik begiratu ezker eztabaidea aukerakoa dokala erantzun yaustek.

—Esan bearrick ez yagok, orretarako «eztabaidakeri» bakoak izan bear yokala. «Keri» ori eztabaidea-ren gexoa lez dok, atziñki orrek ondo ez yagoan gauza adirazten yok eta, «zorakeri, umekeri, ta gaiztakerin ikusten yoagunez.

—«Keri» ori kendu ezker, eztabaidea onuratsu izango litzakek, baiña ortxe lorra! Batzuk batez be, burua makurtu baiño edozer gauza egingo lleukiek. Eta lenen eztabaidagaya alde batera itxita, beste gaitik iñon diranak esaten, asten dozak, eta asarretuta amaitzen yabek.

—Ori ez dok gizon lez yokatzea, batez be gaurko egunean bakotxari bere eretxiak agertzeko eskubidea aintzat artzen yakon, edo bear litzakion aldi onetan.

—Baiña, bakik egibilla ez dabillenari ori ez yakok gogoko izaten eta ortxe unteza!...

—Orretan, ez yakiñak, arrokeriak, eta gizabidean atzeratutxo ibilteak zerbait zer ikusi ba-yaukoala uste yoat.

—Niri lagun batek esaten yaustan, gai orretan guk ba-yaukogula ingalandarrakandik zer ikasi.

—Zer dok ba?

—Londres'ko Hyde Park'en, ertz baten, igande goiz guztietan 30'etik 40'ra izlari batzen dozak, bakotxa bere eretxien zabalkundea egiteko. Andrazko, gizonezko, katoliko ta protestante, langille ta irakasle. Bakotxa berak gura dabinari entzuten yoaten dok. Izlari bakotxak talde bat entzulegaz bere asmoak azaltzen ekin, aberatzak dirala-ta, zuzentasunik eza dala-ta, gudean aurka agintarien utsak azaltzen, bizitz onetan betikoa irabazteko zer egin bear dan azaltzen ekin ondoren, alde guztietan erantzuleak sortzen dozak, orreik diñoena ez dabela zihosten esanaz. Izlariak erantzun eta besteak barriro, eta azkenean, bata ala bestea, zer erantzun ez dakiala gelditzen dokanean onen antzeko erantzunagaz amaitzen yuek: «Nik uste dot gaur arratzaldean eguraldi ona egingo dabela». Ta beste barik eztabaidok amaitzen dozak. Alkarri itz gogorrik esan... edo asarretu!... Bai zera, ori bururatu be ez yakiek egiten...

—Emen ba-yaukoguk olango ikasbide on baten bearrizana, eztabaidakeri ixurria osatzeko.

—Gaurko yarduna askotxu luzatu yoguk eta amaitu egin bearko yoguk.

—Bai, ordua be aurrera yoak eta, agur.

—Agur, urrengorarte.

# Gizonaren azkatasuna, elburu ala bide?

## Gizonaren duintasuna

Gizonaren duintasuna eta aunditasuna, lurreko izaki guztien artean «adimendun» bera bakarrik izatetik dator. Adimena aukeramenaren zustraya da. Ori dala-ta, adimenik ez daben izakiak ez dabe aukeramenik be, ez da erantzupenik, azkatasun bakoak ez dabe erantzupenik eta. Orrez gainera, gizona Yaunaren antz eta irudira egiña dalako eta Bere graziaz betiko zoriotsu izateko egiña dalako, gizonaren duintasuna argiro agertzen da. Eta gizonak, soin eta gogo lortu bear daben osotasunerako, aukerarena, azkatasuna, bear dau, ez elburutzat bidetzat lez baiño.

## Gaurko oker guztien zustraya

Gaurko gizarteari begiratuta, gizarteko maila guztietan naste andi bat ikusten dogu. Naspilla eretxietan, naspilla gurarnetan, naspilla egiteetan, naspilla bizitzan. Guztiak ago batez autortzen dabe naste ori zuzendu egin bear dala, gauzak beren lekuan ipiñi bear dirala. Zuzendu bear ori guztiok autortzen dogu. Baiña zelan? Bakotzak gura dabena eginda? Ori len baiño naspillago egiteko bidea izango litzake. Azkatasunari mugak ipiñita? Ortxe talde bitan banantzen dira gizonak. Batzuk azkatasuna elburutzat artzen dabe. Orretarako ez da bear mugarik. Azkatasuna neurritu, gitxiagotu, ala zerbait mugatuten daben guztia, eurak diñoenez azpiratu egin bear da. Guzurra dirudi, baiña orixe da «Existencialista» dalako orreik eskatzen dabena. Alan ez dabe nai, Yaungoikorik, sendirik eta azkatasunari muga ipinten dauisenik. «Axe» ori zabaltzen alegiñak egiten diran arren, ori ez dala bidea «zentsuna yoanda» ez dauken edonok daki.

## Gizona gizartearantzat ala gizartea gizonarentzat?

Ortxe da kristiñau-irakatsi eta komunismoaren arteko aldea. «Gaurko gizarte eralbenak apurtu daiguzan eta gizonak azkatasun osoa aurkituko dau». Guzur andia komunista errietan ikusten dogunez.

Gizartea gizonarentzat egiña da. Zertarako litzake gizartea gizonaren osotasunerako expalitz? Egiz, gizonaren azkatasuna mugatzen dau, baiña ez beste barik, gizonari osotasunera eltzen laguntzeko baiño. Azkatasuna ez da elburua, bidea baiño. Ori dala-ta adimenak neurtu bear dau, eta adimenaren aurka, au da, egiaren aurka doan «modarik» ez da aintzat artu bear, ez legerik, ez eralbenik ez erabagirik gizonaren duintasuren aurka diralako, eta gizonaren gainetik Yaungoikoa bakarrik. Gizona «gizonaren» menpean txikitu egiten da eta Yaungoikoaren menpean andi, berari dagokion tokian yartzen dalako.

Azkatasunak ba arautua izan bear dau. Onetan bultziaren antzeko da. Bere burdinbidetik doan bitartean bideztiak ondo doaz, andik urten ezkeru, bere burua apurtzeko bakarrik izango da.

## Estrukturak

Aldatu bear ei dira gizartea zuzentzeko ta azkatasuna lortu. Onerako aldatzea ondo da, baiña ez gizona «gauza» biurtzeko, makiña baten txinrinka antzera, gauza ez danean baztertzeko. Gizona adimen barik, azkatasun eta kontzientzi barik, azkatasun (?) utsagaz itxiten dabe, gizon izatearen zustrai barik.

## Azkatasuna osotasunerako bide

Ori da kristiñauok aldezten doguna. Azkatasun mugatua, baiña adimen-arauz. Gizartea, aginpidea, ingurumaria, asiera ta eziera, lurreko ondasun guztiak gizonari bere elburua emen eta gero zoriotsu izaten lagungarri izan dakiozan.

Ori da bide bakarra, gaurko asmo zoro, guzur eta oker ta zuzenbagekeri guztiak zuzentzeko. Dana gizonarentzat, gizona Kristorentzat, ta Kristo Yaungoikoa'rentzat. Ori da zuzentasuneko, maitasun eta azkatasunerako bide bakarra. Ortik at, ondamendia.

# ALKAR - IZKETAN

## Erantzukeria dala-ta

—Lengo eguneko alkar-izketaren azken aldean zeozer geyago esateko asmoa agertu induan, Manu, ta yakin gura ñeukek zer izan zoan.

—Ba auxe, besterik ez: eztabaidakeria, erantzukeritik sortzen dokala.

—Neuk be ezetzik ez ñeukek esango. Ba-kik ba erantzunak erantzuma eskatzen yokala, ta bata besteari erantzunaz, eztabaidea amaibako egiten dok. Nik orreri erantzukeria deituko ñeuskiok.

—Ez yagok txarto esanda, gatx ori, betikoa izan arren, gaur egunean ixurria lez gizarteko mailla guztietan zabaldu dok-eta.

—Ba-kik zergaitik? Gizonak sarritan tximiñoen antzera yokatzen yokalako. Gaur irrati, urrutikuskin ta izparringietan orixe ikusten yabek eta...

—Ori, burua, txapela erabilteko bakarrik darabiltenak ez diñoat... baiña beste askok ez yoat uste. Euren burutetik dabiltzazanak ba-dozak eta ugari.

—Ez ik uste doan beste. Ostantzean erantzukeri ori zelan ainbestean zabaldu? Semeak gurasoei, gaur gotzain eta Aita Santuari berari be erantzuleko gertu dozakanak ugari dozak. Askok ez yakiñez, beste batzuk arrokeriz, ba-kik ba, ezyakiñak yakitunagaz eztabaidan ekin ezkeru, onen maillara igoten yokala uste izante yok...

—Ori gitxi asko gizonen artean beti gertatu dok. Ez yoat esan gura goikoei erantzutea beti txarto yagoanik. Bear dan itzal, lotsa ta egokitasunez egin ezkeru, sarritan onuratsu izaten dok, eta bearrekoa be bai, ikusten diran okerrak zuzentzeko, Baiña gaurko larregikeria be neurritik gainezkoa dala uste yoat.

—Ezeik uste izan gaur eguneko gatxa bakarrik danik. Au egiztuteko ara lengo baten irakurri ñoana: Ingalterra'ko ministro izan zan Lord Amory'k 1.964'gn. senado batzar baten auxe esan yoan: «Aldi nastu baten bizi gara. Gaurko gaztedia euren buruagaz bakarrik arduratzen da. Euren buruaren yaube izatea zer dan be ez dakie. Nagusientzako itxalix ez daukie ta gurasoentzako bez. Gureizat zurtasun eta sentzunekoa dana eurentzat zorakeri ta lelokeri da. Ta neskatillak zorakerietan ez dira gitxiago; or dabiltz nabarmenkeriz burua erakusten, eta emakumetasun gitxi euren itz, egoera ta soñiekoetan agertzen». Entzule elduak irribarre egin eben gaur egunean yazoten dana ain egoki ta biziro azaltzen ebalako. Baiña arrituago egin ziran ta txaloka asi, betaurrekoen gainetik begiratuta Lord Amory'k au esan eutsoenean: «Ilzok ez dira nireak, Peter eriotxon lekaide batek 1.264'gn inguruan idatziak dira».

—Orrek esan gura yok, gizona, gitxi gora-bera, lengo lepotik buruagaz yabillela.

—Gizona beti bardin xamarra dok eta dan lez yokatu bear.

—Bai, erantzukeri ta beste «keri» guztiak be ortik sortzen dozak. Orixo «keri» ori inarreagaz garbitzekoa ba'litzok..., baiña gatx ori biziana osatzea baiño gatxago dok eta albait ondoen aurrera egin bear...

—A! ta ez az konturatu, aurrera yarraitzen ba'yoguk gure alkar-izketea be alkar-izketakeri biurtuko dokala.

—Bai gizona, amaitu egin bearko yoguk, ba.

# ALKAR - IZKETAN

## Itaunkeria dala-ta

Aste onetan, Manu, lengo alkar-izketan esan indun eztabaidakeria erantzukeritik sortzen zoala, eta burura ekarri yaustak gaur zabal yabillen beste «keri» bat. Ba'kik zein dan? Ba, itaunkeria.

—Bai, alantxe dok, itaunak egiteko oitura ixurria lez alde guztietara zabaldu dok-eta, yakiña, itanduta gauzak yakiten dozak, baiña neurritik urtetan yoanean, beste gauza askoren antzera kaltegarri izaten dirala be esango ñukek.

—Larregia beti kaltegarri. Eta lekutako itaunik be egiten yabek! «Iri ze ardura yak» erantzutekoak.

—Nik gaztetan ñeukan lagun batek politago erantzuten yoan. Txikituxoa zoon, eta adarra jotearren, zenbat urte eukozan itandu ezkeru, auxe erantzuten yoan: «Asko yakín gura dabeneri, gitxi ta atzekoz-aurre erantzuten yako». Nik uste yoat, gaurko itaunzale askori be olantxe erantzuten yautseela. Itaunak egitea gauza erreza dok, baiña ondo egitea ez dok ain errez. Itandu edozeiñek egin leikek, eta orretan umeak ez dozak txarrenak izaten, sarritan zer erantzun ez dakiela itxiten abe-ta. Egia dok lelo batek minutu baten, yakitunak urte betean erantzuteko gai ez diran itaunak egin deikezala.

—Olangoetan biderik onena, «ez dakit» erantzutea izango litzakek. Eta itaunkerizaleak ixiltzeko bide egokia be bai.

—Eta yakitun batek esan yoanez, yakitun izateko bidea be.

—Nik ezin yoat ulertu ori zelan izan leitekean, eta euk esan bearko daustak.

—Bein Paris'en bizi zoon Duhamel eritxon gizon yakitun bat ortziztilarien bazkunako idazkari zoana.

Egun baten andra andiki bat yoan yakoan, berak ainbeste ekien gayetzaz itaun batzuk egiteko. Eta lenengo itauna auxe izan zoon. «Izar bikotxak» deritxoanek zelan azaltzen dozuz. Yakitunak gauza garbirik ez ekiala erantzun yautsoan. Batzuk era batera eta beste batzuk bestera azaltzen ebela-ta. Gero onen antzeko beste itaun bat eta gauza garbirik ez ekiala erantzun yautsoan. Orduan emakume andikiak bizi-bizi yarrita erantzun yautsoan: —«Zuok yakitunok olango gauzarik ezbadakizue, zer dakizue ba?» ta erantzuna, «Andrea yakitun izatea «ez dakit» esaten yakitea da».

—Ederto erantzunda. Baiña ezyakiña orixe ulertzeko be gai ez dok izaten-eta, danerako erantzuna asmatzen yabek, ta nik uste yoat gaur eguneko neurribako erantzukeriak be zusterak ortxe yaukoazala.

—Izan be, «ez dakit» esaten yakiteko zerbaít yakín beark. Ostantzean, Bagilla inguruan etxera «kalabazakaz» yoaten doan ikaslea yakitun nagusi izango litzakek.

—Benetako yakitunak, lenengo dakiana auxe izaten dok: Gauza asko ez dakizala, eta ortik beti geyago yakiteko egarria. Ezyakiñak ostera, dana dakiala uste izaten yok eta geyago ikasteko gogorik ez yok izaten.

—Orrek esan gura yok ezyakiña geroago ta leloago egiten dala ta yakituna, yakitunago.

—Esan yugun guztitik gauza zat garbi atara geinkek, itaundutea zurtasun eraz eta neurritz, ikasteko bide egokia dokala, eta gaur alde guztietan zabal yabillen itaunkeria gauzak nastu eta egundo ezer ziur ez yakiteko bidea.

—Berandu egin yakuk eta urrengoan yarraitu bearko. Agur.

—Agur! ondo ibilli!

URIGOTIA

# «ITZAK, ITZAK, ITZAK»

(Shakespeare)

Guztiok dakigun gauza da, gizonak bere idekoagaz artu-emonetarako erabilten daberen biderik berezko ta egokiena itz-egitea dala. Itzen bidez gure oldozkunak, barruko asmoak eta gurariak agertzen doguz. Onek ez dau esan gura, beti ori gertatzen danik, baiña bai gizonak orixe egin bear dabela, benetako gizatasunaren yabe izan gura dabena beintzat. Euskeldunok, onetan zintzo, entzute ona izan dogu, eta ortik dator esakun zar au; «Gizona berbatik, ta idia adarretik». Eta entzute ori geure artean eta erbestean be izan dogu. Ointxe be, Ego Amerikan euskeldunak emondako itza zin egitea bste dala esaten dabe.

Tamalgarria da, baiña gaur orrenbeste esan geinkenik ez dot uste. emondako itza betetan ez dabena ugaritxo ikusten dira-ta. Beñola Tayllerrand ospetsuak esan eban kirtenkeria ez dogu esango, au da: Gizonari itz-egitea emon yakola bere oldozkunak estaltzeko, baiña or gure inguruan sarrigie ikusten dala egia da. Eta ortxe dago gaur gure artean be, alkarrenganako ustea galtzearen zusterrea. Gauza bat buruan ta ezpanetan beste bat darabillenen artean, gizartearen oiñarriak lokatu egiten dira, alkarrenganako ustea galtzen dalako. Orduan Hamlet'ena burura etorten yaku: «Itzak, Itzak, Itzak».

## Kalte Geyago Egiten Dabena

Baiña itz-utsak egiten dabena kaltea baiña andiagoa egiten da, itza esanguratik ustu ala beste esangura bat emotean. Ori intxaur-oskol utsa lez izango litzake, ala txarrago, barru ustelduna. Ez da oingo gatxa. Edestian gizaikiak-zear gitxi asko beti gertatu dana da. Baiña gaurko aurrerapenakaz, gizonen arteko artu-emonetarako bideak izugarrero ereztu diran ezker, batez be irakurgai irrati ta urrutikustin edo telebistagaz.

Indarkeri zaleak, eta gizonaren eskubideak aintzat artzen dituenak, itz bardiñak erabili arren, esan-gura bardiñagaz ez ditue erabilten, eta ortik sortzen dan nastea ta aitu-eziña, gizonen eztabaida ta artu emonetarako gauzarik kaltegarriena dala egunoro ikusten dogun gauza da. Benetako ta guzurrezko diruaz gertatzen dana. Azalez alkarren antz andia izaten dabelako bata besteagandik berezi eziñik ipinten gaitue eta alkarren artu-emon zintzoetarako orrek dakarzan kalteak aiatatu bearrik be ez dago.

## Gauza baktxari bere izena

Gauza baktxari esakereak diñon lez «ogiarri ogi ta ardaoari ardao» deituko ba'litzako, alkar-aitu eziñik ez litzake ikusiko. Alkar-aitu ezin ori, batez be naspil eta gudaldietan, arroza uretan lez, asi ta anditu egiten da. Ingalandarrak esaten dabe gualdian lenengo ilten dabena, egia izaten dala. Baiña «bakea» eginda gero be oitura txar orrek yarraitzen dabela ikusten dogu. Orrek gauza bat adirazoten dau; azaleko bakeaz batera barrukorik ez dala egin, eta alderdi bietan itz bardiñak erabili arren, esangura bardiñagaz ez dirala erabilten. Au egiztuteko ez da buru-auste andirik bear. Idazki ta esan guztietan, itz eder asko irakurri ta entzuten doguz: *egia, bakea, azkatasuna, anaitasuna, zuzentasuna, erri-aginiza, gizonaren eskubideak* eta orrein antzeko zenbat gura itz eder. Garbian, gauza edorerrein aurka, iñork be ez dau agertu gura izaten.

Gaur egunean ainbeste aiatatu ta goraltzen dabena zintzotasuna benetakoa etc da? Nik ez neuke bayetz esango. Zintzotasuna sarri entzuten danean, guzur ugari dabillelako izan, ogia sarritan aiatzen danean urri dabillen ezaugarri izaten dan lez.

Orixe dala-ta, egoki deritxogu, itz ederrok banan-banan aztertu, euron esangurea azaldu, eta guzurrezko esangurak agirian ipintea, gauza baktxari bere izenagaz deitu ta itz baktxagaz zer esan gura dogun, guztiak ulertzeko eran. Orrekek dirudi gaur ainbeste agotan dabillen batasunera eltzeko biderik egokiena.

# ZER EDO ZER

## MIJEL ANJEL

Gizon ospetsurik izan ba'da erti-lanetan, Mikel Anjel aiñako gitxi. Etxe ta eleizgintzan, arkitekto lez, margolari ta irudigille lez be bere maillara eltzen danik ete-da? Au egiztuteko or dira Moises eta Dabid'en irudiak, eta oin urte batzuk dirala New York'eko erakusketara bialdu eben «La Pietá», ta Batikano'ko Eleizea bere «Kapilla Sixtina»ko margolan arrigarriakaz.

Kapilla Sixtina'ko lan izugarriak 60 oiñ goibe ta 30 zabaleran ditu. Askok ez

eben uste erti-lan eder au toki artarako egokia zanik. Onein artean, Aita Santuaren zeremoni-maixuak, Biagio de Cecena'k auxe esan eban: «Irudiok toki orretarako baiño ezkotegi ala ardanegi baterako obeak dira». Eretxi orrek Mikel Anjel'eri min emon eutson, eta asperkunder, inpernukoen artean egoan Minos'eri Biagio de Cecena'ren arpegia ipiñi eutson.

Au ikusirik Biagio'k Aita Santu III Paul'egana yo eban, eta Aita Santuak erantzun eutson: «Ara, Garbitokian ipiñi ba'zinduzan zerbait zure alde egin neikean, baiña, tamalez, inpernutik iñor aterateko ez dot eskubiderik. Nire aginpidea ez da araiño eltzen».

1964'gnean bete ziran Mikel Anjel'en eriotzatik 400 urte. 90 urtedun il zan.

## TORKUATO TASSO

Torkuato Taso XVI gizaldian Italia'n izan zan olerkaririk onena zan. 1595'gn urtean il zan. Eta gizonen artean sarri oi dan lez, ba-ziran bekaitzez begirutzen eutsoenak. Eta ikusi-eziña dagonean miña zoli erabilten da-ta, onetariko gaizki-esale batek guzurrez salatu ta espetxera sartzea lortu eban.

Tasso'ren adiskideak, kalte egin eutsonaren egikera lotsagarri bat egertu eutsoen, eta bere kaltez esan ebana guzurrea zala zabaltzeko, aren gaiztakeria agertzea egoki izango zala-ta, zirikatu egiten eben.

Tasso'k erantzun eutsen: «Ez, nire arerioari ez dautsot izen ona ta bizibidea galdu eragingo; nik gura dodana auxe da: Iñori gaizki egiteko daukon gogo txarra kentzea. Nire aspekun-bengatza bakarra auxe izango litzape.

# IZKUNTZAREN GARRANTZIA

Gizonaren bizitzan, batez be gizarteko artu-emonetarako, izkuntzak daukon garrantzia sentzuna galdu ez daben edonork ikusten dau, naiz ta sarritan beardan bestean ulertu ez. Izkuntzaren bidez gure gogapen, biozketa ta gure barrenengo gauzen barri emon geinke. Orretarako biderik eroso ta berekoena izkuntza da-ta. Baiña izkuntza guztiak ez dira bardin. Norbere yayotzetiko izkuntza ta bizitza ta artu-emonetarako ikasten diran izkuntzaren artean alde andia dago. Norberea biotzeraiño sartzen da ta ikasitakoa biotzeraiño ez da sartzen. Eta sartzen danean egiz esan leike arimaz be aldatu egin dala. Izan be, norberea ez dan izkuntzan, gorengo maillara eltzea ez da gauza erreza. Ori dala-ta Lope de Vega ospetsuak esaten eban: Besteren izkuntzan gorengo maillara iñoz ez dala eltzen. Besteren izkuntzak ikastea, gaur batez be, gauza ederra da benetan, baiña norberea ondo ikasi ta biotzean zustraituta eukitekotan. Eibar'tar Aita Galdos ospetsuak esaten eban lez: Nik onenbes- te izkuntza (amabitik gora ziran) daukodaz buruan, baiña bat biotzean: Euskerea

## AMAGANDIKO IZKUNTZA

Amaren izkuntza ta amagandik ikasitakoa ez dira bardin. Amagandik ikasitakoa, buruan daukoguna azaltzeko baiño geyagorako da, ohea da gure gogozitearen ama dalako. Biotzaren barrenera- raño zusterak botaten ditu ta gogo-iza- kereagaz bat egiten dalako egundo be gutziz ez da aiztuten, bizitzaren azkene- rarte irauten dau-ta.

Au egiztuten daben yazokun asko aita- tu leikez. Ara batzuk: Gure Xabier Prantziko deuna, Sanzian'go ugartean il zanean, amagandik ikasitako otoitzak Euskeraz egiten il zan. Frobes gogo-iztilari edo sikologoak diño Ameriketean bizi zan eliz-gizon batek esaten ebala, bere eleiz- tarren artean, aleman eta suizatarrak izan ta amagandiko izkuntza 50 ta 60 urtean erabili ez arren, il zorian amaren izkuntzan otoitzak egiten ebezala.

Torras ta Bages gotzain ospetsuaren bizitzan irakurten da, bein baten zauri- tuta il-zorian, konorte barik egoan bate- gana deitu eutsoela. Prantzeza izan arren, txikitatik Kataluña'n bizi ta prantzeza

astu egin yakola. Katalaneraz itz egin eutson ta yaramonik be ez eutsola egi- ten. Orduan norbaitek esan eutson pran- tzezez itz egiteko, amagandik txikitán prantzeza ikasita etorri zala-ta. Prantzez itz-egiñagaz batera bereala bere senera etorrita erantzun egin eutson.

## GOGO-BIZITZA TA AMAGANDIKO IZKUNTZA

Ziñestea barruko gauza danez, ez bu- rukoa bakarrik, biotz eta bizitzakoa be bai, Eleizaren guraria, beti izan da kis- tar-irakatsiak eta otoitzak bakoitzari amagandiko izkuntzan irakastea. Aldi baten gure artean amaika eragozpen izan gendun, zentzunak erakusten daukunez «euskeldunei euskeraz» irakasteko. Gaur zorionez, gauzak aldatu dira. Zirilo ta Metodio deunak IX gizaldian eslaboen- tzat lortu ebena lortu dogu. Eta lenago be olantxe egiten zan Kongar yakitun ospetsuak diñonez, Erroma'n VI'ean, norbait bateatzera eroaten ebenean itaun au egiten ebela: Jesukristo gure Jauna ze izkuntzatan autortzen dau? Eta eran- tzuneri egokionez (orduan geyen bat lateraz ala gerkeraz), alantxe Ziñeskin- tza esaten eben.

## ARA AU EGIZTUTEN DABEN YAZOKUN BAT

Guztiok dakigu ainbat euskeldun Ipar- Amerika'ra artzaintzara yoaten dirala. Idaho'n bakarrik 30.000 bat ei-dagoz. Belloc'eko beneditar A. Gachiteguy'k ikertu zituan eta 1955'gnean idazti eder bat argitaldu eban «Les Basques dans L'Ouest Americain». Berak diñonez, eus- kel-abestiak eta itzaldiak eleizan entzu- naz pozez negarra erioela yarten zirala. Eurek autortzen eutsoen, père, mère, father and mother, padre y madre'k egundu ez eutsela berotzen biotza aita ta amak lez. Baita, bizitza guztiko autortza egiten etorten yakozala be, eta lenagoko gauzak zertan nasturik ez eukela esan ezker, auxe erantzuten eutsoela: «Bai- ña jauna, euskeraz aitortu barik ez naz baketuten». Nok aztertu daike biotza eraldu daben amagandiko izkuntzak bat egiten daben lokarri eten-eziña?



# Alkar - Izketan

—Gaur, Peru, alkar-izketarako gairik bururatu barik etorri nok, euri be zerbait bururatuko yatalakoan itxaropenagaz.

—Neu be, beti lez, euk ekarriko eindun usteagaz egon nok, baiña besterik ezean, Yorrailla'ko Goiz-Argi illeroko begikoan irakurri ñoazan gauza bakan batzuk buruan yoadazala etorri nok.

—Zer izan dok ba?

—Iruña'n «Principe de Viana» al-dizkariak, Euskerea zabaltzeko eraskin bat argitaltzen yok, eta Pedro Artetxe bertsolariak bertso batzuk bialdu yoazan, eta bakoitzaren idazkerea aintzat artuko dabela esan arren, berak atxe barik bialdutako lana burutik oiñetara ainbeste naste sortu daben atxez beteta argitaldu. Berak ederto bertsoetan erantzuten yautsek: «Euskal idazlan bat egiteko ez det ibilten atxerik, nere ustetan ez dulako ekartzen kalte besterik Nik idatzirik ez nuan uste, era ortan ikusterik, txiroa baiña garbia zana, zikin ta zorritz beterik».

—Izan be, nor dok nor, inñoren lanak orraztuteko egillearen baimen barik?

—Zuzen ago. Ez yoat esango ori egin dabena lotsabakoa danik, baiña bai ori lotsabakoak egiten dabela. Gaur lotsea baiño yauntxokeria zabalago yabik eta edozer gauza ikusteak ez ñok arritzen.

—Ondiño ori baiño be arrigarriago doan beste gauza bat. Goiz-Argi'n bertan irakurri yoat, norbaitek esan yokala, ikastoletako ikas-liburuak euskeratuta be, Ezikuntza ta Yakintza arduradunak Madrid'en ontzat ez dabela emongo.

—Orixe ez yoat ziñestuten, guzurra izango dok-eta. Zer esango eunke guk eus-

keldunok erderazko idaztiak zelan idatzi bear diran agintzen asiko ba'gintsozak. Ze eskubide yaukuk guk geurea ez dan izkuntza baten zelan idatzi bear dan aginduteko? Zoratuta ete gagozan erantzungo lleuskieguk. Eta zuzen egongo litzakezak. Nor gozak gu inñoren baratzeke porruak zelan ipiñi bear diran aginduteko?

—Olan dok baiña, orren antzeko gauzak ikusteko mundu negargarri ta barre-garri onetan urte askotan bizi bearrik ez yagok. Ta ontxe gomutetan nok indarkeria nagusi zanean Italia'n yazo zoanaz.

—Zer izan zoan?

—Ba, idazleen artean eztabaida sortu zoan Dante olerkari ospetsuaren yayoterrria zala-ta. Batzuk, geyenak uste dabenez, Plorentzia'n yayo zala, ta beste batzuk ezetz. Eztabaida au amaitzeko bakik agintariak zer agindu yoan? Ba aurrezantzean Plorentzia'n ez zala yayo idaztea galerazo. Korapilloa azkatu bearrean ebagi ta kitu!

—Sator-lana egiten dabena be olango gauzak esan eta egiten alegintzea ez dok arritzekoa.

—Baiña orduan, nozko, norentzako ta norako dozak ainbeste aitatzen diran gizonaren eskubideak?

—Nik ez yakiat, baiña ba'leitekek emen beti agotan erabilli ta gero illargira eltzen goazanean betetako nonbait.

—Ori be, yauntxokeri zaleak araiño eltzen ezpadozak!...

—Berandu dok eta gaurko naikoa izan dokala uste yoat. Agur, ba.

Agur, eta ondo ibilli!

# Alkar-izketan

—Gaur, Peru, udabarriko edertasunari yaramon barik, izparringia ain arretaz irakurten ikustiaz arritu nok. Izpar garrantzitsuren batzuk yakazak ala?

—Bai, mutil, ez dok gitxiagorako be.

—Zer dok ba?

—Ba, Ipar-amerika'ko lendakaria, Nixon, Mosku'ra yoan dokala ango yauntxoei iker-aldi bat egin eta itz-egiten.

—Orrek ez yaukak zer ikusi andirik, alkarri itz eginda gizonak aitzen dozak-eta.

—Ori ba-ñenkian neuk be. Baiña aitu ezin yoatana auxe dok: Errusitarrak. Ipar-vietnam aldekoari zenbat gura izkillu ta gudarako tresna bialduta lagundu, eta Amerikarrak Egoaldeko Viatnam'eri laguntzeko egazkin bidez millaka tonelada bondak yaurti ta zuzitu, ta inguroko itxasoak miñaz esitu ta ainbeste uritar errubakoak il eta aldienpuruz eta nekez lortutakoa une batean ezereztu ta bitartean bitsuok mai ederraren inguruan alkar-aitzeko asmotan ikustea.

—Alkarren bildur diranen artean olango gauzak ikusten dozak.

—Olango gauzen bat izan bear yok. Or ibilli dozak urte bi ta erdian alkar aitu eziñik eta azkenean, atomobondarik geyago ez egiteko alkar-artu yabek.

—Ori ondo yagok, baiña ez dok naikoa. Bata bestearen uririk andienak, zusterretik atera ta guztiz ondatzeko beste daukiezala ba-yakiek, eta zertarako bear yabek geyago?

—Zuzen ago, poztutekoa izango zoan izan be, lendik gertu yaukiezan

lerki edo bondok ezereztu ba'yoezan, baiña ba-kik... alkarren bildur diranen artean ori eskatzea larregitxo izango zoan.

—Baiña ez dok ukatuko bakearen alde oinkada bat emon danik, naizta egizko bakearen antzik euki ez.

—Bai baiña, agiñetaraino izkilluz orniduta, «Bakea, Bakea!» diñoanakaz urrin ezkoazak...

—Ba, nik, gizonen artean ezagutu yoadan «bakea» olangoa izan dok. Itzez guztiak bakezale agertzen dozak, eta egitez be bai... norbereagaz urtenda gero.

—Ori ez dok gaurko gatxa baka-rrik, gizaldiak-zear ori gertatu dok eta bildur izatekoa aurrerantzean be bardin izango dokala.

—Olan izan ezker, «egizko bakea» or goyetan ibilli bearko yok... zati baten beintzat.

—Laterri - agintariak ba'yakiek «egizko bakea» yaritxiteko bideak Kristo'k irakatsitakoak dirala, baiña gexo batzuk antzera, txarto egon eta osatzeko osagarri bakarra zein dan yakin arren ez yabek artu gura garratza dokalako.

—Ba ori egiten ezpayabek ezin itxaron geinkek gauza onik, batez be alkar itunduten diran bitartean oingoan gertatu dokan lez. Vietnam'eko errukarren gaiñera millaka tonelada yaurtiten yabezan artean.

—Oin aituik zenbat eratara «bakezaletasuna» egertu leiken.

—Bai ori aituteko astebete bearko yoguk, eta gaurkoz naiko izango dok. Agur.

—Agur ba, ta ondo ibilli...

URIGOITIA

# ZER

# EDO

# ZER

**FALLA' REN ZIÑESMENA.**—Manuel Falla, ereslari benetan ospetsua izan zan, baita katoliko zintzoa be. Kaperotxipi, zarauztar margolari ospetsuak Uranga'tar Paul'en bizitzan diñoskunez, Zuloaga, eibartar margolari ospetsua il zanean, onen alargu-nari, Falla'k Arjentina'ko Alta-Gracia'tik samin-agur au bialdu eutson: «Zeuk daukozen gozogarri berbera somatzen dot eta auxe da: bere kristiñau zintzotasun sendoa, geurea langoxea eukolako Yaungoikoaren ontasunez betiko bizitzan ikusiko gareala». Manuel Falla.

«Nire lagun batek» diño Kaperotxipi'k, «beste bizitzea aitatuten neutson bakotxean auxe esaten eban: Atsoen kontuak, burudun gizonak ziñesten ez dituenak».

«Eta Falla, nik erantzuten neutson, ez daustazu esango adimen andi ta burutsua ez danik».

«Ba, Falla'ren samin-agur orrek bere bizitza aldatu eban. Oldozten eta oldozten asi zan eta guztiok arrituta gelditu giñan konbentu batera «lego» sartu zala yakin gendua-nean».

**DANTE' REN IZAKEREA.**—(1265-1321). Dante Aleghieri, ezpai barik, munduan izan dan olerkari ospetsuena izan zan. Bere idazti guztien artean «La Divina Commedia» ezagunena. Atalka idatzi ta bere olerkiak erriko yenteak buruz ikasi ta eurrez abestuten ebezan.

Egun baten, su-aroztegi baten aurretik igarotean bertako ugazabak bere olerkiak abestuten ebazala oartu eban. Baiña ain ganora barik eta zusterbarik abestuten zitualako, asarre biziz bere lantegira sartu ta tresna guztiak goikoz bera nastatzen asi zan. Errementaria arrituta geratu zan, eta zoroen bat zalakoan, esan eutson: «Gizona, zetan diarduzu tresna guztiak nastetan?»

Eta Dante'k erantzun eutson: «Eta zeuk zetan diarduzu, nere bertsoak ganora barik abestuta alperrik galtzen?» Ez zan izakera epelekoa izan be.

# ARTZAIN ONAREN GOMUTAZ

*XXIII Yon'en aitasantutza oso laburra izan zan. (1958-1963). Baiña bai ain aldi laburrean bete be. Bere izakera ta esakera, berak egin eta eragin ebanak guztien biotzak beragandu zituan. Eleiz-edestian bear ba'da ez da izango Aita Santurik, berau baiño begikoago, maitetuago ta txalotuago izan danik.*

*78 urte eukozala Aita Santu egin eben eta ez eben uste gauza andirik egingo ebanik. Baiña laster arritu ziran ori uste ebanak. Bere lenengo asmoa, Eleizaren barrizkundera izan zan, berak esaten eban lez «gaurko egumeratzea». Zertarako? Gizadi guztian Eleizak eragipen geyago izan dagian. Zelan? Lenengo, Eleiz-Batzar Nagusi baten bidez. Asmo ori bere inguru eukozan 19 kardenaleri agertuta, «Zer deritxozeu»? itandu eutsenean, batek be ezer ez eutson erantzun, arrituta danak ixildu ziran. Izan be ez zan buruauste makala, lurbira guztiko ia 3.000 gotzaiñei deitu ta Erroma'n Eleiz-Batzar luze bat egitia!*

*Alan da be, bere asmoa aurrera eroan eban. Tamalez, Batikano'ko II Eleiz-Batzarra amaitu baiño len il zan.*

*XXIII Yon benetan on, yakintsu, adorestu, zur, lau eta apala izan zan. Bere Enziklika ospetsuenak «Mater et Magistra» (Ama ta Irakasle) eta «Pacem in Terris» (Bakea Lurrean) izan ziran, alde guztietan ondo artuak eta txalotuak izan ziran. Egia esateko, txaloak yotea ez da naikoa...*

*Agiri orreitan gizarte auzia, gizon bakoitzaren eta errien eskubideak. aizea astintzen astia galdu barik, argi ta garbi azaldu zituan. Ta yakiña, egin bearrak be bai. Gaurko eguneko naspil eta aitu eziñak zuzentzeko irakatsi argi, sakon eta egizkoak emon zituan eta ziiñestebakoen txaloak irabazi be bai. Eta kristiñau guztien batasunerako egin zituan alegiñak nok zenbatu? Eta espetxetuak, gexorik eta zoritxarrean, kistarmaitasunik samurrenagaz ikertu zituanean, nor gelditu zan biotz-zirkuiñik somau barik? Nor agertu da gizon guztiakaz adizkideago, lau eta maitekorrago? Eta azkenez, nor ez zan arrituta gelditu, bere azkenengo gexoan eta eriotzaldian agertu zituan, eroapen, otzatasun, alaitasun eta bakezko yarraibideakaz?*

## BERE GOGO-BIZITZA SAKONA

*Benetan sakona izan zan, txikitatik asita Aita Santu egin eben arte, bere idazti «Arimaren Egunkari» ta bere anai eta etxekoei zuzendu eutsezan 727 eskutitz edo kartetan. Idazti biok erderaz argitaldu dira.*

## AITA SANTU YON'EN BEGIKOTASUNA

*Orrez gaiñera XXIII Yon'en aldarte, gogo argi ta umore onak mundu guztia birloratuta itxi eban. Buru askotan sartuta egoan Aita Santuak itzaltsuak izan bear ebela, nonbait gizon be ba-zala gomutatzen ez ziralak. Bere urteera zur eta zorrotzak, erdi irribarezko esanak zirala-ta guztion etxeko zala zirudian.*

*Orixe dala-ta, gaurko bizitzako larritasun artean, baikor izatea galdu ez daigun, Yon Aita Santuaren «Egiñak eta esanak» lora txorta baten antzera, bera il aurretik pillatutea otu yatan izdatiño baten argitalzteko asmoz. Orain arte aukerarik ez dot izan eta AGUR'en atalka argitaltzea otu yat. Guztiak emengo ta erbesteko aldzikari ta idaztietik artuak dira. Onen antzeko lan bat Prantzia'n Henri Fesquet'ek «Les Fioretti du Bon Pape Jean» eta Alamania'n Kurt Klinger, protestanteak «Ein Papst Licht» (Barre dagian Aita Santu bat) Biak erderatuta dagoz. Aita Santu egin aurretikoetatik asiko gara. Egunokaz bere eriotzatik berderatzi urte bete dira, ta bere gomuta aintzagarrirako argitaratuko doguz...*

# ALKAR-IZKETAN

—Gaur Manu, «aizetan» dabillen gai bat erabili bear yoguk gure yadun-aldi onetan.

—Euk esangok Peru, oingoan aurea artu daustek eta.

—Uste yoat euk be yakingo dokala, izparringi ta irratiak aurrez esan yabek-eta, Estokolmo'n batu dozakala 114 laterrietatik yoanda 1.200 ordelari, ONU'koak, gaur eguneko aurrerapenakaz gizonak arnasarako bear yokan aizea, zikindu, kutsutu ta kaltegarri izatea zelan galerazo leiken aztertze.

—Olango batzar baten bearrizana be egon dok. Ainbeste landolak bialtzen yabezan lurrun kaltegarriak, keak eta ondoren usain txarrekoak, etxeetatik urteten yaben ainbeste ur loi eta zikinkeriak, eguratzta ta aizea bakarrik ez, errekek be atsitu yabezak, begientzat eta surrentzat be iguingarri biurtuaz. Orrez gafiñera millaka ta millaka belbillek zabalán yaben kiratsa, gizonai osasuna galdu eragiteko naiko dok.

—Ori bakarrik ez, toki batzuetan ortuari ei be lurrun txarrak kalte asko egiten yautseek.

—Kontu ataraik zenbat estarri, birietako eta ostantzeko gexo ugarituko doazan. Ori dala-ta, yayegun artu orduko orikusikok urietako yentea, aize garbia artu gurarik mendietara igeska.

—Lotsagarri dok izan be, aurrerapidearen izenean, gizonaren osasunarentzat kaltegarri dozakan bideak ugaritzea.

—Ondiño ori baiño geyago. Erri anditxoetara ibillaldi bat egiten ba'dok, or ikusiko dozak, len ur garden, garbi ta begientzat ain atsegingarri zoazan gure errekek, zikindu, atsitu ta iguingarri.

—Alantxe dok izan be. Ni sarritan oldozten egoten nok: Gure asabak, al ebenean, erriak erreka ondoan egiten yoezan, etxeko ta soiñekoen garbi-ikuzirako, abereentzako, buzti-aldi bat artu bear zanerako ta abar. Gaur barriz ez soiñekorik garbitu, ez abereak edan, ez mutikoak ugerrik egin olango erreketan.

Ori olan dokala, beste gauza kaltegarriago bat ezagutzen yoat.

—Ori baiño kaltegarriago?

—Bai, gizonaren gorputzarentzat baiño be, arimarentzat kaltegarriago dokan giro txarra. Zine-mintzak dirala, aldizkari, iragarkietan lotsabakokeria zabalduz gure erriko alde guztietara eltzen dok gaztediari batez be kalte asko egiñaz.

—Ondiño kaltegarriagotzat yaukatatz, gazteen sakelak uztu, buruak nastu ta biotzak ustelduteko aukerakoak diran «sala de fiestas» izenagaz erri txikietan be zabaldu yabezan toki asko. Eta ori urritu ta galerazo leikenak ixilik egotea, zelan izan leikek?

—Gizarte barruan bizi gareanok, guztiok yaukoguk eskubide ta eginbearra, gizona aberetuten yaben oitura zantar ta zikinkerien aurka al yoagun guztia egiteko, Aita Santuak esan yokan lez, lurreko lenengo aberastasan eta andiena gizona dok eta, eta kutsutuerik txarrena gizonaren miseri zoritxar eta zuzentasunik eza.

—Gizona zorioneko izango ba'dok, ez dok naikoa izan be, gorputzagaz bakarrik arduratzea, bere arimako osasunari be begiratu bear yakok bere duintasunaren zusterre ortxe yagok eta. Ori alde batera itxi ezker, ustelkerizko lupetz artean gizonak eta erriak itota ondatu dozak.

—Ba ikusten dana ikusita, gure erria be bide orretan sartuez dokala yirudik.

—Yaunak ez al yok lagako gugaz olangorik gertatzerik.

—Orixe diñoat neuk be. Agur!...

# ARTZAIN ONAREN OMENEZ

## XIII Yon'en deuntasuna

*Aita Santu ospetsu au deun iragarteko lanak aurrera doaz. Bere eriotzatik bederatzigarren urtean, ardura ori daben Kai-rola abak iragarri dabenez, lanok aurrera, ta gauzak ondo aztertuta, bere bitarteko-tasunez osatu diranak ugari dira.*

*Euron artean, Polenza'ko lekaike Katarinè Kapitani, osagilleak inondik osatu ezintzat emona, urdailleko zauri zulatu batetik, batera osatua; eta bestea, Sizi-lia'tar emakume bat, Giovanne La Terre Majore, gurintxoen idorberri —tuberkulo-sis— osatua, osagilleak osatu ezintzat emonda gero au be. Baita Ipar-ameriketako osagille bat, urdailleko anditu batetik, XXIII Yon'i eskatuta gero.*

*Yon Aita Santua, deun-entzuteagaz il zan eta berealan deun iragartea askok eskatu eben, bere kemen, zurtasun ta maitasun a arrigarriak izan ziran-eta. Baiña VI Paul'ek, XII Pio'ren auztagaz batera ebaztea gura izan eban, eta —1965-XI-18' gn— Eleiz-Legeak agintzen daben bidetik yarraitzea erabagi eban. Auzi au aurrera doa, ta bizkor atan be!*

## XXIII Yon idazle

*Aita Santu au idazle ona izan zan. Eta aldizkari ta izparringietan ainbat urtetan idatzi eban. Bere ontasunak, bere yakituria estaltzen eban. Baiña idazle trebea izan zala, aldizkarietan ainbat urtetan idatzi ebanez gainera, Radini-Tedeschi gozain ospetsuaren idazkari, amar urtetan izanda gero, aren bizitzea idatzi eban, eta eleiz-edesti zaletasuna biztuta, Karlos Borromeo kardenala eta deun ospetsuaren lanak azaltzeko, abadegayan irakasletzatik gainera, tarteka, bost idatzi zituan. Lenena, 1936'gnean argitaldu eban, ta bostgarrena, Aita Santu egin eben urtean, 1956'gnean.*

*Eta, jakiña, Aita Santuaren idatzi lez argitaldu gura eben, baiña berak Ronkalli izenagaz argitaltzeko agindu eban. Bere zentzun, zurtasun eta deuntasuna, idatzi zituan millaka eskutitzetan argiro agertzen da, bizi-bizi. Eta bere gomuta oindiño bizirik dagola jakiteko, auxe da naikoa. Bere eriotzako bederatzigarren urtean, eun milla lagun eldu dira Sotto il Monte, bere yayoterrira, Bagillaren 3'gnean.*

# ARTZAIN ONAREN OMENEZ

**ESANAK ETA EGIÑAK.**—XXIII *TON* buru argi, biotz zabal eta aldarte onekoa zala igarteko, bere bizitzearen bari yakitea naikoa da. Buru argia ebala ta idazle trebea zala bere idaz-lan eta idaztiak agertzen dabe. Bere biotz zabaltasuna, katoliko ta ez ziranakaz artu-emonetan oparo erakutsi eban. Eta bere bizitza guztiko aldarte ona, bere bizitzan egon eta bizi izan zan toki guztietan lautasun, ontasun eta irribarrez agertu ebala guztiak dakien gauza da. Bere urteera bizi, zoli ta sentzundun batzuk argitaltzea egoki izango dala-ta, *AGUR*'en irakurleen pozgarritzat emen ipiñiko doguz.

**ABADE BARRIAREN ASMOA.**—Angel Jose Ronkalli'k, bere lenengo Mezea 1904'ganean esan eban. Gomutakian auxe esaten eban: Beretzat eta bere lagumentzat iru gauza eskatu zituala; azkatasuna, batasuna ta bakea. Irurogei urte geroago, Aira Santu zala, bere Enziklika ospetsua «*Pecem in Terris*»n au esan eban: «Gizon guztien arteko bakeak oiñarriztat Egia, Zuzentasuna, Maitasuna ta Azkatasuna euki bear ditu».

**BERGAMO'KO GOTZAINAREN IDAZKARI.**—Radini Tedeschi Gotzain eragin eta entzute andikoak bere idazkari autu eban, Amari urte zeregin onetan igarota, gotzaina il zanean bere bizitza idatzi eban. Idazkari izan zan bitartean abadegai-ikastetxean irakasle izan zan. Aldi atan urduri ebillen, bere adizkide bateri onu au emoten eutson: «Yaunak gure bizitzaren aldin edo balioa eskutuan egotea erabagi ba'dau beste, toki baten zerbaiten billa ibilteta barregarri izango litzake. Andigureak, lurbiran diran izaki txiro ta barregarriak dira».

**GUDARITZAN.**—Birritako aldiz gudari edo «soldadiskan» izan zan. Lenengoa 1902'ganean bere oldez edo «boluntario» yoan zan, milla lira ordainduaz iru urtetik batera yatsi ta norberak gura eban tokia aukeratz earren. Bigarrenez, Europa'ko lenengo gudaldian, 1915'ganean, Sarjento izatera eldu zan. Lenengo «pagea» artu ebanean, lira bi inguru, lagun gazte bateri emon eutsozan «kopa» batzuk adizkideakaz edateko.

**IRRI EGITEKO ALA IRAGARKIA?**—Gaxo-zain zala, naigabe batzuk izan zituan, osagille ta gudalburuen artean abadeaganako ikusi eziña zabal ebillelako. Batez be Gudalburu batek ezetsiz eta zearretara begiratuaz gaiñera, min egiteko eran itz egiten eutсолako. Onak bere menpekoen aurrean bear eban itzala galdu eragiten eutson, eta Ronkalli'k espaz adirazo eutsonean, gudalburuak erantzun eutson: «Ez egizu txartzat artu. Ni neure barruan gixajo bat baiño ez naz, nire ames guztia, nire soiñekoari «galoi» barria ezartea da. Zuk, barriz, aurrerapide andia egingo dozu, eta goietara eldu be bai... Monseñor, Gotzain, Kardenal...» Irri egiteko ala iragarkiz izan ete zan?

**LAN AURRETIK SARIA.**—1921'ganean Aita Santuak «prelatus» eta Italia'ko Zñeste-Zabal-kunde'ko zuzendari egin eban. «Lan egin aurretik saritzen nabe. Omen au aintzat artzen dot baiña erantzunpen andi bat lez».

**BULGARI'RA ELEIZ IKERTZAILLE.**—1924'ganean esku-artean aukozan ainbeste arazo itxita, otoz-otoan Bulgari'ra Eleizaren Ikertzaille joan bearra gogor egin yakon. Baiña bere esakuna «Menpe-tasuna ta Bakea» zan eta apalik burua makurtu eban. An buru-auste latzak izan zituan, baiña azken baten, katoliko ta ez ziranak be beragandu zituan.

**BIURTU BAI; APURTU EZ.**—Antxiñako esakun onetzaz esaten eban: «Nik besterantzta yokatu gurago dot. Apurtu egingo naz, baiña ez biurtu, batez be egite gayetan». Eta yarraitzen eban: «Eta onetan uste Eleizaren edesti guztia neugaz dagola».

**1932'KO IDAZKI BATETIK.**—«Ni, neure betiko tokian nago, au da: neure begiei ziñestu, gauzak zuzen azaldu, eta txarrari larregi begiratu bearrean onagaz poztu. Eta gero gerokoari begiratu».

(Jarraitzeko).

MANTEROLA'TAR GABRIEL

# ARTZAI ONAREN OMENEZ

## YON AITA SANTUAREN ESANAK ETA EGIÑAK

**BULGARIA'RI AGUR.**—Amar urte Bulgaria'n eginda, Turkia'n Eleiz-Ordelaritzarako izentau eben, Bulgaria'ra yoan zanean, gixi batzuk baiño ez ziran arrera egitera yoan ziranak. Ostera agur egiteko gizozte izugarriez gainera, ainbeste naigabe emon eutsozan errege Boris III'aren ordezk, Laterri-Ordeleri guztiak eldu ziran, eta «ortodoxo» en buruena be bai. Eta Ronkalli'k onantxe agurtu zituan: «Antxiñeko oitura batez dagigunez, Irlanda'n Gabon aurreko egunean, etxe guztietan leyo ertzean argi bat ixiotuten dabe, gau done aretan ostatu billa dabilizan Jose ta Andra Maria'ri adirazoten emoteko, an sutondoan, eta Jaungoikoari eskerrak, gertaute dauken mayagaz sendi batek itxaroten dautsela. Aurkitzen nazan tokian aurkitzen nazala, munduaren azkenengo ertzean izanda be, bulgariatarren bat bere erritik urrin, nire etxearen aurretik igaroten ba'da, nire leyoan kandela bat ixiotuta aurkituko dau. Atea yo dayela ta zabalduko yako. Katoliko naiz «ortodoxo» izan, ez dautso ardura, Bulgaria'ko bat da ta orixe da naiko. Nire etxean sartu leiteke ta arrerarik biozkorrena aurkituko dau».

## Erri-izkuntzari zor yakon itzala

Ronkalli yauna 1925'gnean Gotzain egin eben Bulgaria'ra yoan aurretik. 1935'gn urtean Turkia'ra bialdu eben. Eta Bulgaria'n bulgaroera ikasten asi ta abadeai bertako izkuntzea ondo ikasten alegitzeko esaten eutsen lez, Atartük'en Turkia'n be bardin egin eban. Baita eleizkizunetan turkoen izkuntza sartu be; agiritan turkera erabilli, ta goztain-eleizan eta enparauetan, itzaldien aurretik Ebanjelio atal bat turkeraz irakurteko aginduaz gainera, Eukaristi-eleizkizunen ostean italeraz ala prantseraz esaten ziran otoitzak turkeraz eragin. Lenengo idazkia be turkeraz egin eban. Aita Santu zala be, gero, «Pacem in Terris»en argi ta garbi irakatsi eban erri izkuntzari zor yakon itzala zaintzea zuzentasunak eskatzen ebala.

## Ronkalli'ren zurtasuna

Atartük lenengo guda ostean asita, Turkia goikoz bera aldatuten ebillan, Europatar biurtu gura eban. Orretarako, legeak,

oiturak, yazkerak eta abar, guztia aldatu eban. Ziñeskera ta erlijioorik ez eban aintzat artzen, maomatarrenik be ez.

Orretarako eleiz-gizonei euri egokioen soñnekoaz agirian ibiltzen galarazo egin eutsen Ronkalli'k, zurtasunez yokatzen eban ba. Agintariak bere yoan-etorri ta esaten ebana yakiteko alegintzen ziralta ondo ekian eta ain zintzo yokatzen ebalako, arrituta egozan eta begiko egin yaken. Bein baten, abegi ona egingo eutsoela aurreztik yakin izan eban eta erbesteko laterriekaz artu-emonetarako Ministroagaz ordu erdiko autu aldi bat izan eban. Eta esan eutson: Nik, gauza guztietan alkartzen dabena, banantzen dabena baiño lenago aukeratzen dot». Baita katolikoan aldetik ez bildurrik izateko, legeak, naizta batzuetan ain gogozko izan ez, itzalez zainduko zituela. «Au egiztuteko aldean dodan doko soñnekoa naiko da».

Ori ondo egiztu eban Estambul'era yoan zanean. Ordeleriaren yauregiko ate buruan, edestiko eztabaidak ebazteko nonbait «qui ex Patre Filioque procedit» idatzita ikusi ebanean, esan eban: Ez ete ziran «Filioque» onegaitik Sorkaldeko eleiza guztiak Erroma'tik aldendu? Ta, Ronkalli'k idazkun ori kentzeko agindu eban.

## Salatari artean

Europa'ko bigarren gudaldian, lenengo beintzat Turkia ez bata ta ez bestean alde egoan, eta salatariak, ejearen alde ta alkar-tuen aldekoak, guztiak Aita Santuaren Ordeleriak zer egiten ete eban oartzen ebizen eta Ronkalli'k esaten eban: «Iñoiz be ez neban yakin eurak alkar ala neuk zer egiten neban oartzen ete eben».

## Bere egunkaririk, 1938

«Ekin eta yasan; zeruko atsedena olantxe bakarrik yaritxiten da. Beti arazotuta ta iñoiz be iradu barik ibiltea, lurrean zenua eukitea da. Samintasunak eta eriotzeak birrindu izatea gauza ederra da gero berbiztuteko».



# ARTZAIN ONAREN OMENEZ

## GREZIA'KO ORDELARITZAN

Turkia'ko Ordeleritzaz gainera, Grezia'koa be leporatu eutsoen. Lenengoz 1935'gn ikertu eban eta lenengo agintarien ostasuna azpiratuta begiko egin zan. Gero gudaldian alemandarrak indarrez yabetu ziranean agintari barriekaz asarretu barik zapal dutako erriari laguntzen alegindu zan. eta gero alkartuak barriro yabetezko alegiñak egitean izugarrizko goseta izan zanean, Aita Santuaren bidez lortu eban alkartuak erriak bear eban yanaria eroateko baipena. Ez zan lan erreza baiña bere ontasun eta trebetasunagaz lortu egin eban.

## BERE GURASO TA SENDIAGANAKO MAITASUNA

Idazki edo eskutitz baten auxe inñotsen: «Amar urte nintuala etxetik urten neban ezkerro, idazti asko irakurri ditut, eta zuok irakatsi ezin zeinkiezan gauza asko ikasi. Baiña ondiño be, zuekandik ikasi nintuan gauzak ederren eta garrantzitsuenak dira, eurak eutsiten dauste, eta gero ikasi nintuan gauza guztiei bizi ta beroa emoten daute».

Eta bere amari 1935'gn idazten eutsion. «Eta Yaungoikoaren urrengo, zeruko gauzen urrengo, nor da nik geyen maite dodana zeu baiño? Ni Aita Santu izatera elduko ba'nitz be, zu izango ziñake niretzat munduko emakumerik aundiena, zure semetxo maitekorren biotzak geyen gura dautsona».

## RONKALLI'N ASARREA

Grezia'n Ordeleri zala, Europa'ko bigarren gudaren lenengo urtean ikaragarrizko goseta izan zan Atenas'en. Eundaka gosez ildakoak agertzen ziran kale bazterretan. Rokali'k jaguntzeko bideak eraldu zituatan. Aita Leibel kaputxindarraren bitartez yakin eban salerosle batek izugarriko garesti saltzen zituala, bearreko ziran urun eta barazkiak.

Bere idazkaria lagun ebalu yoan zan, indarrez zabaldu atek eskutuan pillatuta eukozan gauzak ikusteko era indarrez zematu eban yanariak merkatuten ezpaebazan. Egundo ez eban ikusi ain asarre. Eta zuzen atan be, besteen zoritxarragaz aberastu gura dabenak besterik ez dabe merezi-ta.

## RONKALLI'N GOGAPEN BATZUK

Adei-lege edo bestekazko artu-emonetan atsegingarri izan, goi-maitasunaren adar baiño ez da.

—Gozatu ta neurte egin bear, onena gura izan.

—Egun eta illa guztiak Yaungoikoarenak dira, guztiak bardin ederrak dira-ta.

—Gotzaiña erriko-iturri antzekoa da. Ni nazan iturri apal onetara mailla guztiko gizonak etorten dira. Nire zeregiña guztiei ura emotea da.

—Garratzasun barik, ixillik egoten alegintzen yarraitu gurago dot, bere aldian, laztasun au onuratsuago izango da-ta.

—Bizitzan zer besterik gura izan neike? Ezer be ez auxe izan ezik: neure bizitza osotuten alegindu, eta neure gotzintza ta Eleizarren morroitzako eginbearrak betetea baiño.

—Nozik bein txirotasunak, bear izanak aginka egiten daust; neureai lagundu eziñak, ainbeste izanda gauza askoren bearrizanez dagoz-ta. «Zorionekoak beartsuak».

## IRUROGEI URTE

—«Irurogei urte! Adiñik ederrena, Osasun ona sentzun ohea, gauzak argiago ikustea, gaitasuna, gozotasunez, baikortasunez eta ustez».

## YASOKUNARI ZELAN BEGIRATU?

Turkia ta Grezia'ko Ordalari zala, 1942'gn urtean itzaldi baten auxe esan eban: «Gutariko bakoxtari atsegin izaten yako, geuri eutsiten daukun lur atalaren gainetik ikusten diran lez yazokunak epaitutea, au da, bakoxtaren laterri aldetik begiratuta. Ori ameskeri andi bat da. Gorago igon bear da eta guztiak batera gogoz besarkatu; gora igon bearrak dago gudaldian dabiltzan muga banatzaileak ikusi ez egiteko eran».

## «GAI ETE NAZ BA?»

Paris'en Nunzio edo Ordeleri izentatzen urrutidatdez izparra eldu zanean, ezin eban ulertu. Okerren bat izan zala uste eban. Erroma'ra yoan bearra izan eban. An egia zala yakin ebanean esan eban: —«Ni Paris'era bialtzea nai dabela? Arazo garrantzitsu orretarako gai ete naz ba? Nor izan da asmo ori euki daben zoroa? «Gero yakin eban Aita Santua bera izan zala, izentatze ori egin ebana. Guda ostean zeregin latza izan benetan.

# ALKAR-AITU TA ARTU EZIÑA

Batzuetan alkar-aitu eziñetik alkar-artu eziña sortzen, ta beste batzuetan alkar-artu eziñetik alkar-aitu eziña; Baiña egunoro ikusten dogunez, bata besteagandik sortu edo beintzat alkarren ondoan ibilten dira. Au gizonen artean betiko gatxa izan da, baiña gaur egunean egundo baiño ugaria-goa. Len, bear ba'da, alkarren artean artu-emon gitxiago, alkar-ezagutzeko ereti gitxiago egoalako, eta oin barriz artu-emonen erretzasuna ugaritu dalako, alkar-aitu ezin diran talde geyago ikusten dira. Eta ori gai guztietan. Eta ondo oldoztu ezker ez da arritzeko gauza. Alde batetik yakintza edo, oin batzuk esaten daben lez, «kultura» bideak zabalago egin dira, eta bestetik yakintza-zaleak be ugaritu. Ortik sortzen da auzi edo erabagigai bat aitatzen danean, bakotxak, eskubidea dabenez, bere eretxia agertzea, eta antxiñako esakun au egiztutea: «Burutan beste aburu». Eta ortik alkar-aitu eziña.

## Alkar-aitu eziñaren zusterak

Edonok daki asko dirala ta ezin gein-kez danak aitatu. Baiña ezagunen batzuk aitatu doguz. Tarte guztietan sartzen dan norbekeria alde batera itxita, alkar-aitu eziña, geyen bat auzi, erabagigai edo gauzeari alde guztietatik ez begiratzetik sortzen da. Esaterako etxe batek zenbat leyo dituan yakiteko alde guztietatik begiratzea naiko izango litzake. Baiña bata alde batetik begiratu ta besteak bestetik bakarrik egiten ba'dau, eztabaidea ta aitua eziña nai ta nai ez sortu bear. Beste batzuetan, itz bategaz bata gauza bat adierazo gura ba'dau eta besteak beste esangura bat emoten ba'dausto, alkar iñondik ezin artu leike. Ori da gaurko gatxa ta naste askoren zuster. Itz bardiñak esangura ez bardiñagaz erabiltea. Olan ez da alkar-aitzerik.

Orrez gaiñera, ba-da gaur egunean alkar-aitzea galerazoten daben beste gauza bat, eta asko zabaldu dana atan be. Besteak bere eretxien alde esaten dabena entzun be ez gura izatea. Ori egiten dabenak ez dabe nai gaur aibeste aitatzen dan «alkar-izketarik» eta beraz, alkar-aitzerik be. Izan be, alkar-aitzeko lenengo bear dana gogo ona, borondate ona da, ori barik egizko gizarterik be ezin egon leiteke-ta.

## Eta ortxe dago untzea!

Gaur autu eta idazkietan aurrez dabil zar eta gazteen arteko auzia. Gazteak, aibeste bider esan dautsoe-ta, ondiño eldu ez dan etorkizuna esku artean dabela uste dau, eta oingo guztia baztertu ta dana barriztau bear dala su ta gar aldeztuko dautsu, eta arin atan be, epebarik, bapatean lortu gura dau dana: berak azia ercin, landarea asi, eta igaliak yan. Ori zarrak gura izatea, aitzekoa litzake, itxaroteko asti gitxiago dauke bizitza onetan-eta, baiña arritzekoa da etorkizuna euren euskuetan daukela uste daben gazteak ori gura izatea. Orren azalbena? Nire ustez, onexegaitik: gure arima, goaren legea «bapatekotasuna» dalako. Eta izan be gorputzik ezpageunko gauzak bapatean egingo geunkez, baiña gorputza tarteen sartzen sartzen danean gogoaren bizkortasunagaz ezin ibilli... Gazteak, benetan «gazte» danean, indarra, eragipena ta *amesa* bereak ditu ta ondo da beti aurrera begiratzea. Bizitzak irakatsiko dautso atzera begirutzen, eta lengo barik oraingorik ez litzakela izango ta... gerokorik be ez.

## Nor da gazte? Nor da zarra?

Itaun onei erantzuteko zer dan gazte eta zer dan zarra izatea yakin bear. Eta orixe ez da errez yakiten, li aurreko egunean guztiak dira zar-eta. Eta orixe da iñork ziur ez dakiana. Urteak gorputza zartuten dabe, baiña arima, gogoarentzat ez da urterik. Urtez gazte dana, gogoz zartu leiteke, eta urtez zarra dana gogoz gazte izan. Onetan XXIII Yon Aita Santua erudtzat aukeratuko geunke. Urteak gora bera benetan «gazte» agertu zan. Norbaitek itandu leike: Orduan zer da obe gazte ala zarra izatea? Orreri erantzun egokia irelandar esakun batek dautso: «*Urre zuria ta urregorria baiño ohea da gazte izatea zarren buruagaz, adimenagaz, baiña askozaz ohea ondiño zarra izatea gazte aroko buruagaz*». Izan be zarrak gazte izatea zer dan ba-daki, eta gazteak, zarra zer dan ez daki, eta bizitzak irakasten dabena be ez. Ortik sortzen da alkar-aitu eziña.

# Alkar-Izketan

## LOTSABAKOKERIA DALA-TA

- Gaur Peru, bidean etorkizunatzaz buru-austen etorri nok.
- Ta zelan ikusten dok ba, Manu, gure etorkizuna?
- Oso baltz; onan ba'goazak ustelkeriak ondatu bear gayozala, uste yoat.
- I ezaz ba, betaurreko baltzakaz gauzak begiratzen yautsoena ta zergaitik diñok ori?
- Ez dok irakurri, Madrid'eko epaikari nagusiak, oituren nasaikeria dala-ta esan yoana? Ez dok ikusten izparringiak gai onetzaz esan yabena, irakurgai, zine, yolas-toki eta edozein tokitan lotsabakokeria zabalduaz yoyala?
- Ori izparringiak esan bearrik ez yagok, gazteen artean eta ain gazte ez diranen artean lotsabakokeria zabalduaz yoala ikusteko. Begiak zabaltzea naikoa dok.
- Bai, gauza barregarriak ikusteko yayo gozak izan be. Neskatillak mutil agertugureak eta mutillak neskatil, zer edo zer esan gura yok. Beintzat, gauzak goikoz bera yarri dozakala.
- Ori, bear ba'yok, buruarinkeri bat baiño ez dok izango, ta batzuetan zer bait geitxoago be bai, batek ba'yakik non ta zelan ibilten diran eta noiz etxeraten yoazan.
- Lotsabakokeria munduan beti izan dok, baiña «lotsorra» izaten zuan eta burua eskutatzen alegintzen zoan; gaur barriz lotsabakokeria «lotsa barik» ikusten yoago, ta gizartearentzat orixe dok kaltegarriena.
- Ta, txarraena ez dok ori, askozaz txarragoa dok oitura txarrak galerazoten inõr ez asartzea. Ez yakiat aginpidea yaukienak, agintari, guraso ta gizartean eraginpena yaukienak alegin geyago zergaitik ez yaben egiten.
- Alperrikoa dala esaten yabek, eta eurak andiangoak esango yautseezanaren bildurrez... ixillik itxi bear...
- Ori oindiño txarragoa dok. Ixillik itxi ezkerok lotsabakoak eurak yagozala zuzen uste izaten yabek-eta.
- Ba, lotsabakoak lotsadunak baiño zarata geyago egiten yaben erriak, etorkizun onik ezin leikek itxaron. Orrexegaitik esan yauat gure erriaren etorkizuna baltz ikusten yoadala.
- Berari bakarrik begiratu ezkerok alantxe dokala yirudik, baiña Yaungoikoak zainduko gayoazan itxaropena ez yoagok galdu bear. Ba-kik ba, gizon bakotxak lez, erriak be amiltegian yausteko arriskuan aurkitzen dozakanean, euren olde edo instintoz atzera egiten yoela, ta oldozten asita, zuzentzeko bidean yarri.
- Egia dok gizartea zuzentzeko gure lanak naikoa ez dozakala ta gora begiratu bear yogula, baiña... geuk al yoguna egiten ezpayoguk... Yaunak alperrai ez yautsela laguntzen...
- Orduan auzoak zer egiten yaben begira egon barik, bakotxak al yokana alegintzea izango dok gauzarik onena, alan besteak be lanari ekiteko bizkortu egin leikezak-eta.
- Ori dok bidea izan be, onerako guztiok batera yokatu ezkerok, «onaren ugari-tasunagaz txarra ito» egingo geunkek, Paul deunak yiñoan lez.
- Batzuk esaten yabek alperrikoa dokala elegin egitea, euren burua zuritzeko nonbait.
- Onaren alde egiten danean alperrik ez dok egiten inõiz be, yakitunak esan yoenez lurbiran egiten danik ez dok galtzen aldatu baiño.
- Nik alperrik lan egiten yabenari auxe erantzungo ñeuskio: «Egiten yabenak oker egin leikek, baiña ezer egiten ez yabena beti yagok oker.
- Naiko izango dok, berandu dok-eta, agur!
- Agur...

# Aita Santuaren

## Atsekabeak

**URTEURRENA.**—Bere Aitasantutzako bederatzigarren urteurrenean, VI Paulo'k, lenengo Aita Santua Kepa deunaren egunean ospatu dau. Egun orretan Batikano'ko eleizan ospatu dan eleizkizunean, ainbat kardenal eta amar milla lagun bertan zirala, alde guztietan biotz-zarrada andia egin daben itzaldi luze bat egin eban, gaurko Eleizaren egoerea dala-ta samintasun andia agertuaz.

Eleiz-Batzar Nagusia Yaungoikoaren bezuza eder bat izan zala esan ondoren, ango irakatsi ta aginduak ardura ta alegin andiz aurrera eroaten lan egin arren, samintasunez beterik argi ta garbi azaldu dau, tamalez okerrune batzuk galerazoten dabela.

—Berak diñoanaz, «Eleiz-Batzarraren ostean uste izan zan Eleizaren edestiantzat egun eguzkitsu bat izango genduala, eta orde, egun lañotsu bat eldu da, ckaitz eguna, illuna, erantzukeriz eta eztabaidaz beteaz».

Igaroko urteetan Aita Santuak egin dituan eundaka itzaldietan, bere tamala sarritan agertu izan dau, zoritxar andi au dala-ta, baiña ain argi ta garbi ez.

**YASOERA ONEN ERRUA?**—«Zirrikatuen batetik, —diño—:

Yaungoikoaren etxera Satanas'en kea sartu da». Orren errudun? Izatez-gaiñetiko arerio indartsu bat sartu da munduan Eleiz-Batzarraren ondoren onuratsuak galerazteko, eta itoteko. Bere izena, Kristo'k Ebanjelioan ainbeste bidar aitatuten daben gizonaren arerio ezkutua da: deabrua. Eleizagan uste osoa ipiñi bearrean, egizko bizitza bidea berak erakusten dau-ta, izparringi ala gizarte bazkun batetik itz-egiten dauskun igarle mundutarrari yaroman egiten yake; gure barruan ezbaya sartu da, argitasunarentzat zabalik egon bear leukien leyoetatik: yakidititk. Eta yakidia, Yaungoikoagana urreratzeko egiak irakasteko da eta orren orde, ezbaya yakitunak zabaltzen dabe, burua makur esanaz: «Ez dakit, ez dakigu, ezin yakin geinke»:

**GUZTIA MUNDUTARTU?**—Ortik sortu da gaurko gizarte ta gizona ziñeste arazoetan otzitutea, goiko gauzakaz artu-emonik ez gura izatea, goi eta beko gauzak mailla bardiñean ipintea, gizonak eta gizarteak Yaunagaz euki bear dituezan artu-emonak ukatzea, kristiñau eta ez diranen artean alderik ez dagola esatea, ta goiko eragipena alde batera itxita, gizona «yaungoiko» egitea. Egia, gauzak gizonarentzat egiñak dirala, baiña egi andiagoa gizona Yaungoikoarentzat egiña dala. Gauza bat da larregikeriak kentzea, eta beste bat, beste larregikeri batzuk irakastea. Len gizartean abade usain geyegi egoala ta oin azterrenak be kendu gurarik? Ori ez da II Batikano'k irakatsi dabena. «Gaurko eguneratutea» da gauza bat eta beste bat, goikoz bera gauzak ipiñi gura izatea. Amaikatxo zentzunbakokeri irakatsi da, II Batikano'ren izenean! Barrizkundera bearreko da, baiña norbere barrizkundetik astea bearrekoago!

**EGIA NON?**—Kepa deunak argiro diñosku: «Kristiñau erria, Yaungoikoaren erria da, Kristo'k erositakoa, berezia, autua, Yaunagaz berarizko artu-emonak izan bear dituan»; Mundutar gauzeri be goitar sentzuna emon bear dautsona, Paul deunak esaten eban au gogoan artuta: «Naiz yan naiz edan naiz beste edozer egiten dozuela egizue Yaungoikoaren aintzarako». Askori baiña entzuten yake: «Eleiza geu gara» arrokeriz esaten daben asko ikusten doguz lengo lepotik buruagaz, oker dagona zuzentzeko atzamar puntea be eskeñi barik. Eleiza geu gareala? Ba, barrizkundera geugandik asi dagigun!...

**ZER EGIN?**—Ziñestean «sendo» yarraitu, ta sakondu; gure Eleizagan uste osoa ipiñi ta sakondu; eretxi zorrotz eta ezbai guztien gaiñetik yokatu; kristiñau lau eta apalen ziñesteari eutsi, «Eleizaren zentzuna» ez galdu; eta Aita Santuak gura dabenez kristiñau-batasuna indartu, Eleizea itxi, iges egin eta, bear ba'da, iñoiz be, bateatuak izan arren euren deyaren ezauagarrik euki ez dabengaitik, otoitz egin, guztiok Kristo'gan bat izan gaitezcan.

# ALKAR-IZKETAN

## ZER EDO ZER DALA-TA

—Zer dok, Peru, ain arreta andiz irakurten diarduan ori?

—Aldizkari bat irakurten etorri nok bidean, eta arigarria dok baiña, ze izkuntzatan idatzita yagoan igarri eziñik ñabik.

—Izkuntza gayetan ez az makala ba! Ik aitu eziteko gauza bakanen bat izango zoon.

—Bai benetan! Idazlan baten bakarrik, beste antzeko gauza batzuen artean, onexek esaten yoazan: «Transformazioaren faseari»; «Post-primarioaren deskribitzean»; «Itz magiko tirano hoik»; «Kontzientzia post-primarioaren... pentsakera alternatibiste»; «Mentalidade alternatibistak». Lenengotan batzuk «euskeranto» esaten dautsena izango ete doan egon nok baiña ez yoat uste orrenbestera eltzen doanik be. Euk zer deritxok?

—Zer esango daustat ba! Neure aldian ezagutu yodanazan izkuntza barriak, onexek izan dozak: *Volapuk*, *Esperanto*, *Ido*, ta «*Interglosa*», eta onango baten antzik be ez yaukok. Orrexek posten latin antza emoten yautsek, baiña ori be ez dok.

—Bear ba'da *erderanto* izango dok.

—Len yaukoguk naste ta oin beste naste bat? Zoratuteko beste be ba-dok ori?

—Orren bildurrik ez eik euki. Zoroak ain leloak ez dozak, eta euren erantzunetan egi andiak esaten ba-yakiek. Antziñako esakerea dok zoroak eta umeak egiak esaten dituela. Zer edo zegaitik izango dok?

—Nire lagun bateri ederra bota yautsoan zoro batek. Zoroetxe bat ikertzen yoan zoon eta bertan egoan zoro bateri itandu yautson: «Au zoroetxea da?» Zoroak bene-benetan erauntzun yautsan: «Ez, au «nobiziaua» bakarrik da, zoroak kanpoan dagoz».

—Izan be, gauzarik entzuten dok! Lengo baten izparringi guztiak izki andiakaz eta argazki eta guzti, Logroño'n marraskillo lasterketa egon zala, eta irabazi ebanak, metro bat eta ogei zentimetro ordu baten egin ebazala yaukarren. Ta orretarako, Alemania, Prantzia, Suiza ta abarretik marraskilloak ekarri yoezan, eta urrutikuskiñak be, garrantzi andiko gauza bat lez emon eutsola, ainbeste diru eralgita, eta yentetza ikaragarria batu zoala.

—Nik ez yiñoat ume txiki ta andiei, barre eragin eta poz aldi bat emoteko olango yolasak ipintea egoki ez danik, gaurko bizitza nastuan asalkadi bat ondo etorten dok-eta, baiña ainbeste garrantzi emon barik.

—Ba, egun batzuk geroago ni geyago arritu niñoan, ez yakiat zenbat txakur «millionario» dozakala ugazabak ilburukoan itxitako diruakaz.

—Ori, munduan ainbeste ume ta gizon *gozez* ilten dozakan birtatean, zorakeri ta zentzunbakokeria ori ezipadok, ez yakiat zer izan leitekean.

—Len esandakora goazak, zoroak «kanpoan» dozakala. Zoroa gauza bakotzari bere garrantzia emoten ez yakiana izaten dok.

—Orduan, geuk be arduraz ibilli bearko yoguk, olango gauzei yauken garrantzia baiño geyago ez emoteko.

—Orretan zuzen ago, baiña bakik, burubakokeri antza yauken gauzak, *gizonen* artean ondo ez yagoazala esatea be bearreko dok, geyago ugaritu ez daitezcan.

—Alantxe dok izan be, gauza bakotzari bere izenegaz deitutea beti yagok ondo, gaurko gizarteko gaitzik txarrenetakoa ori ez egitea dok-eta.

—Ordua igaro yakuk igarri barik eta urrengorarte, agur!

—Agur, ba!

Z E R

E D O

Z E R

## EINSTEIN'EN APALTASUNA (1879-1955)

*Albert Einstein, Pisika gayetan Nobel Saria irabazia ta matematiku ospetsenuetarikoa ta munduaren azalben barri bat asmau ebana, gizon lau eta apala izan zan. Ungaria'ko osagille ospetsu Jan Plesch'en adizkide andia zan, eta Einstein'egaz izan eban azkenengo autu-aldia azaltzean auxe diño, Einstein'ek esan eutsola:*

«Osagille, nire gogoko egoerea benetan bakana da. Era berean apal eta arro aurkitzen naz. Eskutuan egon diran izadiko lege batzuk arakatu ta azaldu dodaz. Baiña gitxi izan dira. Ondiño zenbatu ezin ala mundua zuzentzen daben lege dira ezagutzen ez doguzanak. Gizonak guztiak agertu ta azaldu ezin izango ditu, naizta milloika urteak bizi. Au da eskutapen arrigarria! Nik neure burua apal somatzen dot izadian ainbeste aberastasun erein dituan Adimen, Egillearen aurrean. Alan da guzti be, gizon yakintsuak aintzaz eta gorapenez inguratu nabe, ta yakitun anditzat nauke, egiz, au gauza txikia izanda. Euren aurrean arro somatzen naz, eta alde orretatik, eurok ezezteko tentauta egoten naz. Yakitun andia deitu, legeok susmau baiño besterik egin ez dabenari!»

*Ikasbide ederra Yaungoiko-ukatzailleentzat!*

## EINSTEIN'EN LAUTASUNA

*Bein baten Barzelona'ko Udalak deituta ikertaldi bat egiten etorri zan. Gizon ospetsu lez, Yatetxe edo Hotel Ritz'ean Udalak ostatua gertau eutson. Baiña berak bere kontura ostatu bat aurkitu eban. Udalekoak, yakitunaren egoerea euren ardurapean egoan-eta, alegiñak-alegin egin ebezan Hotel Ritz'era eroateko. Baiña alperrik izan ziran. «Ni erritar gizon lau-bat naz, eta neuri dagokidan ostatua aurkitu dot», erantzun eutsen.*

# ALKAR-AITU EZIÑA NONDIK?

## ALKAR-AITZEKO EGIÑAK

Yaungoikoari eskerrak emon bearrean gagoz bardiñak egin ez gaitualako. Buru-auste andirik ez da bear, bardiñak ba'giña mundua zelangoa izango zan ezagututeko. Guztiok arpegi-era bardiña, soin, adimen, izakera bardiñak ba'genduz, alkar ezagutu be ez giñake egingo, ta ori barik, errez aitu geinke gizarterik ezin izan leikela. Yaunak ez gaitu bardiñak egin, baiña bai alkar-aitzeko, gizartearen oiñarria ortxe dago-ta. Alan eta be, ikusten dana ikusita, alkar ez aitzeko egiñak gareala esan leike.

Alkar-aitu ezin ori nondik sortzen dan? Lengoan zerbait esan gendun, baiña gai onetzaz eten barik ekin leikio ta yarraitzea egoki dala uste dot, alkar-aitu eziñaren iturriak ugari bai ugari dira-ta. Eta orreitariko bat, bakotxaren izakerea da; eta ez txikia be. Bardiñak ez garealako, edestia zear, gizonak alkar-aitu eziñik ikusten doguz, tamalez, baiña asko oldoztu bearrik ez dago, guzurra dirudian arren, bardiñak izango ba'giña alkartu eziña bildurgarriagoa izango litzakela ulertzeko.

## IRUTARIKO GIZA-TALDEAK

Bitarteko taldeak alde batera itxita, begikada baten, gizonak iru taldetan sartu geinkez: Izakeraz *baikor* diranak, au da, dana ontzat emoten dabenak; *ezkor* diranak, au da, dana txartzat emoten dabenak, eta *egikor*, au da, egizale ta egin-zale diranak. Irudi baten didez ikusi dagigun: Baikor utsak diranak, eguzki argitsua ta lainobakoa bakarrik ikusten dabe; lurbiran gauzak ondo doaz, beraz ez da ezer egin bearrik. Ezkor utsak, dana illun ta laino baltzez ikusten dabe ta beraz, ezer egitea alperrekoa da-ta, zetan nekatu...? Egikorrek ostera, egizale ta egin-zalea dalako, eguzki argi ta laino bakoa ikusi arren, ba-daki lainotu leikela, ta ori gertatu ez daiten al dan lan gutziana egiten dau. Ba-daki baita ortze illun eta laino baltzez estaldua ikusi arren, gaiñetik eguzkiak argi egiñaz, laino baltzok urratuko dituala, ta orretarako eten barik lan egiten alegintzen da.

## IRURETATIK EZIN ETE DA «ZENTZUNDUN»?

Zentzuna galdu ez daben edonork, itaun oneri auxe erantzungo leuskio: «Ezpai barik *egikor* diranak, egizale ta egin-zale diralako». Oar bat emen: Ez da naikoa egi-zalea bakarrik izatea, era batera egin-zalea izan ezik, bide erdian geldituko gintzakez-ta. Egiak eta egiteak alkartuta yoan bear dabe, dirudienez Euskeraz itz biok zuster bat daukiela esan leike-ta. Ostantzean «ezer egin barik» egizale izateak alperkeri usaña dau ta onetan baikor-utsaren eta ezkor-utsaren antzekoa izango litzake.

Baiña yazo leiteke ta sarritan yazoten da, egin-zale izatea egizale izan barik. Eta yakiña, orren ondorena indarrak eta astia galdu ta dana ondatzea izaten da, egunero ikusten dogunez.

## BAIKORRA ZARA?

Baikor izatea, berenez ez da gauza txarra. Ori bakarrik ez, baikortasuna bizitza onetan, neurri baten, bearrekoa da, XI Pio<sup>o</sup>k esaten ebanez. Txarra dana baikor-utsa izatea da, asmolari ta ameslari ezer egin barik bizitza gutzian izatea. Bizitza gutzia «zirisuzkoa»na egiten igaro, ta onen ondorena guztiok dakigu zein dan: Gabean zarata, su, argitasun eta istillu aundia, ta urrango goizean keez eta kedarez estaldutako txirrinka batzuk. Gauzak ondo doazala ta ezer egin bearrik ez dala diñozu? Egizu al dozuna ta gauzak obeto yoango dira. Ondo dagona obetuten alegindu zaite, ta zure alegiñak ez dira alperrekoak izango; pisika yakitunak esaten daben lez: «munduan ezer be ez da galtzen, aldatu baiño».

## EZKORRA ZARA?

Ekiyozu lanari, zuk ezagutzen ez dozuzan bide asko dagoz, txarto dagoana onduteko-ta. Besoak idunduta ez txarrari begira negarrez astirik galdu. Egiten danak, onerako naiz txarrearako, beti dau bere eragipena. Lan gogoz eta eten barik, txarto dagona zuzentzeko ori da bide zuzena-ta. Ostantzean aizeak orbelen antzera aurrean eroango zaitu... ezer egin barik!

## EGIKORRA ZARA?

Egin-zale ta egi-zale danari ez dago ezer esan bearrik, Aurrera!, baiño. Egia buruan, kemena, biotzean ta iraupena lanean, AGUR-zale guztiok Euskerearen alde EKIN eta YARRAI!

# MERCKX GIZONA

*Txirrundularien artean «txapeldun» dan gazte onen izena alde guztietan zabal dabil. Eta ez da arritzekoa agertu daben trebetasuna bardinbagea da-ta. Alde orretatik ezpairik ez da. Baiña bere ziñestearen zintzotasuna ez da txikiagoa. VI Paul Aita Santuak berak goraldu dau. Dagonillaren 27'ganean Castel-Gandolfo'n egin eban itzaldi baten auxe esan eban: «Kirola ez da guztia bizitzan; ez da bizitzarako naikoa dana be; ez da erlejiño bat. Baiña ba-da ara igoteko etenbako zurubi bat. Eta bear ba'da yakin barik ara zuzentzen da».*

*«Gaur egunean «txapeldun» dan kiroltzale baten itzak entzun dagiguzan; Eddy Merckx'ek auxe diño: «Nire bizitza guztian Kristo da etenbarik nere aurrean. Barren-barrendik Bera'gan ziñesten dot, egiz bizi izan zala ta bere Yaungoikotasunean». Kiroltzaleentzat be, gaur iñoz baiño yagago, Kristo da bidea». Onaiño Aita Santuak esandako itzak.*

*Ba-da oindiño geyago be. «Vita nouva», Pisa'ko egunerokoan itaun egin eutsoen: «Zuk uste dozu, Yesu-Kristo gizaldiak zear izan dan gizonik ospetsuena dala?» Merckx'ek erantzun eban: «Ez, Au ez da beste batzuekaz bardindu edo erkatu legiken gizon ospetsu bat. Kristo Yaungoikoaren Semea da. Onegaz erkatu legiken beste baten billa ibiltea burubakokeri bat da. «Hippiak» eurena dala entzutea ezin dot yasan, eta ondiño gitxiago, Kristo Marx'egaz erkatutea». «Avvenire»k 1972' gngo Dagonillaren 31'ganean argitaldua.*

*Orixe da, gaur egunean Yesu-Kristo'ren Yaungoikotasuna estaldu gurarik dabiltzan «sasi-yakitunentzat» erantzunik ederrena. Baita kristau-ziñestea mundu guztien aurrean autortzen be «txapeldun» izatea. Yarrantzale asko izango al dauz!*



# ZER EDO ZER

«YAUNGOIKOA BA-DA, NEUK AURKITU DOT» André Frossard.

Ointxe iru urte dirala, Paris'en, izen onegaz idazti ba argitaldu zan: «DIEU EXISTE, je L'ai rencontré». Bertan egilleak azaltzen dau, zelan bera katokilu biurtu zan, ogei urtedun zala. Gauza arrigarria ta bakana benetan!

Bere aita Fousemagne, Belfort ondoan dagon erritxoan yayo zan. Erri orretan «sinagoga» bat egoan, eta egiñ-egiñean be, Prantzia'n katoliku eleizarik ez egoan erri bakarra. Endaz yudutarra izan arren, bere sendian ez zan ziñeste azterrenik, eta gaiñera komunistak ziran.

Bere aita Prantzia'ko III Errepublikan politika arazoetan ospetsua izan zan eta bertako komunisten lenengo idazkari-orokorra. Bere aitona yudegua izan zan eta etxeko guztiak sozialista. Ziñeste arazoetan azterrenik be ez. Yaungoikoa ete zanetz be ez eben buruausterik, Yaungoikorik ez zala esateko be ardurarik ez eben artzen-eta.

Bere katoliku biurtzea arrigarria izan zan. Ezertarako irakurgai, eztabaida ta uste barik «argi zartada

ixiltsu ta gozatsu baten» gertatu zan. Arratsaldeko zazpirak eta amar ziran. Bere lagun bat, otoitz egiteko-edo, Paris'ko lekaima kapilla baten sartu zan. Noiz urtengo itxaroten egoan eta aspertuta, bera be eleizatxoa zelangoa zan ikusteko, etxegintza zalea zan-eta, sartu egin zan. Bost minutu geroago urten eban, eta batpatean bere burua katoliku eginda ikusi eban.

Gauza bakana benetan. Bere eretxi, biozketa ta izakerea guztiz aldatu zirala oartu eban. Ori ezin azaldu Yaungoikoaren laguntza ta grazi barik. Baten batek itandu leike: «Zer dala-ta egon da 23 urtean yazokun ori azaldu barik?» Berak diñonez, Bernanos'en itzakaz: «on-bideratuak gogaikarri diralako». Azken baten baiña, bera ziñaldari ta egi ain garrantzitsuaren ziñaldari izan dalako, berari yazo yakona edestu egin bear dabela, «YAUNGOIKOA BA-DA, neuk aurkitu dot» idazti ederrean. Yaungoikoaren bideak ezkutuak dira izan be!

Lenago be, beste sei idazti eder argitaldua da idazle au.

GAMA

# ZER EDO ZER

## Alec Guinness'en katoliku biurtzea dala-ta

Izparringiak erdi-egi asko ipinten dituela guztiok dakiguna da. Alec Guinness, antzerkilari ospetsuenetarikoa katoliku biurtu zala egia da, eta «Doménica del Corriere»n Aita Fabbretti prantzizkotarrak onantxe azaltzen dau: —Alec Guinness'en semea bost urtedun zala «polio» gexoak artu eban. Ibilteko ez zan gauza ta, txirrinkadun burditxo baten ibilli bear izaten eban. Aita samintasunez beterik egoan. Erroma'ko kaleak-zear, «Corilona» pelikulea egiten ziarduala. Osagilleen alegin guztiak alperrekoak izan ziran. Itxaropen guztiak galduta egozan.

Egun baten bere semearen zoritxarraz oldozten kalean yoyala, eleiza baten sartu zan ta otoitz egiteko gogoia etorri yakon. Bera ez zan katoliku, baiña ainbeste (330),

Erroma'ko eleiza baten sartu zan. Antxe al ebanez, bizitzan ainbeste buru-auste emoten eutsozan semearen alde Yaungoikoari eskatu eutson. Pelikulea amaituta London'era biurtu zan. Bere seme Mateo'k egazkin-geltokian itxaron eutson. Ondiño burditxoan ebillen baiña erreztasun aundiaz erabillen. Aste batzuk geroago beste edozein ibilli ta antziketan egiten dau. Osagilleak esan dautsoe yakidiak ezin azaldu leikela osatze arrigarri ori. Eta olan semeak osasuna ta aitak ziiñestea yaritxi ebezan.

Izparringiak esan dabena egia da baiña oin ogei urte gertatu zan. Alec Guinness'en semeak 40 urte ditu ta osasun ederreko seme biren aita da.

Yaungoikoaren bideak era askotakoak dira izan be!

# ALKAR-IZKETAN

—Aste onetan, Peru, mundu negargarrian bizi gozakala gogoratzen etorri nok.

—Manu, zer dala-ta diñok ori?

—Zorioneko edo obeto esateko zoritxarreko, Vietnam'go gudeatzaz egunokaz irakurri yoadana, izan dok nire buruaustearen iturri.

—Ori antziñako kontua dok mutil, ia aspertuta gagozak andik yatozekan izpar negargarriakaz.

—Baiña oingoa alde batetik pozgarriak dozak, naizta bestetik negargarriak izan. Pozgarria dok alde batetik «bakea urrean yagoala» entzutea, eta negargarri benetan, azkenengo zortzi urte oneitan bakarrik an gertatu dokana. Dirutan Ipar-amerika'k bakarrik eraldi yoana 105 milla milloi dolar izan dozak. Dolar baktzak 60 lauerleko balio ba'yozak kontu ataraik zenbat pezeta izango dokazan. Baiña ori ez dok ezer. Orrez gaiñera milloia ta iruregun milla lagun il dozak, eurotarik 45.884 amerikatarrek gudan, eta beste zeregiñetan 10.231. Vietnam ego aldekoak 182.229 eta onen lagunak 5.199. Vietnam ipar aldekoak 904.000 gizon galdu yabezak zaurituak alde batera itxia.

—Ta astakeri guzti ori zertarako izan dok ba?

—Batek ba-yakik! Baiña nik uste yoat gudearen atxakiagaz batzu-batzuk «negosio» ederra egin yoelako.

—Ori mutil, guda guztietakoa izaten dok. Sarritan esaten dauat, «negosio»rik ez ba'legok, guda luzerik ez litsoakela egongo.

—Olakorik ez yabek eurak aitatzen, baiña bai gizabidearen alde ta komunismo aurka yokatzen yoela mundu guztian zabaldu... Zuzen-zale, lege-zale ta gixaxo burua eginda...

—Mundua olantxe dok. Egunoro ez yoguk ikusten gizon batek beste bat asarrean erail yabelako zuzentasunaren izenean zigor gogorra ezartzen; eta bonba bidez erriak ondatu, millaka errugabe erail eta iñor ez yoat zigortzen ikusi.

—Olango gauzak ikusteko ez yagok luzero bizi bearrik. Eta txarrena olan izan bear yokalakoan arritu be ez gozak egiten.

—Orduan, nozko dozak gizonaren duintasun, nortasun, azkatasun eta eskubi-deak?

—Ori yiñoat neuk be, askoren agotan itz ederrak, egite txarrak estaltzeko, eta norberari ondo yatorkonean bakarrik aintzat artzeko. Orretan gozak mutillak!

—Baiña, egia, zuzentasuna ta beste eskubideak guztionak dozak, goikoenak eta bekoenak... edo iñorenak be ez, orretan guztiok bardiñak gozak-eta.

—Ori egi andia dok, baiña baita, goitik bera errezago arrika egiten dokala, betik gora baiño. Orregaitik bean yagoanak kaskarreko geyago artzen yozak, eta mundu obe bat egin artean olan izango dokala uste izateko dok.

—Nik uste yoat, mundu obe bat egiten alegintzea baiño, oingoz, naiko izango dokala mundu on bat egiten alegintzea, gizon eta gizarte baktxaren eskubideak aintzat artuta.

—Ortik asi ezik benetako bakerik ez dok izango iñon be, ta Vietnam'en gitxiago.

—Alantxe dok. Munduan itz onak baiño egite onak bearrago dozak izan be!

—Au, luzetxo yoak eta urrengoan yarraitu bearko yoguk.

—Agur ba, urrengorarte!

# TXEKAR KATOLIKU IZPARRAK

Laterri onetan, komunistak agin-pideagaz yabetu ziran ezkerotik, katolikuak Kristo'ren antzera, lapur biren erdian kurutzalduta bizi dira. Egia da, laterrilege nagusian bako-txak berak gura daben ziñeskerea ta erlejiño azkatasuna dabela esaten dala, baiña ori guzurra dala, egiteak agertzen dabe; arnasa artzen ostaz-ostaz itxiten dautsee, guztiz ito ezin dabenean. Ori yazo da Txekosloba-ki'a'n.

Oin urte batzuk dirala, «Praga'ko udabarria» deritxon aldian, arnasa apur bat artu al izan eben, baiña erru-sitarrak indarrez zapaldu ebenean, le-nera yo eben izpar oneitan ikusiko do-gunez:

## Gotzaiñak

Igaro dan Bagillean ordu batzuk barruan gotzain bi il ziran, bata 70 urtedun, Boemia'n, eta bestea 82 urte zituala, Eslobakia'n, eta olan 12 go-tzain izan ziranetatik 2 bakarrik gel-ditzen dira, Txekoslobakia'n dagozan amar milloi katolikuntzat. Beste bate-ri, Mons. Karel'eri, bere zeregiñak be-tetea galerazo egiten dautsee.

Agintariak, gauzak zuzentzeko as-moz-edo, Erroma'gaz alkar-izketa ba-tzuk izan ebezan, baiña ezer egin ba-rik gelditu dira. Ori dala-ta, gotzain barririk egitea ez da erreza. Alan eta guztiz be, yasarpena gora-bera, ka-tolikuak ez dabe atzera egiten. Agin-tariak eurak, artega aurkitzen dira, 1968-1969'gnetako bateoak, ezkontzak eta obiratze katolikuak ugaritu dira-lako.

## Kristiñau-Irakatsiak

Ikastoletan umeai, gurasoen eska-riz, erlijiñoa irakasten dautse, baiña begitan artuak izaten dira. 1966'gnean, txekoan artean % 20'k ikasten eben, oin barriz, % 34'k; Eslobakia'n ba-rriz, % 80'k.

## Abade-Ikastetxeak

Agintariak alegin guztiak egiten diardue abade barriak urrituteko. Gaur abade-ikastetxe bi bakarrik dagoz za-balik: Litomorize, Praga ondoan, txe-kotarrentzat, eta Bratislaba'n, esloba-keraz itz-egiten dabeneztat. Bitzuok begitan artu eta oso aztertuak izaten dira «agintarien eleiz-arazoetako idaz-karitzan» aldetik. Bratislaba'n, azke-neko urtean 80 ikasletik 35 bakarrik artzen itxi dautsee, ta bestean, 60'tik 35 bakarrik.

## Katoliku-aldizkariak

Agintariak, euren eskuetan eukite-ko alegiñak-alegin egiten ditue, ta 1971'gnetik asita Eslobakia'n erbeste-ko katoliku idaztirik sartzea debeka-tuta dago, abade-ikasketak egiteko bearrekoak izan ezik. Irakasleak be ondo zaintzen ditue.

Eslobakia'ko lekaiameak pozik ego-zan «Praga'ko udabarrian», gogorke-ria apur bat ibitu zalako, Erri-parro-kietan etxe bat artuta lan egiteko. Bai-ña oin barriro euren lekaimetxeetara biurtzeko agindu dautsee. Amalau egu-neko epea emoten dautsee, euren gu-rariz egiten dabela esateko. Etxeok, iñork artzen ez ba'dauz, laterriak be-reganduten ditu.

Gasteen artean zabalkunde izuga-rria egiten dabe eurekanatuteko. Au-teskunde aldietan batez be, alegin guz-tia, izparringiz, irratiz eta urrutikuski-ñez erriari buruan sartzeko Eleizea eurakaz dagoala. Orretarako, agintari ta eleiz-buru diranak alkar-izketan da-goza argazkiak zabalduteko, bake atxakiagaz, euren lagun diran aba-deak bitarteko artzen dabez.

Indarkeri, guzur eta maltzurkeri guztiok gora-bera, katolikuak geroago ta zintzoago yokatu ta eleizkizunetara ugariago yoaten dira. Oneik esaten dabe: «azkenengo itza Yaungoikoak esango dau».

# ARINKERIA

Gaurko gizartearen geldi egon ezin onetan, arinkeria zabalduaz doala oartzten dogu. Lenago yoan-etorrietarako ainbeste aukera ez egoan, eta edozertarako asti geyago artzen zan. Gaur gauzak goikoz-bera aldatu dira. Toki batetik bestera aldatzeko ainbeste erreztasun dago-ta, alde guztietan, eta gizarte mailla guztietan, ibilli bearra, arteak-artueziña ta iraduz ibiltea zabaldu dala ikusteko begiak zabaltzea baiño ez dogu bear. Au aurre-rapenaren ezaugarri da. Gauza geyago ikusi ta ikusteko bidea. Tamalez, baiña, onek ba-dau akats bat; gauzai azaletik bakarrik begiratzea, eta ortik geure eretxietan arinkerian yaustea. Egin-eginñean be, gaurko gizarteko gatxa orixe dala esan geinke. Len gauza gitxiago yakiten ebezan, baiña sako-nago; gaur gauza geyago ikusi ta ikasten dira, baiña albaiñu antzera. Belbillean doanari yazoten yakona; asko ikusi begiratzeko asti barik. Ortik dator azalkeria, ta bere lagun dan arinkeria.

## Arinkeria eretxietan

Gure eretxiak, gaitzat, zentzunen bidez oartzten doguna artzen dabe. Baiña gai ori ondo oartu barik artzen dabenean, gure eretxi ta aburuak oiñarri lokadunak izaten dira, ta beraz arinkeriz kutsututakoak. Ori dala-ta, errez igarri geinke, ume ta gaztetxoan asikera ta ezikeran garrantzi andia dabela, gauzeri ondo begiratu ta aztertzen irakastea, oar-irakaspena gure eretxietan sakonak izateko bide egokia dala edonork daki-ta.

Diñogun onek garrantzi andia dabela ikusteko gogoan auxe cukitea naiko da: gizonaren bizitza, geyenetan, bere eretxien antzekoa izaten dala, eta beraz, eretxietan arinkeriz yokatzen dabena bizitzan be sus-terbakoa izaten dala.

## Arinkeria itzetan

Geure barruko gora-berak agertzeko gizonok erabilten doguzan ezaugarri guztien artean, berea bakarrik dan itz edo berbea langorik ez dago. Ez da arrigarriagorik be. Maragall'ek esan eban lez, berbea, itza da munduan gauzarik arrigarriena, gorputzean eta ariman, gure izate guztian dan arrigarri guztia bertan bat egiten dalako.

Ori dala-ta onerako erabilten danean itz onaren balioko urrerik ez dagon lez, txarra danean be Santiago apostoluak diñoanez «gaitz urduri ta eden ilgarriz bete da». Au antxi-neko esakereak egiztuten dau *miña* onena ta txarraena dala diñoskunean.

Itxasontzia andia izanda be lema txiki batek batera ta bestera erabilten dau, Osagilleak gorputzeko osasuna aztertzeko miñera begiratzen daben lez; norbait barrutik zelangoa dan ezaugutzeko asko laguntzen dau miña zelan darabilten azter-tzeak. Gizarteatzaz bardin esan geinke. Au gogoan dogula geure erriari begiratzen ba' dautsogu, zintzotasunean asko galdu dogula ikusiko dogu, itzetan arinkeria zabalduaz doa-ta. Gatx kaltegarria benetan! Eztabaidako gayetan eretxi batekoak ez diralako, beste barik, edozeiñek aurka edozer eta edozelan arinkeriz itz-egiteak alkar-maitasunari, adiz-kidetasunari ta batasunari dakartsozan kal-teak ezagutu ba'genduz besteren izen onari itzal geyago ta zentzun geyagoz itz-egingo geunke.

## Arinkeria bizitzan

Eretxietan arinkeritik itzetan arinkerira oinkada bat dago eta ortik bizitzako arin-kerira, beste bat. Guztiok dakigu ba, geyen baten, iru arinkeriok batera ibiltzen dirala. Gizon batek zintzotasunik ez dabela esateko buruariña dala esatea naikoa da. Izan be itugiñak goitik bera yausten dira-ta, bizitzan be beste ainbeste gertatzen da: Errokarita-rren esakun zarrak diñoanez: «Buruik ez dan lekian zangorik ez». Gaur egunean nor, nor dan ta norantza yoko daben yakitea gauza gatxa da, eta egin-eginñean be bizitza-arin-keriaren ezaugarri orixe da, eguzkiak nondik urtengo daben zain zapiak ara eroateko gertu dagozanak gero ta ugariago dira-ta.

Apur bat oldoztu ezkerro laster igarri geinke, gure erriarentzat gauzarik kaltegarri-neriko bat arinkeria dala, ta benetan zu-zentzen gatxa, bizitzan asti barik eta iraduz ibiltetik sortzen da-ta. Gatx au bakotxak bere buruari begiratuta osatzen alengin egiñaz bakarrik lortu leikena da. Eta orixe egiten ezipadogu, euskeldun benetasuna galdu ta txoriburuen erri biurtuko gara.

# ALKAR - IZKETAN

## KIROLAK DIRALA-TA

—Zer deritxok, Peru, kiroletzaz barriketaldi bat egiteari?

—Arritzen nok, Manu, ik gai ori aiatzea ez az zale-zalea be-ta.

—Egiñ-egiñean be orrexegaitik diñostat. Gaur esan leikek munduan gauza garrantzitsuagorik ez yagoala. Orixe dokala munduko bizitzaren ardatza.

—Zergaitik diñok ori?

—Ez az konturatu ala? Gizonak alkarren barri yakin eta artu-emonetarako asmau yoazan bide guztiak, kirolari indarra emoteko asmauak dozakala yirudik. Izparringi bat zabaltzen ba'dok eta izkirik andienak eta tokirik geyena kirolen gora-beren barri emoteko izaten dozak. Irratizkiñean eta Urrutikuskiñean kirola dok bezeru geyen yokana. Ardanetxe ta giza-talde yardunetan besterik ez dok entzungo, ostiko yokoan urlie dala nagusi, txirrindularitzan berendie, ukabilketan sandie ta abar. Eta txapeldun diranen izenak ume txikietaraiñokoak agotan erabilten yabezak, edestian, izan diran gizonik ospetsuenak bai'litzozak.

—Ez doat ezetzik esango, baiña go-goan euki bear yoguk, kirola ta yolasa gizonak bearreko yoazala, gorputzez eta arimaz sendo izateko. Antxiñako esakerea dok: «Adimen osasuntsua soin osasuntsuan». Kirolak indarrak geitu, zentzunak zorroztu, burua argitu, naimena sendotu, kemena emon eta bizitza araututen irakasten yok, eta, alde orretatik garrantzitsua dala ezin ukatu.

—Orren aurka nik ez yaukat zer esanik. Nik diñodana dok gauzak bere tokitik ez dirala atara bear, eta bako-

txari bere garrantzia bakarrik emon bear yakoala. Onetan eugaz ñagok. Nozik bein zerbait geitxoaga emotea, esaterako, ointsu Munik'en ospatu dozakan Olinpiadako txapelketan lez, yakiña, kirola erlejiño maillan ipiñi barik, batzuk ipinten yabenez...

—Kirol-zaletasuna bizibidetzat artu yoanak garrantzi andia emotea ez dok arritzekoa. Ni, arritzen ñokana dok egundo bat emon ez yabenen artean ain *zalekeri* andia ikusteak.

—Egungo ostiko bat emon ez yabenen kirol-zaletasuna, oin esaten dan lez, «oorezkoa» bakarrik dok orren ostein besterik ezpaillegok, ez litzakek *zalekeri* biurtuko.

—Bayakiak zer esan gura dokan. Osteko ori «kiñielak» izango dozak eztok?

—Egiñ-egiñean orixe dok ba! Badakik orrek zenbat ostiko-yoko «zale» egiten yoazan? Kontu atarateko auxe gogoan eukitea naiko dok: Aste bako-txean 320 *milloi* pesetatik gora batzen dozak «kiñielelan» bakarrik. Ortik ataraik kontue «saltsa» orretan zenbat sartuta egongo dozakan.

—Ez gitxi beintzat. Eta tamalgarrria dok ainbeste diru eralgitea yokoan, ainbeste estutasun eta zoritxar ikusten dan aldi onetan.

—Gizonak olantxe gozak, umeen antzera yolasak benetan artu ta benetako gauzak yolasean. Eta olan yarraituko yoala uste yoat beste gauza benetakoa ganako aukera geyago emoten ez yautsen bitartean.

—Edo ez ete dok izango gizonik geyenak ume andi batzuk diralako?

—Ba-leitekek ori be! Eta auzi ori guk ezin geinkek ebatzi ta olan itxi bearko yoguk.

—Agur ba urrengorarte.

URIGOITIA

# AGERTU-NAIKERIA

*Norbaiteri burubakoa dala adirazoten emoteko, ba-dogu euskeraz itz bat oso egokia: Kirtena. Destañez norbaiti esaten yakonean minkorra da, ta sarritan entzuten dana izan arren, ondo ez dagola deritxot; kristiñauak bere geidiari itzala beti zor dautso-ta. Alan da be, zusterbako eretxiak zabaltzen dabillinari, asmo txar barik «kirtena» dala esatea egi andi bat izango litzake, erdi-egi ta guzur zabaltzailleak ondo irabazia dau-ta.*

*Baiña ori alde batera itxita, itz ori iñor iraindu barik erabilli leikela uste dot. Ara zergaitik. Gaur egunean eretxi asko zabaldu dira gure artean, batez be gazteen artean, Eleiza-gayetzaz, gizarte ta Euskera gayetzaz be, kirtenkeri izena ondo irabazita dabena.*

*Zar dala-ta? Guztiok dakigu kirtena zer dan. Atxur, aizkora naiz edozein langai edo tresna bategaz, lan egiteko kirten bat bear izaten dogu, ta atxur-kirten, deitzen dautsogu. Eta norbait atxur ala aizkoreagaz kirten barik lanean ikusiko ba'gendu, kirtenkeri bat egiten dabela esango geunke, ta atxur ta aizkora barik, kirtenagaz bakarrik yardungo ba'leu, kirtenkeri andiagoa izango litzake, bitzuok dira bearrekoak-eta. Ba, len aitatu doguzan gayetan orretantxe diardue gaur batzu-batzuk... Eta ori kirtenkeria dala iñork ez dau ukatuko. Ta, euskeranto-zaleentzat «kirtenismoa» deituko neuskio.*

*Norbaitek uste izan lei bere senean dagonak olangorik ezin leikela egin. Ez naz eretxi orretakoa. Ba-dira ba, gizon ikasiak edo ikasitakotzat dagozanak, griña txarrez, buru gogorkeriz, ez yakiñez, atzeratukotzat artuko dituen bildurrez, baita besteak esan ala egiten dabelako beste berik, bide orretatik dabiltzazanak. Eta au benetan tamalgarria da, kalte andia egiñez gaiñera, ondo dagona txarto ipiñi, txarto dagona zuzendu... ez, euren buruari kalte egin, indarrak eta astia alperrik galdu, ta alegin guztiak ingurua ondatzeko bakarrik izaten diralako.*

*Kirtenkeri edo kirtenismo orren aurka, gogor yokatu bearra daukogu; gitxi izan eta sakabanatuta gagoz euskaldun kristiñauok.*

# ZER EDO ZER

## JAQUES MARITAIN

Irakurteko zaletasun apur bat dabenen artean, beintzat, gitxi izango dira yakintsu ta pilosopo onen izena entzun ez dabenik. Urte gitxi dirala alargundu zanean, Charles Foucauld' en «Jesus'en Anayetsuen» artean sartu zan, eta bere 89'gn urtean «L'Eglise du Christ» idazti ederra argitaldu dau. Aurten erderaz be argitaldu da.

## EGIZALE ZINTZOA

Maritain «protestante» sendian yayo zan. Gaztetan Bergson, prantzetar pilosopo ospetsuaren ikasle izan zan. Eta irakasle aren eretxiak asetzen ez ebelako, idazti bi erantzuteko idatzi zituan. Eta ain ederto idatzi be, Bergson'ek berak autortzen eban iñork be bere irakatsiak ain ederto ez ebalazala aztertu. Egi egarriz beti ebillen. Eta ezin ebalako aurkitu, amasei urte zituala lurtean biraka ibiltzen zan negarrez egia billatu ezin ebalako. Ori baiño geyago. Bere emazte izango zana gaz artu-emonetan asi zanean, biak egia billatzen ezpaeben euren burua ilteko itundu ziran. Baiña Yaungoikoak, egibilla dabiltzanai, beti laguntzen dautse ta, katoliku-egia eza-gutzeko zoriona izan eban. 1906'gn

urtea zan. Arrezkero zintzo ta eten barik yokatu dabe Akiño'tar Tomas deuna gidaritzat dabela. Prantzia'n irakasle izan ondoren, Europa'ko bigarren gulgaldian Ipar-Amerika'ra aldatu ta Prizenton'eko Ikastetxe Nagusian irakasle izan da.

## IDAZLE UGARIA TA SAKONA

Zenbatu ezin ala idazti argitaldu ditu. Pilosopi gayez gaiñera, geyen bat, gizonaren nortasun, duintasun eta azkatasunaren aldezkoak bere esku-bide ta erantzupenak azaltzen. Egia azaltzen dabenak beti dituz arerioak eta lenengotan bera txalotu ebenak batzuk be aurka yarri yakozan, sarri oi dan lez, baiña bere bide zuzenetik ez da iñoz aldendu. Batzuk bakarririk aitatzerren: «Humanisme Integral», «Primaauté du L'Esprituel» eta «Les Degrés du Savoir» irakurgarriak dira. Gogo-gayetan barriz idazti sakon eta gorengo maillakoak bere emazte Raisia'gaz bitsuon zintzotasuna ta biotz andia oparo egertzen dabenak. Gaurko zein geyagoka ta txapelketa aldi onetan, zintzotasunean ta kistar-bizitzan «txapeldun» diranok aitatzea egoki deritxogu ta, zer edo zer idaztea egoki izango dala deritxot.



# BAKEA - I

## BAKEA BAI DALA GAUZA EDERRA!

Ez dot uste lurbira guztian, egi andi au ukatuko daben «gizon zintzorik» aurkitu leikenik. Egi au, Kristo gure Yaunak argiro adirazoten emon euskun, «Zorionsuak bakezale diranak» esan ebanean. Izan be, guztiok ikusten dogu, bake barik ez dala zorionik. Eta gaurko aurrerapen guztiak gora bera, txitean pitean gudea sortuko ete dan bildurrez bizi garealako, Aita Santu VI Paul'ek, bein eta sarritan, bakearen alde lan egiteko eginbearra daukela gizon guztiei eskatzen dautse. Orretarakoxe izentau eban Urtarrilla'ren lenengo eguna «Bakearen Egun», bakearen alde lan eta otoitz egin dagigun.

Bakea ain gauza ederra da izan be! Eta ori gudaldian ikusten da ondoen, osasuna, ondasunik ederrena dogula, gexorik gagozanean ikusten dogun legez.

## BAIÑA BA-DA EGIZKO BAKEAREN ONDOAN...

Guzurrezko bakea, diru onaren ondoan guzurrezkoa, argiaren ondoan illuna agertzen dan antzera. Eta, tamalez, batzu-batzuk, orixe naikotzat artzen dabe. Yermias'en aldian esaten eben legez: «Bakea, bakea, esaten dabe, baiña ez da bakerik». «Bake» (?) orreri «sasibakea» deitu geinkio. Esaterako, lapurrak, al daben guztia ostuta gero, bakean itxitea nai izaten dau; indarkeri zalea, burrukan bestea azpiratuta bakezale agertuko yatzu; geldoak bakean, itxi dagoela esango dautzu, ezer egiten ez dabena bakean dago, ur geldia be bai, ildakoa esan bearrik be ez. Baiña bere senean dagonak, ez dau nai olango bakerik, bake orren ondorena ustelkeria baiño ez da-ta.

Egizko bakeak, bizia, eragiña izan bear dau, norberekeriak kutsuta bakoa, maitasun-bizitik sortzen dana, barrutikoa. Eta bake au, barruko gauzakaz gertatzen dan legez, askozaz errezagoa da somatzea, zer dan azaltzea baiño. Gizonik ezyakiñenak be ba-daki egizko bakea non dagoan.

## BAIÑA BAKE AU GIZONEN ARTEAN LORTU GEINKENA ETE DA?

Auxe da edozeñeri bururatzen yakona. Edestiari, beti yazo danari, begiratu ezkerro, gauza eziña dala dirudi. Izan be, Yakitunak esaten dabenez, gizona munduratu zan ezkerotik, 8.000 guda izan dira eta beste ainbeste bake-itunbe. Gizonen artean guda ta burrukea beti izan dira. Indarkeria, nai non eta noz nai izan da nagosi. Azkenengo laterri-arteko 1945'gnean maitu zan. Eta arrezkerro be, 50'etik gora guda txiki ezagutu doguz, eta beste 200 zelan edo alan Laterri-Alkartasunak (ONU'k) galerazo izan dauz, Eta ordutik ona bake antzean bizi dira, eta gara. Zergaitik? Aundienak, indartsuenak, une baten munde guztia ondatzeko gertu dituen atomika tresnak eukiez gainera, aginetaraiño iskilluz ornituta agertzen diralako; bildurrak zaindutako «bakean» bizi gara. Begira besterik ezean Vietnam'en illa bete onetan gertatu dana! Olango triskantza lotsagarririk!... Nok uste izan leike ba, gizonak bakean bizi daitekezala?

## ALAN DA BE, BAKEA LORTU EZIÑA, EZ DA

Auxe argiro esan dausku gure Aita Santu VI Paul'ek 1973'nggo Urte Barriz, «Bakearen Egunean»egin daben itzaldian. Iksuten doguna ikusita ames bat dala dirudi. Baiña ez da. Zergaitik? Gizonak, yatorrizko obena dala-ta burruka-zale izan arren, bere biotzaren barrenean zorionsu izateko egarri bizia dau, bere alegin guztiak, bide okerrez ala zuzenez, zoriona lortuteko egiten ditu, ta zorion ori bake barik ezin yaritxi daikegu. Biotzeko griña txarrak eziten ez dakien biurri ta iraultzaileak, zarata asko egiten dabelako, sarritan uste izan leike gizona bakean ezin daitekela bizi. Baiña gogoan euki bear dogu, gizonik geyenak, gitxi batzuk izan ezik, bakezaleak dirala; ixillean lan egin eta euren eginbearra dabez sendia aurrera atarateko. Zarata asko burruka-zaleak ataraten dabela ta ez bildurtu!, «motozicleta» batek eun «bizi-kletak» baiño zarata geyago ataraten dau-ta... Nai ta nayez maite dozun zoriona yaritxi nai ba'dozu, bakea erein, bakea zaindu, bakea lortuten alegin guztiak egin, beintzat zeure inguruan eta lenengo zeure barruan bakez biziten aleginduaz, eta orduan Paul Aita Santuak esaten daben lez, zeuk be: Gizonen arteko bakea lortu eziña dala ez dozu esango! Eta ez ziñestu bakea lo eginda etorten dala, lotan dagonen bakea «guzurrezkoa» da-ta. Egizko bakea lortuteko zer egin bear dogun, urrengoan azalduko dautzuet.

(Yarraitzeko).

GAMA

# BAKEA - II

## Bakearen oiñarriak

Edonok daki, bake sendo sakon eta iraunkorra izango ba'da ondo oiñarritua izan bear dabela. Zeintzuk ete dira ba oiñarriok? Sarritan aitu diranak, baiña iñon be bete ez diranak. Datorren Yorraillan amar urte izango ditu, XXIII Yon'ek ainbeste txalotu ebenak emondako, ta ondo-ondo baztertu daben «Pacem in Terris» agiri ospetsuak. Labur eta argiro, bertan azaltzen dauskuz benetako bake iraunkorra lortutekoak: Egia, Zuzentasuna, Maitasuna eta Aukeramen edo Azkatasuna. Orretarako, yakiña, Yesu-Kristo'k irakatsi euskunez, benetako gizon eta kristiñau izan gura dabena «bere burua ezi» bear. Lau gauza oneik alkartuta yon bear.

Egia, argia begiarentzat legez, gure adimenarentzat bear-bearrekoa da. Gauzak, goiko ta bekoak, diran lez, ez geyago ta ez gutxiago, ezagutzeko argia da. Zuzentasun'ak gauza bakotxa bere tokian zaindu, bakotxaren eta sendi ta errien eskubideak aintzat artu ta yagon. Maitasun'ak zuzentasunaren ertzak leundu, artu-emonak gozatu ta anayak garealako guztiok alkartu egiten gaitu. Eta azkenez Aukeramen edo Azkatasun'ak, oldoztu, zihestu ta egiten daben gauza guztietan, batez be, bata-besteganako artu-emonetan, yakinez ganera egiten doguzan gauza guztietan, Erantzupenez yokatu bear dogula eskatzen dausku. Au egingo ba'litz, a ze BAKEA!...

## Lau oiñarriok batera, ala ez da Bakerik!

Esan bearrrik be ez da, alkarri dautsela izan ezik, ezin daike bakerik lortu-ta. Norbaitek erantzun leike: Ori olan ba'da, gizonen artean bakea yaritxi leikela esaten amesetan ibiltea da. Bai, gizona, gaur dan lez izanda, alanixe izango litzake, bake oso ta betikoa lurtean gagozan artean lortu leikela esatea. Bake oso, guztientzako ta betikoa zeruan bakarrik!... Baiña emen bizi garean artean, bear ba'da ames bat izan leiteke, baiña ez guzurrezko amesa, egiztu leikena ta egiztu bear doguna baiño. Eta egiztu al ba'dogu, guztiok daukugu zeregin orretan gure eskuak ipinteko eginbearra.

Gudearen alde egiteko egiten diran alegiñak, bakearen alde egingo ba'lira, ta gudan ta gudarako gertatzeko eragiltan dan ondasuna bakearen

alde eralgi, nok ukatu bake geyago ikusiko gendukela? Kontu atara, orretan aituak diranak esan dauskuenez, 1972'gn urtean bakarrik berreun milla milloi dolar gudarako izkillu ta tresnetan eralgi dira (dolar bakotzak irugei peseta balio ditu, begira zelango diru moltsoa). Eta danak gizonak ilteko! Basa piztiak ilteko ba'lira be!

Alan da guzti be.

## Ba-dira ta asko izan be bakea lortuta dagoala diñoenak!

Guzurra dirudi baiña, Aita Santuak garbi diñosku bere itzaldian. Bakeatzaz itzik egin ez dagian abots-taldeak diñoitsoela, bultz egin eta, berak diñoenez, «itxo» egiten dabela, esanaz: «Bakea lortu al dan gauzea bakarrik ez da, lortuta dago-ta». Egia da bakea zaintzeko laterri-arteko bazkunak guda batzuk galera; aginpidea dabena asarreak ibituteko batzarrak egin, alkar-izketak eta abar, ta beste barik bakea lortu dala esatea, gudan «negosioa» egiten dabeneztat, eurak ondo bizi dira-ta, aitu leiken gauzea da. Baiña ori bakea dala esaten dabeneri auxe erantzungo geunskio: Itandu egiezu Vietnam'darrai!... Zer esango genduke, Bilbo'ra eldu ezin dan bultz edo tren bat Zugutzu'ra eltzen danean Bilbo'n dagola esango ba'lebe? Orixe da bakea ez danari bakea deitutea be! Alkar-aituko ba'gara gauza bakotxari bere izenaz deitzea lenengo egin bear dana da.

## Eta azkenez...

Bakezaletzat geure burua euki gura ba'dogu, izen ori maite dogun guztiok, egiz eta egitez, bakearen alde, gogoz eten barik guztiok eta bakotzak al dogun eran, itz eta idazkiz bake azia ereiten ekin eta ekin... Olantxe bakarrik lortuko dogu-ta ain maite dogun Bakea gure artean ikustea.

Eta ez gizonak euren alegiñaz yaritxi leiken Bake urria bakarrik, Belen'go estalpean aingeruak iragarri eben zerutar Bakea be bai. Au da: «Kristo'ren Bakea, Kristo'ren Bakalderrian». Bake au opa dautzuet AGUR'eko irakurle guztioi. Urte Barri onetan.

# ZER EDO ZER

## EMAKUMEAK ZELANGOA IZAN BEAR DAU?

Eskozitarrak esakera bakan asko ditue, ta euron artean ara itaun oneri emon dautseena: Emakumeak, alde batetik, sutondoko lapikoen antzekoa izan bear dau, etxea alai eukiten; baiña lapikoan antzekoa ez dau izan bear, etxe guztia lurrunetan ipinten.—Erriko etxean izaten dan erloyuaren antzekoa izan bear dau, ordua ondo zaintzen; baiña erloyuaren antzekoa ez dau izan bear, erri guztian bere otsa zabaltzen, berriketari dabillenean.—Marraskilloan antzekoa izan bear dau, etxea zaintzean; baiña orren antzekoa ez dau izan bear, etxe guztia gainean errotan.—Arri-bizi, aiñots edo oyartzunak antzekoa izan bear dau, baiña azken-itza esan guran ez dau aren antzekoa izan bear, itz-egitean azkenengoa izanda.

Ori asmatu ebana ez zan leloa izan!

## ATXEA DALA-TA, ERETXI BATZUK

Aita Kardaberaz'ek «Eusqueraren Barri onac» idaztitan, izki ori alperrekoa dala diño. Jose Antonio Mogel jaunak «Peru Abarca»ri ezarri eutson erderazko sarreran, diño (argitalde barrietan jartzen ez ba'dabe be): «Aita Kardaberaz'ek diño Euskeran izki ori alperrekoa dala. Larramendi'k nozbait erabilli leikela, era bitara aitu leikezan itzak berezteko, idazten danak oguzkereagaz batera yoan bear dau. Ipar-euskaldunak izki ori lan guztietan erabilten dabe, ta ori itz asko beste era batera ebagiten dituelako egiten dabe. Gure belarrientzat oguzkera baldar eta atsegea da. Asko dira an erabilten dabenak, baiña beste euskeldunontzat, iñoiz ez dogula erabilten, eragozpide andia da». Azkue jaunak, bere Istegi D. V. E. F.'en diño: «Sorkaldeko euskaldunak eurak daukielako, bear dan baiño garrantzi aundiagoa emoten dautsoe. Sarkaldeko euskaldunak oster, erabilten ez dabelako, bidegabeko gorroto... H, ezerez bat baiño ez da, beti lepotar, kaltegarri iñoiz be ez, geyenez gogaikarri, iñoz onuratsu». (I ataleko 373'gn orrialdean).

Alan da be, batzuk zerbaiten ezaugarritzat artu dabelako, egundoko nastea ta zerbait geyago sortu dau euskaldunon artean...!

# Alkar Izketan

## UKABILKETA EDO «BOXEOA» DALA-TA

—I, Manu, lengo egunean yolasak dirala-ta euki giñoan yardun-aldi ostean etxera niñoala, konturatu nintzoan, oin ain zabal yabillen «ukabilketa» ez giñoala aitatu. Ez deritxok ba, yolas (?) orretzaz zerbaít esatea?

—Egin-egiñean be, neuk be orixe buruan noala yoan nintzoan, Peru, baiña aitatu doan ezkerro, gai orretzaz egi batzuk esatea egoki izango dokala uste yoat.

—Bai-yakiat, «astakeri» orretan diru asko tartean ibiltzen dok-eta, batzu-batzuk «atzeratuak» goazala esango yoela, baiña egia esatea aurrerapidea dala ez yauskuek ukatuko.

—Izan be, giza-gorputzaren osasun eta edertasuna gauzarik arrigarriena dok, Yaunak emon yauskuzan gauzen artean. Ori dokala-ta, yolas egitearren bakarrik galbidean ipintea, giza ta kristau-zentzunak erakusten yauskuk ondo ez yagoala. Bosgarren agindua argi yagok: «Ez dozu inor ilgo».

—Orren aurka ez yoat uste inor izango dokanik, gauza eder bat, beste barik, apurtzea, edozeiñek txartzat artzen yok-eta. Kontu egik mutiko batek leyar eder batzuk arrika apurtzen ba'yozak guztiak «basati» bat dala esaten yabela eta zuzen esan be.

—Olantxe dok. Eta gizon bat, asarre barik, yolasean yo ta zelai, konorte barik lurrera bota, ta txalo baten lainoetaraño goraltzen yabek giza-gurena bai litsoan. Eta izparringi, irrati ta urrutikuskiñak, emoten dautson garrantzia. Batez be izparringiak izkirik aundienak, eta orri osoak betetan yabezak. Eta gaiñera, Bilbao'ko batek «belisimo deporte» deitzen yautsoan. Ori zelan aitu leikek?

—Ezelan be ez, «Basatikeri eder bat» dokala esan ba'yoan be. Eta ori txalotzen dabenak zer?

—Euren antzeko edo txarrago. «Zibilizauta» dagoanik ez yaustek nire buruan sartuko. Burrukalariak beintzat diru ugari irabazten yabek-eta, aitu leikek...

—Izan be, geidea, betondoak anditu ta odola dariola, konorte barik ikusita txalotzeko gogoa yokana, eñeukek esango neuk be «zibilizanaua» dokanik.

—Zuzen ago, Ta ez yoat uste, oin ainbeste aitatzen dokan gizonaren duintasuna, ainbeste aitatu ta goraltzen dokan aldi onetan...

—Orixo diñoat neuk be. Osasuna zaindu ta bizia luzetzeko ainbeste alegin egiten dokan aldi onetan, osasuna galdu sarritan, eta bizia be ainbat bider orretara dakarren yokoa, nik galerazo egingo ñeukek.

—Ez deritxok ori gogorregi artzea dokala?

—Gogorregi diñok. Gabiola, markiñar morrosko ederra, oin berrogetak urte inguru, yota ilda bota yoanean, «Razón y Fe» Madrid'eko aldizkarian yosulagunak idatzi yoen eriotza negargarri a gizon-erailtze lez, lege zigoritu bear zoala.

—Ori nozbait yazo arren, beste yolas batzuetan be yazoten dok, beste barik ain gogor artzea be...

—Orretan oker ago. Ori ez dok nozikpein bakarrik gertatzen. Yoko-arauak berak eskatzen yok ba, K. O. egiteko amar segunduan konorte barik egon bear yokala, baiña orrez gaiñera, eurak esaten yoanez «puntutz» irabazteko be, burrukatzen diranak buruan artzen yituan zartadak kontuan artzen dozak. Ori burrukak berak eskatzen yokana dok, ostean ez yagok irabazterik...

—Olan ba'dok ba yoko ori bosgarren aginduaren aurkakoa dokala esan bearko yoguk.

—Ba, olantxe dok, yoko ori dokala-ta, erdi lelotuta, osagilleak esaten yoenez aintzat artu barik.

—Ez ñoan uste ainbesteko astakeria dokanik. Baiña gauza bat yakin gura ñe-

# BURU GOGORKERIA

## Arinkeria ta burugogorkeria

Lengo baten arinkeria gure artean zabalduaz doan gatxa aitatu gendun. Gaur, beste ertzean dagon buru-gogorkeria dala-ta zerbait esango dogu. Biok dira gizonak alkar aitu eziñaren zuster kaltegarri. Izan be, egia ta zuzentasuna ainzat artzeko astirik ez dabenakandik, eta buruan sartu yakelako beste barik diardunakandik, gizarteak, gauza andirik ezin leike itxaron. Azkenengo oneik talde bitarikoak izaten dira. Batzuk buru txikikoak, munduari zulo txiki batetik begirutzen dautsoe ta gauzak diran lez ezin ikusi. Beste batzuk buru andikoak, edo alan uste dabenak, besteai goitik bera begirutzen dautsenak, guztia dakiela-ta, eurenetik atara ezin leikezan buru-gogorrek. Olangoak ugari ezpalira... mundua beste bat izango litzake!

## Asko yakitea, yakituria ta zentzuna

Asko dira gizon buru-argi ta ikasitakoak ta buru-gogor diranak «zentzumik» ez dabelako. Baten batek itandu leike; ori zelan izan leiteken? Errez, yakitea ta zentzuna bardiñak ez diralako. Txesterton, iñor ba'zan ba-zan. Gogo-argiko ingalandar idazle ospetsuak, esaten eban zoroa baiño gizon «errezoikoagorik» ez dala. Esaterako, zoro batek uste ba'dau mundu guztia berari begira dagola, bera yarten dan tokitik iñok baiño «errezoai» geyagoz itz-egingo dautzu. Ezta-baidan ez dautso iñok irabaziko. Norbaitek begirutzen ba'dautso naiz itaun bat egin, naiz lagun bi itzketan ikusi danak beragaitik egiten dabela uste dabelako. Eta ortxe dago bere okerra; zentzuna galdu dabelako. Munduan bizi diranak berari begira egotea baiño ardua geyagotzen dute buruan sartuko ba'litzakio «zorotasunetik» osatu egingo litzake.

Ortik igarri geinke, asko yakitea, «errezoiz utsaz» ibiltzea, yakitea, ta zentzuna ez dirala bardin.

## Ikasibakoa ta Zentzunduna

Sarritan ikusten ditugu, ikastoletan luzaro ibillibako basarritarrak, edozein erabagigai naiz auzitan euren eretxia emoten dabenean, ikastuntzat dagozanak baiño bidezko ta zentzun geyagoko burua agertzen dabela. Gizonaren yakituria ez dago gauza asko yakitean, zentzunez yakitean baiño. Eta zentzuna ta yakituria ez dira ikastoletan saltzen, ori Yaungoikoaren emoitzea da. Eta geyen bat apalai emoten yake. Erantzunkerizko «izurri» aldi onetan gogoan euki bear geunken egia da.

## Buru-gogorkeriaren zuster

Ezyakin artoa buru-gogorra izaten da, baiña sarritan yakitun artoa ez gitxiago. Arrokeria, barriz, gitxi-asko gizonok geure barruan daroagu. Orrek zorrozten dauskuz begiak, bestean akatzak ikusteko, ta geureak ikusteko itsutu. Ba-leiteke ortxe zusterria izatea. Basteen akatzak ikustea gauzarik errezena da izan be! Baiña norbere burua on, zuzenzale agertzeko ori naiko ez dala edonok daki.

Andiustez yota dagozanak be orixe egiten dabe. Ez dabe aztertalerik nai, ez «errezoirik» ez onularirik, euren guraria bakarrik dabe gidari: zer dala-ta gauzak goikoz bera irauli gura itanduten ba'dautsozu, auxe esango dautzue: Ba, nik alantxe gura dot eta kitu».

Aldi baten Hüller'ek be orixe egiten eban. Gizarteko «gripe» ori izazkorra ezpa'litz!

## Buru-gogorreko izatea, beti ete da kaltegarri?

Buru-gogor izatea egi ta zuzentzaren alde ta bide zuzenez yokatuta, kaltegarri danik ez da esan bear «keri» ori kendu ezker, eginbear biurtzen da-ta. Eta egi ta zuzentza alde yokatzen dabenen guztientzat. Olan danean, baiña, burugortasu edo setatsu izatea dala obeto egongo litzake, eragozpen guztien gañetik bide zuzenetik yarratzen dabenak beti goragarri izan, eta diralako.

Ori dala-ta, buru-gogor, bere erri, izkuntza naiz beste edozein gayetan zintzo, ta eten barik, zuzentzaren alde yokatzen dabeneri setatsu deitzea, eta orretan, oraintzuarde beintzat euskeldunak entzute onekoak izan gareala iñok ez dau ukatzen. Urrengoan Y. l. onetzaz zerbait geyago esango dogu.

# ALKAR-IZKETAN

## UKABILKETA (BOXEO) DALA-TA (II)

—Manu, lengo alkar izketan bide erdian gelditu gintoazan eta gaur yarraitzeari zer deritxok?

—Nik uste yoat onango gauzak garbi azaldu bear dozakala. Osagilleak argi esaten yabek kirol ori osasunarentzat kaltegarri dokala, eta alde yagozanak be, begien aurrean yagiana ezin ukatu leikiak.

—Ik esan dokana egizatuteko ondo izango litzakek burruka orretan bertan zenbat il dozakan yakitea.

—Nik dakidana esango daustat. Paris'ko izparringi *La Croix*'ek 1949'ganean 18 il zozala argitaldu yoan. «*Look*» ipar-amerikar asterokoak 1950'ganean, «*ring*»ean, 48 il zozala iñoan. Carlos S. Jose, Bernard Dadau nigeriatarra il yoanean «*Ecclesia*» Madrid'eko asterokoak esaten yoan gizaldi onetan ukabilketan il ta luze ziranak 450 izan zirala.

—Naikoa dok, mutil, ukabilketa ori baztertu bear litzakela eskatzeko.

—Yoadi ori esaten, ikustearren bakarrik millaka pesetak ordaintzen yoenai.

—Ondiño geyago. Burrukaldia laburra dokanean, or ikusiko dozak asarre bizian.

—Dirua tartean yabillenean, zentzuna baztertuta sarritan ikusiko dok.

—Or be dirua nagusi?

—Zer uste dok ba. Olan, amerikar burrukalarari ospetsu batek esaten yoan, berak minutu ta erdian bakarrik *milloi bat dolar* irabazia yokala.

—Ori ez yagok erdi zuzen be. Ez dozak ikusten ba 50 urte ta geyago lanean zintzo yokatu urteak dirala-ta, lana itxi bearrean aurkitzen dozakenean aukera andi barik bizitako lain bakarrik irabazten yoela, eta burrukalarari orrek minutu ta erdian milloi bat dolar! . Ta gero or ibilliko dozak munduko ondasunak txarto bananduta yagoazala esaten!

—Ori beste kirol batzukaz be yazoten dok «astakeriz» ukabilka orren maillara eldu ez arren, ba-kik ba, erdeldunak esaten yoenez «txakurrak be diruagaz dantzan» egiten yokala.

—Dana dala, nik ikusten yoadana auxe

dok: kirol ori gero ta geyago zabalduaz yoakala, ta gizonen biotzari gogorkerira bultz egiten yautsola, gudan yazoten dokan lez.

—Ez dok ori txarrena. Ona ta txarra zein dan igarteko zentzuna apur-apurka galtzea txarrago dok, azken baten, gizon ta kristiñau gareala aztuta astakeria ontzat emotera eldu geintezek-eta.

—Izan be gizona, gogorkeri ta basatikeri guztiakaz igarri barik oitu egiten dok.

—Bai kortan be orixe yazoten dok. Sartzen goazanean atsagaz atzera egiten yoguk eta apur bat gerotxoago konturatu be ez gozak egiten.

—Gizona olantxe dok eta beretzat orixe dok kaltegarriena. Zuzentasunik-eza, gaiztakeria ta astokeria ikusten oitutea, orregaz gizatasuna urritu lez egiten yakok-eta. Gizaldiak zear, yopu edo esklabuak euki ta saldu ta erosi naiz il gauza ezeretzat artzen zoon, eta neke ta alegin egin bear izan yoazan Eleizeak basatikeri ori baztertzeke. XIX gizaldirate legezkoa izaten zoon. Yesu-Kristo'k ia oin bi milla urte, gizonen anaitasuna ta maitasuna azaldu arren.

—Ori esaik. Kristo'k gizonen artu-emone-tarako legetzat gogorkeri ta indarkeri orde maitasuna dala irakatsi ta, ainbeste asmakizun eta aurrerapen guztiak gora bera, yentillen antzeko oiturak kristiñau artean txalotzea, nik ez yoat ulertzen.

—Neuk be ez. Ori aurrerantza yoatea baiño atzerantza egitea geyago dokala ezin ukatu leikek.

—Ba mundu «zibilizau» onetan olango gauzak ugari ikusten dozak.

—Ba, gaur zabalkunderako izparringi, irriti ta urrutikuskiñak egiten yoen zabalkundeari nik ez yakiat zer egin leiken.

—Ixillik ez egon beintzat, eta besterik ezean, gure asarrea agertu naizta, orru baten, «atzeratuak» gareala entzun bearra euki. Egia esatea txalogarri dok beti be.

—Ori egiñaz geure eginbear bat baiño besterik ez yoguk egingo.

—Gaurkoz naikoa izan dok eta Agur!...

# Buru Gogortasuna

## BURU GOGOR TA SETATSU IZATEA

Buru-gogorkeria kaltegarri ta ondoren onik ez dakarrela azaldu ondoren, buru-gogortasun ta setatsu izatearen alde zerbait esatea egoki izango da. Norbere aburuak oiñarritu ta ondo aztertu ta gero, eragozpen eta oztopo asko aurkitu arren, iraupenez eta zintzo beti aurrera yarraitzea, bere senean dagonak ontzat emongo dau. Bein bide zuzena artu ta aurrera yarraitzen gitxik irabaziko dautso. Eta beti be, euskaldunak atzera egitekoak ez dirala, «don Kixote»n egilleak argiro azaltzen dausku, ameslari arek bizkaitarragaz izan eben burrukea edesten dauskunean.

## EUSKALDUNAK BURU-GOR EDO SETATSU

Euskalduna, geyenez, izakeraz buru ariña ta aldakorra dala-ta, iñok ez dau salatzen. Egiz, euskaldunari akats asko atara leikioz, baiña ekiten eta setatsu izaten gitxik irabaziko dautso. Gizaldiak zear beste askoren artean or doguz Loyola'tar Iñaki ta Xabier P. deunak, Elkano ta ainbeste giza-guren. Geure egunetan or dogu Lavigerie Kardenala, berak sortuta «Aita Zuriak» deritxoan mixioneruen bidez Apirka'ko yopu edo esklabuen alde iñok baiño geyago egin ebana. Bayona'ko seme onek esaten eban: «Ni euskaldun naz, ta bear danean buru-gogor». Eta zer dala-ta ez doguz aitañoko Azkue, Olabide, ta ondiño zorionez lanean bizi dan gure Barandiaran Joxe Mikel yaunak? Gure erri, izkuntza ta oituren alde egin dabena, oindiño aurrean daukogu-ta; mendien antzera, gerokoak urriñagotik obeto ikusiko dabez. Beste era batera ba'zan be, euskaldun buru gogorra izan zan benetan, Saint Cyran Abatea. (Bayona'tarra au be, bere abizenak Hauranne ta Etcheberri ziran). Geyen gailendu diran euskaldun guztiok euskaldun izakerearen eredu lez aiatu geinkez. Onek ez dau gura esan euskaldun guztiak orretan bardiñak diranik, bedar onen ondoan txarra be alde guztietan sortzen da-ta.

## EUSKALDUNAK ERBESTEAN

Euskaldunak ekin eta yarraitzen yayoak diralako, baita emondako itza zintzo betetan dabelako, erbestera doazan euskaldunak entzute ona zabaldu dabe, batez be Ameriketan. An euskaldunen itza zin-egitea lez artzen dabe. Ara au egiztuten dabean yazokun bat. Ukayali (Peru'n) orain urte bi inguru il zan B. Uriarte'k zeauritar Gotzainak edestu eban: Gizon bat ostatu batera yoañ zan bertan gelditzeko asmoagaz. Ostatuko uga-zabak bayetz esan eutson baiña sei illabete baiño gitxiagorako ez ebela artzen.

Ez ekian nor zanik, eta agiri bat ekarri eutson izenbetzeko. Gure gizonak agiria izenbetuta biurtu eutsonen ta abizena ikusi, itandu eutson:

—«Ikusten dodanez, zu euskalduna zara, ez da?» — «Bai, erantzun besteak». Orduan ostatuaren ugazabak esan eutson: «Euskalduna ba'zara, ez da bear papelik». Ori esan eta bere aurrean apurtu egin eban, Orregaitik dabe esakera au: «Euskaldunan itza».

## SETATSU IZATEAK BE BA-DITU ARRISKUAK

Ekin eta yarra berea aurrera eroaten oitzen danari yazo leikio larregikeriz garrantzi andirik ez dabena be benetanegi artzea, eta ortik alkar-artu eziña, eztabaida ta asarrea, ta indarrak eta astia alperrik galtzea. Sarritan aztu egiten yako alkar-aituta gauza txikiak andi egiten dirala, ta asarreagaz andiak alperrik galdu. Gauza bakotxari bere garrantzia emoten yakitea gauza ona da ba.

## ORRETARAKO ARAURIK EDERRENA

Agustin deunak antxiña emon eban: «Bear-bearreko gauzetan batasuna, eztabaidakoetan azkatasuna ta gauza guztietan maitasuna». Au bizitzako yokabide guztietan gogoan euki bear litzaken urrezko arau da. Eta, yakiña, euskera gayetan be bai... Orduan, ainbeste indarkeri, yauntxokeri ta satorkeri ez genduke ezagutuko. «Sasi-batsunaren» ordez gure izkuntzeaganako benetako maitasunak alkartuko gindukez, guztiok batera, gogoz eta eten barik lan egin ezkeru, ito gura gaituen alegin guztiak ezereztuko litzakez, eta gorago aiatu diran euskaldun goragarrien oiñatzai yarraituaz, negu gogor onen ostean Euskerearentzat udabarri loratsu ta itxaropenez bete gertuko geunke. Ekin eta yarra ba!

# Zer Edo Zer

## KOPERNIKO'N BOSTEUNURRENA (1473-1543)

Aurten beteten dira bosteun urte Mikolaj Koperniko Tkorno, Polonia'n yayo zala. Langille zintzoa, ikastun neke gaitxa, ta adimen zoli ta zorrotzekoa. Bere ikasketak Krakobi ta Italia'ko ikastetxe nagosietan egin ondoren bere aberrira biurtu zan. Legedi, Osagilletza, Lutelizti ta Yakidietan gailendu ondoren, alegin guztiak Izarrizti edo astronomiarentzat izan ziran. Eta ludiaren eraketa barri bat asmatu be bai. Ordurarte uste izaten zan yakitun eta ez-yakinen artean, lurra zala munduaren ardatza, ta eguzkia bere inguruan ebillela.

Eretxi ori oker egoala Koperniko'k egiztu eban, lurra eguzkiaren inguruan ebillela erakutziaz. Gaur egunean ori ziñestea errez egiten yaku. Baiña orduan arduraz ibilli bear izaten zan, guztien eretxiaren aurrez yoan bear ebalako. Eta ori beti yazo ta yazoten dana da. Norbait aurreregi doala uste danean atzerantza eragitekoak ugari agertzen dira naizta, «gero», ao batez txalotu.

Gero, Kepler, Galileo ta Newton'ek eta, egiztu eben. Alan da guzti be, ointxe be, ikastoletan irakatsi arren lurrak 24 orduan bere ardatz inguruan bira osoa egiten dabela, «Eguzkia urten» eta «sartu» dala esaten dogu. Bultzian goazanean orixe uste izaten dogu: geu geldi gagozala ta gauzak dabilzala...

## ZIÑESTEA TA YAKIDIA

Koperniko'k ederto agertzen dausku ziñestea ta yakidia alkartuta dabilzala. Egi bi alkarren aurka ezin izan daitekez-eta. Gai onetzaz VI Paul Aita Santuak, Polonia'ko gotzain-buruari idazki eder bat idatzi dautso Koperniko'ren goralbenez, izadiaren lege ezkutuak aztertu ta azaltzeko gizon yakitunak egiten dabezan alegiñak txalotuz.

Egia da, Einstein'ek esaten eban lez, ainbeste milloi ezkutu azaltzera gizona ez dala elduko, baiña alegin txalogarria dala ezin ukatu. Edestian ondo ikusten da, beti izan da «modea»-ta: ez-yakiñez ala ikusi-eziñez, naigabez ingurututa egon dirala aurrera zaleak, baiña beti be, ilda gero, ta sarritan atsekabez, oroi-garri ta giz-irudiak olangoentzat izaten dirala!

Mundua oiñarte olantxe izan da, ta zati baten olan yarraituko dabela uste dogu.



# ZER EDO ZER

## TXEKOSLOBAKIA'N LAU GOTZAIN BARRI

Guztiok dakiguna da komunistak agintaritza daben tokietan «azkatasuna es-petxeratzten dabela». Euren eretxiko ez diranai, itoten ez ba'ditue be, arnasarik artzen ez dautse itxiten. Olantxe ibilli dira Txekoslobakia'ko katolikoak azkenengo lau urte oneitan. Eunetik 70, katolikotarrak izan arren, igaro dan Bagilla ezker, amabi gotzaiñen ordez bigaz bakarrik egon dira. Abadetan lau milla dagoz eta lekaime edo monjak bost millatik gora. Dubzek nagosi izan zan aldian zerbait azkatasun lortuko ebela zirudian, baiña errusitarren «tankeak» dana ezereztu eben.

Aita Santuak alegiñak alegin egin arren, ondiño Otsaillaren 28<sup>g</sup>nean txeko abade talde bateri esaten eutson: «Txekoslobakia gotzaintza galtzeko zorian dago, ia gotzai-ñik ez dau-ta».

Azkenean be, baiña, zerbait lortu da. Ogetairu urtean ez da gotzain barri bat be izan, eta lau gotzain barri egiteko baimena yaritxi dabe. Laurok irurogei urtetik gorako abade dira. Euren izenak: Pasztor, Ferenek, Gabris ta Yrana.

Azkenengo au izentatzea arritzekoa izan da, «Pacem in Terris» deritxon abade-bazkunean goi-mailetakoa izan dalako. Bazkun orretakoai agintariak begi onez begiratzen dautse ta, Baiña Erroma'tik esan dabenez, gotzain egin dabenean bazkun orregazko artu-emonak itxi ditu. Ikusten danez, dana ez ba'da be, al dana lortu dabe.

## EZ DA GAUZA ERREZA TA LABURRA IZAN

Batikano ta Praga'n arteko artu-emonak 1966<sup>g</sup>nean asi ziran, ta Kasaroli yaunak alegin geyenak egin ditu. Berau izan da lau abadeok gotzaindu zituana be. Gotzain barriok naiko zeregiñik izango dabe, batez be abadegei-ikastetxe ta ikastoletan erle-jiño-ezikuntza auzia ondiño ebatzi barik dago-ta. Uste izan geinke, Txekoslobakia'ko katolikotarrak itxaropenez beterik izpar oneik yakingo ebezala, eta poz apur bat emon izango eutsela ainbeste atsekaberen erdian. Bide orretan aurrera yarraituko al dabe!

# ZER EDO ZER

**KARDENAL IZTEKO BIDE ASKO DIRA!**—Ara bat benetan bakana. Aita Santuak oraintsu 30 kardenal barri aukeratu ditu. Euron artean bat inork uste ez eban. VI Paul'ek esan dabenez, oin lau urte ixillean (in pectore) izentatuta eukana. Txekoslobakiatarra. Gotzain izan arren zortzi urtean, ezbear gorrian igel-tzeru eta iturri-atontzaillearen beso-lan-gille edo «peoi» bizi-bidea atara dabena.

Berak esana da: «Zerrapo edo serral, naiz iturri-giltzak atonduten ikas-teak, ez dot uste Gotzain bateri ezertariko kalterik egin leikionik». Bere izen goragarria:

**STEFAN TROTCHTA.**—Ta bere bizi-tza benetan arrigarria. Ara labor-labur: 1905'gnean yayo baserritar sendi baten ta laster umezurtz gelditu zan. Goi-alai eta eragiña zanez salestar D. Bosko'ren lagundian sartu zan. 1942'gn urtean «nazitarrak» Mauthausen'go zelai-espexera eroan eben. Su izkilluz erailtze-ko eroan (fusillau) ta gaizki zaurituta, beste ildakoak ez erreteko kamioyan eroyela, zulo batera irritz-eginda yaustea lortu eban, ta an ordu askotan ilagiñean egonda bizirik urtetea lortu. Baiña arrapatu ta Dachau'ra aldatu eben. Eta antxe egon zan, bere aurretiko kardenal Beran'egaz gudea amaitu arte.

1947'gnean Litomerize'ko Gotzain egin eben. Iru urte geroago lekaretxe baten sartu eben. Baiña soiñeko zarrez yantzita gotzain-eleizara urreratu zan baten, eleiztarrak ezagutu eta txaloka asi yakozalako 25 urteko espexeax zigortu eben, eta gero zortzira yatsi eutsoen. Zortzi urteak espexean beteta urten

ebanean be ez eban azkatasunik izan. 1960-1968'rarte Gotzain eta abade zeregiñak galerazo eutsoezan, baiña berak, gosez ilgo ezipazan len aiatu dogun lanari ekin eutson, oi eban gogo-argi ta irribarrea galdu barik.

Arrezkero Gotzain arazoari ekin eutson abadeen aita on bat lez arimen alde lan gogor eginda. Zarata barik, iskanbilla ta erantzukeri barik, ta batez be ixillik... lanari ekinda. Au ez da antxiñako ipuiña, ointxe XX gizaldian gertatu baiño. Guzurra dirudi, baiña urrerapen eta zibilizaziño aldietan bizi gareala ta, emen gabiltz arteak artu eziñik!

**KARDENAL ERIOTZA OSTEAN.**—VI Paul'ek izentatutako kardenalen artean bat izan da oin lau urte ixillean aututa euki arren, oin iru urte, 1970'gnean il zana. Bere izena ointxe arte ez da yakin. Julius Hossu, Cluygheria'ko (Rumania) Gotzaiña. Eleizearen morroi zintzoa, luzaroan eta asko, zintzo izatearren, igaro ebana bere abade ta eleiztarren artean.

Aita Santuaren asmoa yakin ebanean arren eskatu eutson, beintzat ez aitatze-ko, eta bere guraria betetzeko ixillik euki ba'dau be, Aita Santuak esan dau, Eleiza guztiak bere izen goragarria ezagutzea egoki izan dala.

Ainbeste buru-erakuste oartzen dan aldi nastu onetan, onango giza-gurenak gogoan eukitea ondo etorriko dala uste dogu. Besterik ezipa'da be, kardenal izateko bide asko dirala yakin dagigun.

# ZER EDO ZER

## ASTE GURENA

Aste Gurena kristiñauontzat asterik itzalgarriena ta maitagarriena da. Itzalgarriena, Yesu-Kristo, egizko Yaungoiko ta Gizon, lapur bien erdian, Kurutza baten gure obenen zorra ordaintzearren il zalako. Maitagarriena gure maitasunez eta guri bizitza barri bat emotearren bizitu zalako. Orrexegaitik kristiñauok Kurutzea maite dogu eta azalezko ezaugarritzat erabilten dogu. Alan da be, uste dot, «zintzotasuna» ta «zuzentasuna» ainbeste aitatzen diran aldi onetan, egoki izango dala urrengo datozen egi oneik gogoan artzea.

## ITZ GOMUTAGARRIAK

Alemania'n, Lübeck'eko Gotzain-elexako ormetan, Yesu-Kristo'ren agotan ipinten diran itz oneik idatzita agertzen dira:

«Zuek, Niri Irakasle deitzen daustazue... eta ez daustazue entzuten!

«Zuek, Niri Egia deitzen daustazue... eta ez daustazue ziñesten!»

«Zuek, Niri Bidea deitzen daustazue... eta ez daustazue yarraitzen!»

«Zuek, Niri Bizitza deitzen daustazue... eta ez nozue gura!»

«Zuek, Niri Edertasuna deitzen daustazue... eta ez nozue goraltzen!»

«Zuek, Niri Ontasuna deitzen daustazue... eta ez nozue maite!»

«Zuek, Niri Zuzentasuna deitzen daustazue... eta ez daustazue bildurrik!»

Egunero «Betorkigu zure erreñua» esaten dogun bakotxak ikusi bearko dogu guretzat diran ala ez... Dana dala, egi andia da «Kristo'ren Antz-bideak» diñoana: «Gaur asko dira Yesu's'en zeruko erreñua maite dabenak, baiña gitxi bere kurutzea eroan gura dabenak». (2<sup>gn</sup> Idatzia, XI a.)

## ALBANIA'KO YASARPEN GORRIA

«Egia erregarri» da-ta, Kristo'ren Eleiza, gitxi ala sako, zuzen ala zearretara beti izan da yesarpetua. Bere adizkidetzakotzat agertu izan diranak be, naiko buru-auste emon dautsoe, gizaldiak zear. Eta ori gaur eguncan ikusten dogu, eta gerokoak be ikusiko dabe.

Yesu-Kristo'k bere iksaleai garbiri iragarri cutsen: «Munduak gorroto ba'zaitue, yakin egizue niri zuei baiño len gorroto izan daustala... Ni aurean ibilli ba'nabe zuok be aurean erabiliko zaitue; nire itza bete ba'dabe zuena be gordeko dabe» (Yon, XV, 17-20).

Ez gara arritu bear ba! Gaur bertan, zenbat laterri dira lurbira guztian ago batean ainbeste bider aitatzen diran «Gizonaren duintasuna ta eskubideak», «ziñeste-azkatasuna» ta batez be, kristiñauen ziñestea autortu ta bere eginbearrak betetako azkatasuna «osoan» aintzat artzen dituen laterriak? Itandu Txina, Rusia, Txekoslovakia, Ungria, Uganda, Zaire, Rodezia, Angola, ta geyago ez aintzearren Ego-Amerika'ko laterri batzuetan bizi diran katolikuei ea azkatasunik czagutzen daben. Geyenez be auxe erantzungo dautzue, gure Garibay'k lez, Yesu-Kristo Kurutzean il zanean «zuzentasuna» zerura yoan zala eta ondiño ez dala agertu.

Baiña baltzena Albania'koa da. An, erljeño ziñeskera guztiak ondatu egin dabez. Benetako basati lez yokatu dabe. An, ziñeskera guztien aurka yarri dira. Katolikuei, ortodoxo ta maomatarren aurka be bai. Katolikuei dagokionez, eleizak apurtu ala sarratu, bertako seme abadeak 120 ondatu iru gotzain «fusilleu» ta beste bi erbestetuta il dira eta orrez gaiñera eleiztar asko erbestetuta. Eta egunokaz yakin da, abade bat, ume bat bateatu dabelako, il egin dabela.

Ta bitartean «gizonen eskubideen» aldezko bazkunak ixillik!... Ildakoen «gizon» be ez ete dira ba?...

Kristo'k Kurutzean egin eban lez, otoi egin daigun gure arerioen alde be! Eta azpiratuak, Yaungoikoak adoretu daizala, Mezea entzuteko erbesteko irratian bidez entzun bearra dabe-ta.

# Amargarren Urtean

## «Pacem in Terris»

XXIII Yon Aita Santuak, 1963'gn, Yorrailla'ren 11, gnean, illeterdi bat il baiño lenago agiri zoragari au argitaldu eban. Geyen bat, oitura danez, Eleizako buru diranenar bakarrik ez eutsen zuzendu, «borondate oneko gizon guztiei» be bai. «Bakea Lurraldeetan» deritxon agiri onetan argi, garbi sakon eta zeatz azaltzen dauskuz gizonen artean bake iraunkor eta egizkoa lortu gura ba'dogu, guztiok eta bakotxak zer egin bear dogun.

Idazki edo agiri onetan, egundokorik ondoen azaltzen dira gizonaren duin eta gurentasuna, adimen eta aukeramendun, Yaungoikoak Bere antz eta irudira egiña dalako; soin eta arimaz sortzetik dagokiozan eskubide ta eginbearrak, kontzientzi «zuzenez» yokatzeke eskubidea. Errien arteko eskubide, artu-emon eta eginbearrai dagokienez, argi ta garbi diño leiñu ta enda-taldeen, bizkortasun ta zabalpena azpiratzeko egin dan guztia bidegabekeri andi bat dala; ta zuzentasunak eskatzen dabela, euren izkuntza, lege, ta ondasun-eskuarteari laguntzea. Bardin laterrien arteko bakea lortu gura ba'da, alkartu, alkarrri lagundu bearra dagola. Orretarako lau oiñarriok bear-bearreko dira: Egia, Zuzentasuna, Maitasuna, ta Azkatasuna. Ortxe dago untzea!

## 1963'gnean zergaitik argitaldu?

Ara; II Bztikano'ko Eleiz-Batzar Nagusia, asi barri zan. 1962'gn azken aldian Rusia Kuba'n lerki edo bonba-yaurtikiak ipinten ebillen. Yon Kennedy'k uste izan eban, ori Amerika'rentzat arrisku andi bat zala, ta Kuba inguruko itxasoak inguratutea erabagi eban, Rusia'ri lerkiak bialtzea galerazteko. Guda sortuko ete zan bildurra egoan. Zer egin? XXIII Yon arduraz egoan. Eleiz-Batzarra zintzillik itxiten ba'eban, munduko artegatasuna geyagotu baiño ez zan egingo. Yarraitzen ba'eban, eta guda sortu, zer? Gotzain askorentzat ez zan izango gauza erreza euren eleiz-barrutietara biurtzea. Yon, Yaungoikoaren Arduratasunean zihosten andiduna zan, eta bakearen aldezko dei estu bat egitea erabagi eban. Dei au agintari guztientzako zan, batez be, Kennedy ta Krushtxev'entzat. Eta ara nondik sobietarren itxasontziak etxerako bidea artu eben. Zer dala-ta? Kennedy'k «Ken adi» esan eutselako? Batek baki. Yon Aita Santuak ba-ekian Berak itz-egin ezkerro, beintzat bakea eskatzen dabenean, gizonak adi egoten zurala, eta errien arteko artuemonetan gizonen artean lez, banatzen dituen aldetik asi bearrean, batzen dituen aldetik astea obe zala, eta orixe dala-ta Bake bideak azaltzea egoki izango zala-ta, «Pacem In Terris» argitaldu eban.

## Ondorenak?...

Beintzat guztiak txaloka agurtu eben; eta arrezkero «Bakea lurperatu» gura dabenen erruz, Biafra, Bangla Desh eta Indo-Txina'n yazokun negargarriak yaso ba'dira be, ziur gagoz gero ta ondoren obeak ekarriko dituala, gizarteko bake gurariak sendotu egin dira-ta.

Udabarriko azi-ereitearen ondorena udagoyenean ikusten dan antzera, egiak buruan artuta be biotzera yatsi ta egiteetan agertu arte, bere ausnar-aldia bear izaten dau ta geroago ta arnari ugariagoak emongo ditu. Egunoro ikusten dogunez gizonakandik bakarrik sortzen dan bakea (?) «errena» izaten da, ta benetako bake iraunkorrik ez da izango Yon Aita Santuak bere agiriaren asieran diñoana bete ezik: «Aldi guztietako gizonen guraria dan **BAKEA LURRALDEETAN** ezin daiteke ez eregi ez sendotu. Yaungoikoak ezarritako legea osorik gordet an ez ba'da».

# Jackes Maritain il da!

**Yakitun, ospetsu eta kristiñau eredu (1882-1973)**

Aste gitxi dirala, Maritain'etzaz zer edo zer idatzi gendun AGUR'en. Gaur, bere eriotzaren izpar-samiña emotera gatoz. Yorraillaren 28'gnean il zan (G. B.) Entzute andiko yakituna ta kristiñau eredu izanez gainera, gure erriaren adizkide zintzo ta andia izan zan bere bizitzan. 1906'gnean katoliku egin zan ezkeretik, 67 urte igaro ditu bere yakituri ta alegin guztian, egi ta zuzentasunaren alde yokatzen; eta sakon eta eten barik lan egin be. Idazle ospetsu batek esaten ebanez, Maritain eta bere lana «argiaren zuritasuna» dira. Alan eta be, batzuk, eta ez arerioen artekoak bakarrik, bere irakatsiei zearretara begiratzen eutsen.

Baiña olangoei erantzunik onena XII Pio'k, Maritain 1945'gnean, Prantzi'ko Ordelari lez eldu zanean Batikano'ra, emon eutsen: «Maritain'egan ikusten dogu, katoliku-zinñesta agiri-agurian aitortzen daben gizona, ta orrez gainera, Guztien Irakaslea deritxogun pilosopoari dautson zaletasunaz, bere gaitasun ugariak Eleizak irakasten dituan egi-len eta zillegi gayak aldezten, batez be, alde guztietako naste onetan, arduratzen dana».

Baita XXIII Yon'k, bere «Pacem in Terris» eta «Mater et Magistra»n, bere irakatsiak sendotzen ditu. VI Paul, Aita-suntu izan aurretik, aren idaztiren bat italeratua da. Ta, Eleiz Batzar Nagusia amaitu zanean, yakitunetzako egindako mezu bat berari eskuz-esku emon eutsen.

Bere eragipena andia izan dala, Aita-santuak, Paris'ko Marty kardenalak eta Danielow kardenalak argiro esan dabe. Aldi baten, bera be kardenal egingo ete eben zurrurrua zabaldu zan.

## **Ikasle, irakasle ta idazle**

Ikasketa nagusiak Sorbona'n egin zituan. Gero, Bizi-izti edo biologia Heidelberg, Alemania'n, ikasi eban. Paris'ko Katoliku Ikastetxean irakasle izan zan. 1932'gnean Toronto'ra, Kanada, deitu eutsoen Erdi-aroko jakingarriak irakasteko. Urrengo, Ipar-amerika'ko Kolumbia ta Prinzeton'eko Ikastetxe Nagusietan irakasle izan zan. Europa'ko bigarren gudaldi nagusia asi zanean, irakasle yarraitzen eban. Gudearen amaieran Batikano'an Prantzi'ko Ordelari autu eban. 1948'gnean, barrero, Prinzeton'era aldatu zan irakasletzan yarraitzeko 1960'rarte.

Urte orretan, bere emaztea, idazle trebea, ikastun andi, ta lankide izan eban Raissa il zan, eta Foucauld'en gopatzean sartzeko erabagia artu eban, lanean eta otoitzean bere bizia, 91 urtedun, amaitu arte. Bere azkenengo idaztia «De l'Eglise du Christ»a izan da. Guztiz irurogeiren bat idazti argitaratu ditu.

Beti egi billa, egia zabaltzen eta egiz biziten alegindu zan Maritain, eta bere aldian bizi izan ziran ikastunak egi-bidera erakarteko egin zituan alegiñak, batez be E. Psichari, Péguy, Van der Meer eta abar, Yaunak bakarrik ezagutzen ditu. Ta, zorionez, ez ziran alperrekoak izan. Lurbira zear, ainbeste ta ainbeste yarraitzaille, samiñean itxi ditu, bere lanen saria artzeko Aitaren etxera yoan yakunean, gizaldi onetako yakitun katoliku apal eta andienetarikoa izan dan Maritain goragarria.

# Yon aita santuaren gomutaz

## Amargarren urtea

Bere eriotzatik amargarren urtea Bagila'ren 3'gn bete da. Bere izena aitatzeak, bere gomuteak bakarrik gure biotza poztu lez egiten dau. Zegaitik? Bere gomuteagaz batera ain maite ebazan bakea, anaitasuna, alkar-maitasuna, laguntasun ta ontasuna burura etorten yakuzalako nonbait. Aita Santu egin eben ezkerro, lenengo asmoa Eleizea gaurko eguneratutea izan zan. Orretarako Eleiz-Batzar Nagusia egiteko erabagia agertu eban, zeregin orrek beragaz ekarzan lan, neke, buruausteai yaramonik egin barik. Bere bizitza guztiko asmoa kristiñauen batasuna, ziñestebakoen ardurea, eta katolikuen kristiñautasuna argitu ta sendotzea izan zan. Eleizako toki batzuetan aize garbia ta bariaren bearrizana egoan eta «leyoak» idigitea erabagi eban. Aize barria ta garbia bearzan eta orretarakoxe idigiten dira leyoak.

Asmo orretan argi ikusten zan Yon Aita Santuaren «gogoa» zein izan zan. Lengo onari utsi, zartutakoa barriztau, eta Eleizearentzat «udabarri bat» gertau.

## Barrikundea ta barrikeria

Barrikundea bizitzaren legea dalako, gizariteak be bizitzea aurrera eroateko dira-ta, beti barrikunde bearra dabela edonork uler-tu daike. Baiña barrikunde onaren ondoan, bere areririk andiena dan «barrikeria» sortzen da sarritan, eta orixe gertatu da Yon Aita Santu onaren asmoakaz. Bere «gogoa» zala-ta, barrikeri negargarriak sartzen ale-gintzen dira batzuk, Yon Aita Santuak, bere bizitz eta idazki ta idaztietan irakatsi ebanari yaramonik egin barik. Orrek dira benetako «barrikundeari» kalterik geyen egiten dau-tsenak, cleiztarren artean nastea sortzeko baiño ez dira-ta. Zugatza igalitik ezagutzen da.

XXIII Yon bizitza guztian, egi-zale, zuzen-zale, biotz zabaleko, eroapentsu, gizonaren nortasunari itzal andia izanez gainera, gizon guztiak maite zituana izan zan.

Baiña bearreko diran gauzetan, ziñeste, egi, zuzentasun eta oitura onai eutsitean, zintzotasun eta kemenez jokutzen eban. Barrikeri-zaleak aren kerizpean yarteko ez dauke errezoï izpirik be. Au garbi ikusten da, bere bizitzan eta idazkietan.

## Yakituri ta zentzuna

Gizonak yakituriaren aurrean ez dira be-laubikotuten, baiña ontasunaren aurrean bai. Bere ontasunagaz yakituria estaldu egiten ehaba esan leike. Asko ikusia ta asko ikasia izan zan eta besteakazgo artu-emonetan beti agertu eban gizonak ondo ezagutzen zituala.

Au ondo agertu eban Bulgaria, Turkia, ta Grezia'n igaro zituan ogetakaz urteetan

eta Paris'eko ordelaritzan. Ta bere yakituri ta «gogoa» ezagutzeko or dira bere idaztiak: Bere gortain Radini Tedeski bizitzako idazti ederrean, Bergamo'ko Borromeo Karlos deunaren aldiko eleizearen edestia bost idaztitan, «Arima baten Egunerokoa», Aita santutzan egindako itzaldiki bost ataletan. Or dira baita, bere enziklika ospetsuak; Eleizearen egi ta batasunatzaz, Ars'eko abade deunaren eungarren urtean, agurtza edo errosaioren goralbenez, mixiñoai lagundu bearra, penitentiaren bearrizana, eta gizarte auzia ta lurraldeetako bakearen alde idatzi ebazanak. Idazlan onaitan ikusten da ondo zein izan zan Yon Aita Santuaren «gogoa».

## Yon Aita Santua ta VI Paul

Yorrailla, 27'gn. Sotto il Monte'tik eldu yakozan bidezteie, Yon Aita Santuagaz izan zituan artu-emonak eta adizkidetasuna azaldu dautsez.

Lenengo aldiz 1925'gn Ziñeste Zabalkundeko etxean italtar mixiolari lanen arduradun zala ezagutu eban. Ez ezaguna izan arren, egundoko arreararik bero ta biozkorrena egin eutson eta ikasleen arduradun zan, eta itzaldi bat Paskoz egiteko aukerakoa izango zala-ta, Ronkali'ri deitu eutson. Baiña Ronkali Bulgaria'n Ordeleri izentau eben eta tamalik andienagaz ezetza emon bear izan eutson. Geroztik Turkia ta Grezia'n egoala barru-barruko artu-emonak izan zituen, Montini, Aita Santuaren idazkaritzan egoala. Ronkali Benesia'ko patriarka ta Montini Milan'go Gongotzain zala sarritan ikusten ziran, batez be Ronkali bere edesti idaztietarako agiriak aztertzen Milan'era yoaten zalako. Adizkide barru-barruko egin ziran. Adizkidetasun orrek Ronkali Aita Santu eginda yarraitu eban, naiz arazo asko eukalazalako autu luzeetarako asti andirik ezin artu, bion tamalez. Egun baten agur eginbeurrean egoala, XXIII Yon'ek Montini yaunari esan eutson: «Neugaz bazkaltzen geratu zaitte». Eta Montini yaunak diño: Auxe izan zan, Aita Santuagaz batera bazkaldu neban lenengoa ta bakarera.

«Beti agertu eustan berarizko maite ta adizkidetasuna. Egiz, ori guztientzat eukon. Barre eragiteko yolas antzera itz egiten eban-nean be, beti onera bultz-egiteko gauzak esaten zituan». Azkenengo ikertaldia samin-garria izan zan. 1963'ko Bagilla, 1'gn ikertu eban baiña itz-egiteko aukerarik ez eban izan, eta otoitz eginda aldendu zan. Kapobilla Loria, bere idazkari izan zanak auxe idatzi eban: «Elexakoak artzean auxe esan eban: «Ez bildurrik izan, Yaunak, Eleizea zuzentzen dau-ta. Nire ustez nire ondorengo Montini kardenala izango da; Kardenal Batzarraren autarkiak beretzat izango dira». Olantxe izan zan XXIII Yon'en eriotza zori-ontsua.

# VI PAUL'en X URTEAN

## «EZ BILDURTU! ELEIZEA YAUNAREN ESKUETAN DAGO»

Itzok, Yon Aita Santuak iltzer egoala esanak dira. Eta ondoren bere ustez urrengo Aita Santua Montini kardenala izango zala iragarri eban. Eta alantxe gertatu zan. 1963'ko Bagillaren 21'gnean autu eben eta Kepa deunaren egunean VI Paul izenagaz Aita Santutza asi eban.

Eta arrezkero amar urte oso beteak igaro dirala esan geinke. Yon'en lorratzai yarraituaz, bere ikurritza danez «Yaunaren izenean» lanari gogoz eta eten barik ekin dautso. Eleiz-Batzarra osotu, bertan artu diran erabagien bidez Eleizea «gaurkotu» ta barriztau, bear diran alda-kuntzak egin eta eragozpen guztien gañetik, Eleizearentzat udabarri bat gertatzen alegindu da.

Baiña tartean gizonak diranean barrizkunde ta aldakuntzak ez dira errezak izaten. Eta Eleizan gitxiago, edestiak irakasten daukunez. Oingoan be gertatzea, ez da arritzeko gauza. Baiña bai tamalgarria. Soka-tiran antzera, alde batetik, Eleizearen alegiñari aurrea artu gurarik, erantzukeri, biurri ta nastatzailleak; bestetik lengoari egin ta zirkiñik egin barik geldi zalcai. Bitsuok kaltegarri. Lenengoak gogoan euki bear leukie Newman kardenal ospetsuaren erantzun au. Bein baten ziñausleen okerrik andiena zain zan itandu eutsoen, eta apur baten oldozten egonda erantzun eban: «Artegatasuna, eroapenik eza». Eta geldi-zalcai ostera, gauza biziak aurrerapena eskatzen dabela ilgo ezpada, eta Eleizea gauza bizia dala.

## BIEN BITARTEAN BIDE ZUZENA

Yaunari eskerrak emotekoa da, aldi baktotxean egokien diran Aita Santuak Eleizari emoten dautsozalako. Eta VI Paul bere-bizikoa dala ezin ukatu. Aita Santu egin ebenean argiro esan eban, ondo ekiala Eleizan goreng maillan ipiñi ebela, baiña, era beran autortzen eban, berengo maillara yatsi bear ebala, Yaunaren otseñen otsein izateko. Barrizkunde gayetan zurtasunez astiro, baiña urrin eltzeako asmoz yokatu dau. Ziñeste, oitura ta gizarte gayetan kementsu betiko egiak azaldu, eta «erantzukeriari» erantzuteko maillarik-mailla bere barrizkunde bidean aurrera yarraitzen dau. Orrez gaiñera bakearen alde egin dituan alegiñak Nobel saria irabaztekoak izan dirala guztiok dakusgu.

## LANGILLE ARRIGARRIA

Gaztetatik osasunez argal samarra izan arren, bizitza guztian langille arrigarria izan ba'da, amar urte oneitan arrigarriago izan da. 600 milloi katolikuren ardurea daben Aita Santuak, bitarte gitxi izango dituala errez ulertu leike. Alan da be, begira Batikano'ko izparringiak argi-taldu dituan zertzelada batzuk: Amar urte oneitan bertan batu diran taldeai 1090 itzaldi egin dautsez; bere ibillandietan 120 itzaldi; lau alditan 103 kardenal aukeratu, 884 gotzain, sorkal-dekoak 50; 10 enziklika, 149 eskutitz, 52 agiri. Urrutikuskiñez 17 bider itz-egin dau ta 74 bider irratiz. 42 laterriko agintariak ikertu dabe, eta 22 laterrigaz itunbenak egin ditu. 70 lagun deun iragarri ditu, ta 38 zori ondun.

Orrez gaiñera, astia artu dau osterak egiteko. 1963'gnean Jerusalem'era; urtearen azken aldian Bombay, India'ra, 1965'gnean New York'era, 1967'gnean Fatima'ra; 1967'gnean Turkia'ra; 1968'gnean Kolonbia'ra; 1969'gnean Ginebra'ra; 1969'gnean Uganda'ra; 1970'gnean Australia ta Ozeania'ra. Guztitara, 133.300 kilometro ta 31 egun Batikano'tik at.

## AITA SANTUAGANAKO ITZAL ETA BEGIRUNEA

Gizaldiak zear ez dogu uste laterriak Aita Santuaganako ainbeste itzal eta begirune izan dabenik. Kristiñau eta ez diranak, ziñestedun eta ainbakoak, lurbirako auzien arduradunak Amerika'tik Rusia'raino, baltz eta zuriak auzer dakusguz Aita Santuagana yoten dabela. Orrek zer edo zer esan gura dabela iñork ez dau ukatuko.

Orregaz katolikuok poztu egin bear gareala esan bearrik ez dago. Baiña egun onetan beste zerbait geyago be eskatzen dauku. Gure biotzeko maitasuna, ainbeste arduratzen dalako; menpetasan zintzoa bere aginduai, eskar ona egi ta zuzenbidea irakasten daukulako; eta ototz sutsu bat bere alde, ainbeste neke ta buruauستن artean, azkenerarte kementsu ta nekatu barik Yaunak zaindu dagian.

# Zer Edo Zer

## YON AITA SANTUAREN GOMUTAZ

VI Paul'ek Yon Aita Santuaren gomutagarriatzaz auxe esan dau: «Gaur amabost urte, 1958'ngongo Urrillaren 28'ganean, Yon Aita Santu autu ebela, nor gomutatzen da?» Berari dago-kionez, aren gogo-arazoetan, ondorengo dalako, egun onen gomutea benetan pozgarria dala esan ondoren, «bere irudi aitakor, maitagarri ta ona onandiño geure artean ba'lego lez ikusten dogu».

Batzuk, euren biurrikeri ta eretxi okerrak zuritzeko, euren erara aurkezten daukue. Oker baiña. Egia da, beti aitakor, otzan, lau, on, begiko izanez gaiñera, beti gogo-argi ta actual-dietan gatz andia agertzen ebala. Baiña gogoan euki bear doguz baita, bere kristiñau-irakatsien garbitasun eta sendotasuna. Eleiz Batzarraren asieran, andikiro esan eban: «Batzar au gura izan dot, Kristiñau irakatsien ondasuntgia zaindu daiten eta era eraginkorragoan irakatsi». «Gaurkotasuna» orixe da.

Gizonaren eta errien, batez be txikien eskubide ta eginbearrak argiro azaldu zituan, naizta batzuen gogoko ez izan. Bere gomutaz, aitatu daigun bere bizitzako ikur-itza: «Menpetasuna ta Bakea», ba-da mundu nastu onetan orren bearizana-ta.

XXIII Yon deun iragarteko lanak, aurrera ta ondo doaz, eta dirudianez Urte Deunean-edo, ba'leiteke ori gertatzea.

## GABRIEL MARCEL IL DA

Izen au, ez da emen ain entzuna izan, baiña bere ospea andia izan da, batez be yakitunen artean. Aurten arte, iru katoliku ospetsu izan dira Prantzia'n: Maritain, Marcel eta Gilson. Lenengo biak aurten il dira. 1889'ganean yayo zan Marcel jauna. Bere aita katoliku izan arren, ziñestean bai-ekorra zan. Lau urtedun zala, ama protestantea galdu eban, eta erlejiño aziera barik azi ta protestante bategaz ezkondu zan, eta apurka-apurka, 1939'ganean katoliku egin. Francois Mauriac idazle ospetsuaren idazki batek erabagia artzera bultzatu eban.

Gizonaren nortasun, duintasun eta azkatasunaren alde zintzo ta kementsu beti yokatu eban, eta oindiño oraintzu, URSS'en agintarien eretxikoak ez izatearren yasarpetuak izan diran idazle ta yakitunen alde asarrea agertu bear zala berari otu yakon.

Eta Danieolu kardenal ospatsuak, bere illetan esan dabenez, zintzotasunean kristiñau bakan eta gitxi lakoa izan dalako, utsune andi bat itxi dau. Oldozkun gayetan eta gogo-bizitzan be irakasle izan da. Bere pilosopi irakatsiak idazti ugari, antzerkietan, agertzen dira. Antzerkigille bikaiña izan zan izan be-ta.

Bera katoliku egin zala, esaten eban, Katoliku-Eleizeak «ziñeste utsezkor bat Gizakunde zaindu ebalako». Gabon yayetan sakonkiro oldoztuteko egia da izan be!

## ZINE-GIZON BATEN ERANTZUN ZURRA

Vittorio de Sica, zine-gille entzutetsua da. Irurogetamabi urte ditu ta zeregin orretan agertzen dau. Bere emazte ta seme biakaz zorioneko dala diño. Gaur egunean, itaunketa garaia da-ta, itaun auxe egin eutsoen: «Yaungoiko itzak, zer esan gura dau zuretzat? Eta erantzun eder au emon dau: «Yaungoikoa, niretzat, dana da, nire egarria asetzen daben ura, nire gosea kentzen daustan ogia, ta nire naigabeak ixiltzen dituan maitasuna».

—Baiña... zu yainkobakoa ez zara ba?

—Astakeri ori nor esan dau?... Lurraren gaiñean, ez dot uste gizon bat bakarra danik, bere barruan, bere kontzientzian, yainkobakoa dala diñoanik. Izenez bai, yainkogabe diranak ugari dira, edo beintzat, aintzat aurtu gura ez dabenaugari dira. Nonbait Kikeron'ek, bere aldian, esan ebana aztu egin yake: «Nor da ain zoro, ortzera begiratuta, Yaungoikorik ba-dala oartzen ez dabenik?».

## BAKEA

Zerutar emaitz bardingabea,  
Gizarte-pozen iturri,  
Gizon arteko naste-asarren,  
Aitu eziñen osaki.  
Bizitzarako argi-beroa,  
Kemen-adore lanean,  
Alaitasuna ereiñez beti  
Gizonaren biotzean.

Errientzako ondasuntegi,  
Alkartasunen bidea,  
Kristo'k Belen'en ekarri euskun  
Maitasunezko Bakea.  
Berau biotzez maite dabenak  
Aintza damotso Yaunari,  
Baita lortu be Bere eskutik  
Betiko zorion-sari.



# Zer Edo Zer

## YON AITA SANTUAREN GOMUTAZ

VI Paul'ek Yon Aita Santuaren gomutagarriatzaz auxe esan dau: «Gaur amabost urte, 1958'gngo Urrillaren 28'gnean, Yon Aita Santu autu ebela, nor gomutatzen da?» Berari dago-kionez, aren gogo-arazoetan, ondorengo dalako, egun onen gomutea benetan pozgarria dala esan ondoren, «bere irudi aitakor, maitagarri ta ona onandiño geure artean ba'lego lez ikusten dogu».

Batzuk, euren biurrikeri ta eretxi okerrak zuritzeko, euren erara aurkezten dauskue. Oker baiña. Egia da, beti aitakor, otzan, lau, on, begiko izanez gaiñera, beti gogo-argi ta autual-dietan gatz andia agertzen ebala. Baiña gogoan euki bear doguz baita, bere kristiñau-irakatsien garbitasun eta sendotasuna. Eleiz Batzarraren asieran, andikiro esan eban: «Batzar au gura izan dot, Kristiñau irakatsien ondasuntegia zaindu daiten eta era eraginkorragoan irakatsi». «Gaurkotasuna» orixe da.

Gizonaren eta errien, batez be txikien eskubide ta eginbearrak argiro azaldu zituan, naizta batzuen gogoko ez izan. Bere gomutaz, aitatu daigun bere bizitzako ikur-itza: «Menpetasuna ta Bakea», ba-da mundu nastu onetan orren bearrizana-ta.

XXIII Yon deun iragarteko lanak, aurrera ta ondo doaz, eta dirudianez Urte Deunean-edo, ba'leiteke ori gertatzea.

## GABRIEL MARCEL IL DA

Izen au, ez da emen ain entzuna izan, baiña bere ospea andia izan da, batez be yakitunen artean. Aurten arte, iru katoliku ospetsu izan dira Prantzia'n: Maritain, Marcel eta Gilson. Lenengo biak aurten il dira. 1889'gnean yayo zan Marcel jauna. Bere aita katoliku izan arren, ziñestean bai-ekorra zan. Lau urtedun zala, ama protestantea galdu eban, eta erlejiño aziera barik azi ta protestante bategaz ezkondu zan, eta apurka-apurka, 1939'gnean katoliku egin. Francois Mauriac idazle ospetsuaren idazki batek erabagia artzera bultzatu eban.

Gizonaren nortasun, duintasun eta azkatasunaren alde zintzo ta kementsu beti yokatu eban, eta oindiño oraintzu, URSS'en agintarien eretxikoak ez izatearren yasarpetuak izan diran idazle ta yakitunen alde asarrea agertu bear zala berari otu yakon.

Eta Danieolu kardenal ospatsuak, bere illetan esan dabenez, zintzotasunean kristiñau ba-kan eta gitxi lakoa izan dalako, utsune andi bat itxi dau. Oldozkun gayetan eta gogo-bizitzan be irakasle izan da. Bere pilosopi irakatsiak idazti ugari, antzerkietan, agertzen dira. Antzerki-gille bikaiña izan zan izan be-ta.

Bera katoliku egin zala, esaten eban, Katoliku-Eleizeak «ziñeste utsezkor bat Gizakundean zaindu ebalako». Gabon yayetan sakonkiro oldoztuteko egia da izan be!

## ZINE-GIZON BATEN ERANTZUN ZURRA

Vittorio de Sica, zine-gille entzutetsua da. Irurogetamabi urte ditu ta zeregin orretan agertzen dau. Bere emazte ta seme biakaz zorioneko dala diño. Gaur egunean, itaunketa garaia da-ta, itaun auxe egin eutsoen: «Yaungoiko itzak, zer esan gura dau zuretzat? Eta erantzun eder au emon dau: «Yaungoikoa, niretzat, dana da, nire egarria asetzen daben ura, nire gosea kentzen daustan ogia, ta nire naigabeak ixiltzen dituan maitasuna».

—Baiña... zu yainkobakoa ez zara ba?

—Astakeri ori nork esan dau?... Lurraren gaiñean, ez dot uste gizon bat bakarra danik, bere barruan, bere kontzientzian, yainkobakoa dala diñoanik. Izenez bai, yainkogabe diranak ugari dira, edo beintzat, aintzat aurtu gura ez dabenak ugaritu dira. Nonbait Kikeron'ek, bere aldian, esan ebana aztu egin yake: «Nor da ain zoro, ortzera begiratuta, Yaungoikorik ba-dala oartzen ez dabenik?».

## BAKEA

Zerutar emaitz bardingabea,  
Gizarte-pozen iturri,  
Gizon arteko naste-asarren,  
Aitu eziñen osaki.  
Bizitzarako argi-beroa,  
Kemen-adore lanean,  
Alaitasuna ereiñez beti  
Gizonaren biotzean.

Errientzako ondasuntegi,  
Alkartasunen bidea,  
Kristo'k Belen'en ekarri euskun  
Maitasunezko Bakea.  
Berau biotzez maite dabenak  
Aintza damotso Yaunari,  
Baita lortu be Bere eskutik  
Betiko zorion-sari.

# Zer dozu gabon...?

*Zer dozu Gabon,  
giza-biotzak  
pozez beterik  
izteko?*

*Biotzetatik  
asarrea ta  
gorroto balza  
kentzeko?*

*Ze indar dozu  
gizon artean  
maitasuna bizteko?*

*Zu aiatuaz,  
besterik barik,  
poztuten dira  
biotzak;  
len legor ziran  
biotzetatik  
urtetan dabe  
otoitzak.*

*Or dogu danok,  
begi aurrean,  
Belen'go Izar  
ederra;  
yayoparri dan  
Gaizkatzaillea,  
Yaungoiko-Seme  
Bakarra.*

*Ortxe dago ba,  
on guzti eta  
zorionaren  
Iturri,  
bizitz onetan  
ikasi daigun  
aintza emoten  
Berari.*

GABIREL

# Zer dozu gabon...?

*Zer dozu Gabon,  
giza-biotzak  
pozez beterik  
izteko?*

*Biotzetatik  
asarrea ta  
gorroto baltza  
kentzeko?*

*Ze indar dozu  
gizon artean  
maitasuna bizteko?*

*Zu aitatuaz,  
besterik barik,  
poztuten dira  
biotzak;  
len legor ziran  
biotzetatik  
urtetan dabe  
otoitzak.*

*Or dogu danok,  
begi aurrean,  
Belen'go Izar  
ederra;  
yayoparri dan  
Gaizkatzaillea,  
Yaungoiko-Seme  
Bakarra.*

*Ortxe dago ba,  
on guzti eta  
zorionaren  
Iturri,  
bizitz onetan  
ikasi daigun  
aintza emoten  
Berari.*

GABIREL

# ZER EDO ZER

## Katolikuak Txina'n

Txina erririk zarrenetarikoa ta ugariena be ba-da, munduko ia lautik bat txiñatarra da-ta. Euren yakitunen irakatsiak eragipen andia euki dau txinatarren gizarte bizitzan; gurasoak-nako itzala, sendiaganako maitasuna ta asaben gomutea ain biotz barruan zustraituta irau-teak agertzen dabenez. Baiña berrogetamar urte oneitan aldakuntza ta gora-bera andiak izan ditu txiñar erriak. Katolikuak arrosa uretan lez asiaz yoyazan, Aita Leebe mixiolari ospetsua-ren alegiñei esker, XI Pio'k sei txiñar gotzain batera egin zituan ezkerotik. Irurogetaka eleiz-barruti eukiteraiño eldu ziran.

Katolikuentzat udabarria zirudian. Lou Tseng-tsiang, gobernuko buru ta erbeste-artu emonetarako ministro izana, katoliku egin zan, eta alargundu zanean Beljika'n beneditar egin eta meza esanda gero zortzi urtean bizi izan zan. 1949'ganean il zan. Yupin, Nanking'eko gon-gotzaiñagaz oso baikor agertzen zan.

Gero, zoritxarrez gora-bera askon ondoren, gauzak oso aldatu ziran, Txina komunisten menpean yausi zan-eta. Eleizak edozetarako erabilten dira, eta katoliku eleiza bi bakarrik da-goz zabalik: Pekin'en, laterri-ordelarienzat eta Kanton'en salerosleentzat. Enparauak, Erro-ma'gaz artu-emonik dauken ziur ez dakigu. Bear ba'da, gai onetzaz, gure idazle trebe Aita Yurre'k zerbait esan leike, 27 urte mixiolari an egon zan-eta.

Txiñatarrak esakera asko ta zurrak daukez, eta ara bat: «Errotaria zaldian doanean, osa-gillea oiñez, epaitegiko atek sasiz beterik eta eleizakoak bedar barik, Txina ondo yaurrita da-gon ezaugarri da».

## Apirkatarrak be!...

Apirka arakatu ta bertako oiturak ezagutzeko yoan zan ingalandar bat Bantuen erritxo batera. Eldu zanean, aguratxo batek auxe esan eutson: «Au erri ona da». Bere aurrean erdi yausten egozan txabola zar batzuk, eta aurrerapen azterrenik be ez. Arrituta gelditu zan. Agu-ratxoak barrirō: «Au erri ona da». Orduan ingalandarrak zer esan gura eban itandu eutson, eta besteak: «Au erri ona da. Emen guraso ta zarrai itzal andiz begiratzten yake, erailtzar-ik ez da ezagutzen, lapurrik ez dago, eta bearrizanean dagonari lagundu egiten yako». Egin-egiñean be orixe da erri «zibilizau» askotan bear dana.

## Egia yakiteko bideak?

Gizarteko artu-emonetarako bideak zabaltzeko, aspaldiko urte oneitan asmakizun eta aurrerapide asko sortu dira. Yakiña, gizonen onerako izango ba'dira lenengo egia ta alkarta-suna zabaltzeko izan bear dabela esan bear be ez. Baiña sarritan ikusten danez guzurra ala erdi egia zabaltzeko erabilten dira, alan egi-bide ordez naste-bide biurtuaz.

Eta erdi egiak, guzurra baiño errezago ziñesten dalako, guzur utsak baiño kalte geyago egiten dau. Au egiztuteko urrutikuskin, irrati, izparringi ta aldizkariei. Batez be guda bat sor-tzen danean, oin arabe ta ebertainen gudan lez. Gudan lenengo ilda zerraldo yausten dana EGIA dala, eta egunero ikusten dogun gauzea da. Batak «bai» esaten dabenean besteak «ez» utsik egin barik esaten dabela. Nori ziñestu?...

Laterri-ordelariei? Baiña or be, ingalandarrak erdi-irriz esaten dabena gogoan artzen ba'da, zer? Zer dan esaten dabena? Ara; Laterri-ordelari edo enbajadorea: «Erbestera bial-tzen dan gizon zintzo bat da, bere erriaren alde *guzurrak esatera*». Au alan izan ezkerō, zerura yoan arte itxaron bear egia yakiteko.

# BAKEAREN

# ALDE

## BARRIRO BE!...

Oin urte batzuk dirala, gure Aita Santu VI Paul'ek, Urte Barriaren lenengo eguna Bakearen egun izentau eban. Ez egun ori bakarrik «bake-egun» izan zedin, urteko egun guztiak gure bizitzan bakearen ezaugarria eroan dagien baiño. Bakea ez da ba, bein eta betiko irabazten dana, egunero, une guztietan irabazi bear dana baiño. Gauza biziak une guztietakoak izan bear dau, eta bakea, bizia ez ba'da, ez da ezer. Bakea ez da ba, aizetan dabillen eta arrapau bear dogun mitxeleta polit bat, geure bizi ta zorionaren una dan gauza sakon bat baiño.

Ez da ba, azaleko gauza, norbaitek uste izan leikenez; geure izatearen barru sakonagaz bat eginda dagona baiño. Eta ortxe dago gure okerra: bakeatzaz guztia dakigula uste izatea.

Bakeatzaz, Yon deunak maitasunaz esaten ebana, esan geinke. Yon deuna oso zar eginda gero Epe-so'n bizi zala, bere ikasleak eroaten eben eleizara. Eta bidean beti auxe esaten eutsien: «Semetxuok alkar maite izan zaitezte». Ikasleak gogait eginda, beti gauza bat esaten eutsielako, esan eutsoen: «Baiña, zergaitik beti gauza bat esaten daukuzu?» «Zergaitik?, Yaunaren agindua dalako ta ori egiten ba'dozue, dana eginda dozelako».

## BA-DA BEARRIZANA!

Gauza baten bearrizan andia dagoanean, sarritan aitatzea eta eten barik eskatzea guztiak ontzat emoten doguna da. Gosez dagoanak eten barik ogia eskatzeaz inor be ez da arritzen. Gaur barriz bakearen bearrizanean gagozala ikusteko, ingurura begiratzea baiño ez dogu. Indarkeri, erailkeri, zapalkeri ta biurrikeria munduan nagosi dirala esan lei.

Une onetan ba, bakeatzaz itz egitea bearreko dala ezin ukatu. Orregaitik VI Paul'ek «apal eta kementsu» gizon yakintsu, gogo oneko eta nekepean dagoanei garrazika diñotse: «Bakea gizadiaren elburua da. Bakea bearreko da. Bakea eginbear bat da. Bakea onuratsu da. Bakea ez da buruan yosita dogun zentzunbako eritxi bat, ames bat. Bakea ziurtasun bat da, bai itxaropen bat, eta beragandik zintzillika lez dago gizadiaren etorkizuna, mundauren elburu ta zoria».

## BAKEA LORTU ETE LEIKE?

Alde guztietan indarkeriak burua yasoten dabela ikusirik, itaun orreri bayetz erantzutea geure barruan gogortxo egitea yazo leiteke. Batez be gizonaren nortasun, duintasun eta bere bereak dituan eskubideak zapalduta ikusten doguzanean. Baiña burua makurtu ta lur-yota gelditzea ez da Bakea. Bakea ez da gorputz eta gogoko argalkeri bat. Nagikeria ez da Bakea. Norbereak diran eskubideak ez zaintzea ez da Bakea. Azalean, bildurrez geldi egotea ez da Bakea. Gizonaren eskubideak Laterri-Batzak iragarri zituala 25 urte bete barri dira, guztioi gomutau eragifiaz, gizonaren eskubide ausi-eziñen eta bere eginbearren oiñarri, bera notin-persona izatetik sortzen dirala.

Bakea lortuteko eurok zaintzea naikoa da. Baiña orrek etenbako lana eskatzen dau. Norbere eskubideak eta besterenak ezagututa beti euren alde jokatzeko gertu egon, gogoz, gurariz eta egitez, al dan guztia bakearen alde egin, bake giroa zabaltzen alegindu eta bakea lortu arte ekin. Itz baten, bakearen alde al danean dana egin, ta ezin danean al dana. Ori egiten dabenak goiko itaunari «bayetz» erantzun al izango dautso.

## BAKEA ZEURE ESKUETAN BE BA-DAGO!

Gauza asko ez dira zuzentzen lurbira onetan ez doguzalako guztion eginbearztat artzen. Guztion zeregiña ba'da, eginbear ori besteentzako errez itxiten dogu, norbere burua zuritzea aitzakiren bat asmatzea gauza erreza izaten da-ta. Baiña norberak egin bear daben eginbearra danean, besteen gain itxitea ez da errez izaten. Bakeagaz be orixe egin bear dogu. Geure eginbear lez artu, bakea geure aleginetik zintzillika dagola uste izanda, aldi onez eta txarrez, beti eta nai non gure alegin guztiak bakezaletasuna zabaltzera zuzendu. Zeuri dagokizun zeregin ori ez egundo be besteen eskuetan itxi.

Bakea gizonen gauzea da, eta gizon bakoitzak erantzun bear dogu; gizon lez eta kristau lez dagokiguzan bakearen aldeko eginbearrak zintzo, beti ta eten barik, betetan aleginduta.

Orduan bakea geure gauzea izango litzake, geure eginbearra, geure elburua izango litzake eta, «geure eskuetan dagola» be, esan al izango geunke.

# Bakearen alde II

## BURUBIDEAK

VI Paul'ek ondo-ondo daki laterriak gero ta izkillu ondagarriagoz ormiduten dirala; alkarren bildurrez nonbait, ta bakearen aldezko eralguntzak indar eta laguntza bearrean aurkitzen dirala, eta alde orretatik begiratu ezkeru bakean bizitea ames bat dala. Ezkutuko tokietan pillatuta dagozan izkilluak, lurreko bizitzea zearo ondatzeko beste indar dabela.

Eta izan be, urrengo gudea sortuko ba'litz, «atomikua» izango litzake, gizonak gizaldeak zear ainbeste buruauztez lortu dituan aurrerapen eta asmakizunak ondatuta geldituko litzakez, eta oraintzu gudalburu batek esan dabenez, atomikako gudean osteko burrukea lenengo gizonen artekoaren antzekoa izango litzake: arrika ta makillaka!

Alan da guzti be, gogoan euki bear dogu, gizonari gudara bultz-eragiten dautsen grñen menpean yarri arren luterotarrak aldezen dabenez, yatorrizko obenak ez ebalu ustelduta itxi zaurituta baiño, eta erantzunpen apur bat dabenak, goi nai bekoa izan, bakezko burubideak darabiltzala, ta gizonak gizon lez yokatzen dabenean, ez dabela nai gudarik eta bakezalea dala.

## ERRIAREN INDARRA

Erriak aurreratuago, ta erriak eskuarte geyago dauke laterrietan. Eta ortik sortzen da erri-eretiaren indarra. Gizona, lengo gizaldietan baiño minberatiago dala guztiok ikusten dogu. Zuentasuna, egi, naiz gizonari bere izatez dagokiozan eskubideen aurka zerbait ikusten dogunean, mindu egiten gara, eta, al ba'dogu, geure asarrea agertu be bai. Len yakiten ez ziralako ala yakinda be, aintzat artzen ez ziralako, gizona danera egiten da-ta, okerkeri asko aintzakotzat be ez ziran artzen. Gaur yentea minberatiago da, naiz baltz naiz zurien artean. Eta ori ezaugarri ona da. Bizitasunaren ezaugarria da-ta.

Baita or agertzen da erri-eretiara zuentasun eta besteen eskubideen aldezko aizea ugarituez doala, eta orrek bakearen aldezkoak ugarituez doazala adierazten dau. Eta ortxe dago guztion eta bakoitzaren lana. Gure eretiak, biozketak,

asmo ta gurariak eta egiteak bakearen aldezkoak diranean, gero ta obeto ikusiko dogu, bakea, lortu leiken gauzea dala eta geure eskuetan dagoala be bai. Bakea zabalteza eginbeartzat artu daigun eta egiz bakegille izango gara.

## BAKEAREN ZUSTERRA

Guztiok oartzen dogu alkar-aitu ezin asa ta burrukak gizonaren grñetatik sortzen dirala. Bakeagaz be bardin yazoten da. Gure eretxi, burubide, asmo ta elburua bakezkoak diranean, gure artu-emon guztietan bakezale agertuko gara. Baiña barruan bakerik ez daukonak bakerik ezin leike eren, ez daukanak ezin emon leike-ta. Orretatako, aukeran dator VI Paul'ek iragarri daben Urte-Donen, Yaungoikoagaz ta gizonak alkarregaz adizkidetzeko. Aldi egokia gudearen kalteak eta bakearen onurak gogoan erabilteko. Baiña, ori, guztiok dakigun gauzea dala-ta, ez dogu aintzat artzen. Ortxe dago gizonen okerra. Sakon yo barik, gayei, azaletik bakarrik begiratzea. Ondo sakondu ezkeru, laster ikusiko genduke gudea zorakeri bat dala eta bakearen alde alegin guztiak egiteko gogoia izango genduke eta orduan benetan esan al izango dogu bakea geure eskuetan be ba-dagola.

## BAIÑA BETI BE

Bakea goitiko emaitza dala gogoan artu bear dogu, ta apaltasunez eskatu mundura bakea ekarten etorri zan Kristo'ri, Bera barik gizonen artean egizko bakerik ezin lortu leikela-ta. Gizonen bakean ikusten dogunez beti errenak izaten dira.

Bakea maite dabena, XXIII Ton'ek aitatu zituan lau oiñarriak maite izan bear ditu: Egia, Zuentasuna, Azakatasuna ta Maitasuna. Laurok maite ez dituan, egia esan geinke, ez dala bakezalea; ta maitasuna, egiteetan itzetan baiño obeto agertzen dala.

Buruan sartuta euki ba, bakea, lortu al dogun gauzea dala eta geure eskuetan be ba-dagola. Urte-Donen onetako kristiñauen asmo sendoa auxe izan bedi, ba.

# ZER EDO ZER

## NOZBAIT... BAKEA

Urte barri au izpar pozgarriaz yatorku: benetan pozgarri da izan be, arabe ta israeldarren artean bakeak egin dirala, edo beintzat bakearen oiñarriak ezarri. Urteera erreza ikusten ez yaken eran egon dira, baiña azken baten Kissinger'en alegiñak alperrekoak ez dira izan. Yaunari eskatu dayogun iraun dagiala, ta bake au ez daitela izan ume baten eskuetan dagoan arratza aren antzekoa...

## 1973'KO BARRI NEGARGARRIAK

Igaro dan urteko yazokunak ez dira «zibillizauta» gagozanen ezaugarri izan. Berrogei indarkeri, edo obeto esateko, astakerizko egintzak ezagutu dira: 26 erailtze ta baituratze; agintaritzea indarrez artu gureak 14; 17 laterri gudan eta 300.000 giza-erailtze, Burundi'ko leiñu arteko burrukan batezbe, «tutsi»tarren erruz. Erbesteratutakoak bakarrrik milloi batetik gora dira. Ori, oin ogetabost urte, Gizonaren Eskubideak ONU'k iragarri ebazala... 25'gn urtean!

Atzerantza begiratuta barriz, ara edes-tiak diñoskuna: Yesu-Kristo'n etorrera aurretiko 1496'gn urtean asi ta 1861'gn urterarte, gizadiak bakean 227 urte igaro al izan ditu, eta 3.130 urte gudan. Au da, amalau urte baktzeko urte bat bakean eta enparauak gudan. 1820'gn urtetik 1945'gn urterarte gudan il diranak 59 MILLOI izan dira, eta alan ta be, «zibillizauta»ko aldietan bizi gareala esaten asartu egiten gara!

## EUSKAL-MIXIÑOAK 25'GN URTEAN

Ogetabost urte bete dira, Gazteiz'ko eleiz-barrutitik, euskaldun abadeak Los Rios'eko mixiño lanetara yoan zirala. Euren buru Gisasola'tar Maximo zeanuritarra izan zan, laster ezbear baten il zana. Gazteiz'ko eleiz-barrutia gaur iru eleiz barrutitan bananduta dago, baiña arako lana danon ardurapean egiten dabe. Guztiz 110 abade dira: Ekua-dor'en 41; Venezuela'n 18; Brasil'en 9;

3 Txile'n; Angola'n 21; Zaire'n 10 eta beste 8 Ruanda'n.

Euskaldunok lenengoz asi eben era orretako mixiño-lan au, gaur Eleiza guztian oitzen dana da. Zorionak eta sutsu ekin lan onuragarri orri.

## «NOBEL» SARI BAT DALA-TA

Bakearen alde geien lan egin dabenari, urtero, Bakearen saria emoten dautsoe. Aurtan, Kissinger eta Le Duc Tho'ri emon eutsen. Baiña bostetik bik ez eutsen ondo eretxi.

Ta, Oslo'n beste batzorde bat sortu da, Noruega'ko Irakaskintzako ministroa buru dabela, ta milloi bat korona —bost milloi peseta inguru— batu dabez sari ori Dom Helder Camara, Brasil'eko gongotzainari emoteko. Dirutza ori luterotarren eleizetan batu dabe.

Izan be, iñok bakearen alde ta gizonaren eskubideen alde yokatu ba'dau, gotzain ospatsu ori izan da.

## TXEKOSLOBAKIA'KO BIDEBAKERIAK

Agintariak erlejiño usaiña adierazten daben gauzak egitea galerazo egin dabe; esaterako kurutzeta, irudiak eta edozein apaingarri. Alemani'ko erbestetuak, Idazti deunak Praga'ra bialtzen dituela-ta, irratia tamalez agertzen da, arerioaren zabalkundea dala esaten. Larogei abadegeik ikasteko guraria agertu arren, ogeiri bakarrrik emoten dautse baipena.

Eta Trochta kardenalari ez dautse berak gura daben tokira yoaten izten, ezta berak gura dituan inguruko laguntzaillerik eukiten be. Komunistak agintzen daben tokian gauza bardiñak yazoten dira. Esaterako oraintzu Kolkhozes'ko buru diran bi, alderditik yaurti egin dituez, ortodoxoen eleizan umeak bateatu dituelako. Gizon-eskubideak non ete dira?



# ZER EDO ZER

## GIZONAREN ESKUBIDEAK DIRALA-TA

Auxe da gai bat guztien agotan ibilli, izparringi ta aldizkarietan aurrez azaldu eta idaztietan sakontasunez adiraldu dana. Batez be igaro barri dan urtean, ONU'k gizonaren eskubideak iragarri ebazala ogetabost urte bete ziralako. Eta ori oso ondo dago, gizonak nor dan yakin ezker bere nortasun, duintasun edo oin sarri entzuten dan «personalidadea»ri dagokionez izan, eta yokatzeko. Gizona, izan be «gizon» dalako beste barik, narru zuri nai baltzekoa izan, aintzat artu bear dana da, lurreko izakien artean adimen eta aukeramendun izakia bera bakarrik. dalako.

Ori dala-ta Unesco'k idazti andi bat argitaldu dau izen onegaz: «Gizon izateko eskubidea». Zegaitik izen ori? Gizona danak, gizon izateko eskubiderik ezpadauko, nork eukiko dau ba? Tximiñoak? Ori ezin aldeztu leikee oin ain ugari agertzen diran tximiñotik datorrela esaten dabenak, ezta kristiñau izateko eskubidea ukatzen daben komunista agintariak eta komunista agertu ez arren eskubide orreik aintzat artu ez eta zapaltzen dabezan laterriak. Alde guztietan aurkituko doguz. Europa'n, Asia'n, Amerika'n, Aprika'n eta Ozeania'n. Eskubide osoak nonbait illargira biziten yoango diranentzat izango dira.

Bitartean itxaron egin bearko... Terese deunak itxaropenagaz dana lortuten dala diño-ta. Eta ez astu, gau luzeena be, Shakespeare'k iñoan lez, egunagaz amaitzen da.

## BRASIL'GO BARRI SAMIÑAK

Aspaldiko urteetan guztiok dakigu Brasil'en gertatu diran bidebagekeriak, katoliku batzuen aurka batez be, andiak izan dirala. Norbait gizonaren eskubide ta zuzentasunaren alde agirian yartzen ba'da, kurutzapean bizi bearko dabela ziur egin leiteke. Or dogu Rezife'ko gotzain Helder Kamara yazarpetua, erriaren eskubide alde zintzo yokatzen dabelako. Beste ainbeste esan geinke Sao Felix'ko gotzain adoretu Kasaldaliga, aberats eta agintariei egiak argi esan ta zuzentasunaren alde zintzo ta bildur barik yokatzen dabelako, aurrean eta epaipean darabilena.

Egin dituan lanak saritzeko Pernabuko'ko agintariak Sao Salbadore'ko kardenal Brandao Billela'ri emondako urrezko domiña kendu egin dautsoe, ezertako azalbenik emon barik. Sao Paolo'ko goi-gotzaintzat Eleizaren irrati bat 1956'tik ona lan egiten izan dabena, ezertako azalbenik emon barik, Brasil'eko agintariak baipena ukatu egin dautsoe. Gotzain guztiak euren atsekabea agertu ta alegiñetan dabiltz baipen ori barrero lortuteko. Aspaldian egi ta zuzentasun ta beartsuen alde jokutzen izan dabenak, abade ta kristiñau lauak, ez dabe bake andirik izan.

Baiña dana ez da negarra. Gaur irakurri dogu Helder Kamara goi-gotzainari, Austria, Belgika, Olanda ta Alemania'ko gaztediak gertauta «beren-beregiko Nobel saria» emon dautsoe, eta Oslo'n emon be, eta «Nobel Saria»ren arduradun batzordeari eskatu be bai, 1974'ko Bakearen saria Brasil'go gotzain berberari emoneko. Gotzainak esan dau artu daben dirua Rezife aldeko umeen eziketa ta lugiñen artean erosiko diran lurrak banantzeko izango dala.

## BA-DA BEARRIZANA!

Ainbeste naste ta alkar-artu-ezin ikusten dan aldi onetan, VI Paul'ek iragarri daben Urte Donean, alkartasun urtea aukeran dator. Dei orreri gotzainguztiak erantzun eta orretarakoxe kristiñau guztien biotzak gertauko dituez. Orixe egin dabe beintzat, Burundi ta Ruanda'ko gotzainak urte bi oneitako yazokun negargarriak dirala, ainbeste milla lagun il dira-ta.

Alkartasuna esaten dautse ta bearreko da Yaungoikoagaz alkartuta biziteko. Bardin egin dabe Aprika sorkaldeko gotzainak an inguruan direan laterrietan siketea dala-ta ainbeste milla lagun gosez ilten dagozalako. Alkartasuna, anaitasuna, maitasuna ta esku zabala bear dabe gose diranak, eta zuzentasuna Angola'n eta atsekabepean bizi diranak.

Gauzak ondo ez dabizala ezagutzeko, gomutau daigun «Aita Zuriak» euren asarrea agertzeko toki areitako mixiño lanak itxi ta aldendu zirala. Tamalgaria benetan kristiñau egiak zabaltzeko azkatasunik ez eukitea. Bakoitzaren eskubideak ez aintzat artzeak indarkeria dakar eta ortik ezin bakerik sortu. Izan be bakoitzari berea emon ezik...!

GAMA

# Alkar- Izketan

## (Ziñeskeria dala-ta)

Peru, es dok oartu gure artean be ziñeskeria ugaritu egin dokala?

—Bai alantxe dok. Eta ezaugarri ona ez dok.

—Orretan zuzen ago. Ziñeste-egiak aintzat artzeko muker yagozan errietan, lelokeri asko ziñesteko gertu egoten dozak, eta euren burua aurreratuentzat yaukien artean be bai.

—Ori aldi ta alde guztietako gauzea dok. Gizona, zuzen ala oker, zorionaren billa yabik, beti, ta zusterbako diran gauza askotan ziñestu egiten yok. Batean, yataldi baten amairu lagun batzea zoritxarraren ezaugarri dokala, bestean perra bat buruz bera ipintea ona, edo amairugarren zenbakiak zoritxarra esan gura yabela ta yatetxe ospetsuetan eta itxas ontzietan be kendu egiten yabek.

—Gure artean olango gauzei barre egiten yautsieki, baiña asmakizun eta aurrerapide aldi onetan be ba-dozak, eta ori «ikas-tuntzakoen» artean olango lelokerietan ziñestun yabenak.

—Ezetz? Ez luzetzarren, bertan egon zozanak esana: Sevilla'ko Prantzizkotarrak euren zaindariaren eguna andikiro espatzen yabek. Eleizkizunaren ostein yataldi ederra. Bertara deitutako agintarien artean bertako izparringi baten zuzendaria. Izlaria maira urreratu zanean izparringilariak, bereala zutinduta, adirazten emon yon bera ezin zeikeala yaten gelditu. «Zergaitik ez?» itandu yeutsoen. «Amairu garealakok». Ori entzun ebanean, izlari ospetsuak esan yeutsen: «Buenos, señores, que aproveche...» eta bere etxera yon zuan bazkaltzen. Au ogeigarren gizardian yazoa dok. Amabientzat bakarrik yatekoa ipiñi ba'yoen be!...

—Nik uste yoat gizonaren buruari urdallari lez yazoten yakola. Utsik ezin egon eta egirik ezagutzen ez ba'yok guzurra iruntsi, urdaillak garirik eza' yok galtsua yaten yokan lez.

—Egia esan, ni batek edo bestek olango tentelkeriak ziñesteaz ez nok arritzen. Ori baiña lelokeri andiagotzat yaukat, katoliku burua egiten yoen izparringi batzuk egiten yoena:

—Zer dok ba?

—Edozein gizon naiz emakumeren izakerea ta bizitzea ezagutzeko, bera yayo zanean, or goyetako izar batzuk zelan egon zoazan yakitea naikoatzat dukitea.

—Ori gizartean antziñeko gatxa dok, baiña zorakeri bat dala uste yoat. Izan be izarren egoreak zer ikusi euki leikek egun baten naiz bestean yayo danaren izakera ta bizitzaren gora-berakaz?

—Olango gauzak irratiz be sarritan entzun yoazat eta nik uste yoat, irakurle ta entzuleak lelotzat artzea dokala.

—Izan be olango ugari yagok gaurko mundu «zibillizauan» be, Lenagoko zorgin, azti ta zorginkeriak ziñesten dituanari irribarre eginda errukiz begiratzen yautseguk, baiña gaur gertatzen dokana negargarria eza' litzok, barregarriago izango litzakek. Paris'en bakarrik, gitxi gora bera, 33.000 aztru (adibinadore) beste zeregin barik bizi dozak, eta beste ainbeste inguru Londres'en. Ortik susmau geinkek munduan zenbat izango doazan.

—Benetan tamalgarria dok, baiña nik uste yoat yazoten dan guzti orrek ziñeste epelkeri ta diru-zalerian yaukola oiñarria. Ziñestea epelago ta ziñeskeri geyago, diruzalekeri geyago ta bidebagekeri geyago.

—Ori egi andia dok. Antziñe esan yoen diruari guztiak burua makurtzen eutsola. Orrexegatik ikusten yoguk egoki ez diran gauza asko iragarten dirala.

—Neuk be orixe uste yoat. Dirua bitartean eza' llebik mundu onetan bake geyago izango litzakek, eta bearreko gauza izan arren, dirua zalekeri biurten doanean, ain bearreko izan eta ainbeste aitatzen doan alkartasuna gizartetik uxatuteko bide oberik asmau be ezin leikek.

—Izan be diruzalekeriak gizona norbereko biurten yok, eta yakiña, norberekeriagaz gizonak zorioneko izateko bear yituan iru gauza oneik ezin lortu: maitasuna, batasuna ta bakea.

—Ba orren begira ba'ago apur baten itxaron bearko dok. Iru gauzok eza'panetan bakarrik agertzen dozak eta.

—Gaurko naikoa izan dok eta agur.

# AURRERAPENA

## GIZONA TA AURRERAPENA

Aurrerapena izaki guztien artean gizonaren edo gizakiaren zeinki berezia da. Gizona noizkoa dan ezagutzeko be, arau ori erabilten da, antxiñako zerbait aurrerapenaren ezaugarri ba'da, antxe be gizonaren eskua ikusten dogu, eta egiz esan be bai: «Emen gizona ibilli da». Beste izaki guztiak, biziak, naiz bizi-bakoak izan, ez dabe aurrerapenik izaten. Izate bakotzak Egilleak emondako legeak ditu, eta andik ez dabe urtetzen. Beti bardin yarraitzen dabe, ori bai, zintzo, baiña aurrerapen barik. Suak oin millaka urteetan lez bardin erretan dau ta urak busti, eta txoriak be oin, millaka urteetan lez, abiak bardin egiten ditue.

Gizona bakarrik, izakien artean, gitxi ala asko aurrera egin leikena eta egiten dabena da. Zergaitik? Adimendu bera bakarrik dalako. Adimenaren bidez izatearen legeak ikusi, aztertu ta erkatu egiten ditu, gauzen azalez gañera, barrua ezagutzen alegintzen da, ezaguera orren bidez gorputz eta arimarako onura atara, izakien yabestasuna lortu, ta bizitza erosoagoa lortuteko alegiñak egiten ditu. Ortze dago aurrerapena.

## AURRERAPENA BETI IZAN DA

Baiña beti ez bardin ezta urrik emon be! Gizaldiak izan dira, gizonak erdi lotan lez, edo alkarregaz burrukan, astia ta indarrak galdu dituelako, aurrerapen gitxiokoak. Ori alde batetik, eta bestetik gizonaren bizitzea laburra izan eta aurrerapen ta asmakizunetarako asti gitxiago izan dabelako be izan leiteke. Gure egunotan bertan ikusten dogu, batez beste gizona berrogei urte inguru biziten dala, eta gaur osagilletzaren aurrerapenagaz gizonaren bizitza batez beste irugetaamarretik gora eldu dala.

Or ikusi geinke ba, gizonaren bizitza labor ala luzeagoak gizadiaren aurrerapenagaz zer ikusi andia dabela. Egia da asmakizun ta aurrerapen asko gizonak berak uste izan barik lortu dituela, Esaterako, Fleming, ingalandar osalari ospetsuak, ainbeste on egiten daben peniziliña, olantxe asmau eban. Kautxua «bulkanizau» edo gogortzea uste bakoa izan zan, lortuteko ainbeste alegin egin arren, 1903'arte ez eben lortu. Ain arrigarri dan «radarra» be, «sagu-zarrak» gizonak baiño lenago erabilten eban, ostopo guztietatik iges egiteko, berak egiten daben «ultra-son»aren bidez. «Ultra-son» ori zer dan azaltzeko tokirik ez dogu-ta, erea datorrenarako itxi bearko da.

## GEURE EGUNOTAKO AURRERAPENAK

Egiz, gizaldi onetan bizitoko zoriona izan dogunok, aurreko bi milla urteetan baiño aurrerapen ta asma-kizun geyago ikusi doguz. Aiatu daiguzan batzuk. Lurbirako toki batetik bestera yoateko erreztasunak ikarra-garriak izan dira. Geuk ikusi doguz lenengo berebil eta egazkiñak. Len illa asko bear zan tokietara yoateko oin ordu batzuk naiko dira. Gaur edozeiñek egin leiken gauza da, Europa'n goizaldu, Ipar Amerika'n bazkaldu ta barrero Europa'n apaldu. Gure bizitzaldian sortu dira X-Izpiak, «radium»a, irratia, urrutikuskiña, eta ain bildurgarri dan atomoar indarra. Or dogu Hiroshima, 400.000 biztanledun uria une baten biztanle guztiakaz ondatuta, atomo-lerki edo bonba batek. Ori 1945'gn urtean. Ganera or doguz gramofono ta magneto-fono mintza ta zinea alde guztietara eldu dirana. Asmakizun benetan arrigarriak! Langille azuzian eta lando-letan aurrerapen andiak izan dira. Neuk ezagutu dodaz, amabi ordu lan-sari urriagaz egiten, eta 13 ta amalau urteko neskatoak 11 ordu lan egin eta iru erreal irabazten. Gaur...

Landoletan aurrepenak ikaragarriak izan dira. Tramakuluetan aurrerapen arrigarria egin da. Eun lagunek egiten ebana amarrek egiten dabe eta neke gitxiagogaz. Tamalgarriena da, XI Pio'k esaten ebana: gauza guztiak obetute urten dabela gizonak izan ezik.

## AURRERAPENA TA ETXEKOANDRAK

Aurrerapenak guztiontzat ondo etorri dira baiña etxeko-andrentzat ez gitxiago. Butanoa, tximiñibako eskatzetan yanariki arin gertatzeko; izozkiña, yatekoak galdu barik gordeteko; oyal eta yanzkiak garbitu ta leortzeko tramankuluak; plater, ontzi ta murku garbitzeko makiñak, botoi bateri sakatuta beste barik, dana egiten dabenak. Len egun guztia eskatzean ia igaroten eben. Oin... baten edo batek esan leike: Apaintzeko ta barriketarako asti geyago izango dabe. Ori be aurrerapena izango nonbait! Alde batetik bai, bestetik ez diñot ezer, ori euren kontua da-ta.

Dana dala aurrerapena ona ta txalogarri da onerako danean. Urrengoan beste zerbait geiago esango dogu.

# AURRERAPENA?

## Aurrerapenaren ondorenak

Begien aurreran daukoguz eta esan bearrik be ez da, gaurko asmakizun eta aurrerapenak gizonari ta gizarteari on azko ekarri dautsezala: Lan gogorrak bigundu, indar-bearrak gitxitu, atsedean eta opor-aldiak geyagotu, ikasbideak erreztu, bizitzaldia luzeta, aukerak ugaritu, artu-emoterako bideak erreztu ta zabaldu, labor esateko, askorentzat bizitzea erosoagotu, lengoan aitatu genduzan asmakizun eta aurrerapenari esker. Onek, gizona «zoriontsuago» egin dabela, ez dau esan gura benetako «zoriona» iturri orretatik bakarrik sortzen dala; edonork daki-ta. Izan be, azaleko aurrerapena barrukoa barik, gizartearentzat onuragarri baiño kaltegarri geyago izanten dala, egunoro geure begiz ikusten doguna da. Aurrerapen zaleak izan bear gara, gizona gizonagotuten dabena. Ori egiten ez daben aurrerapena arimabakoa izango da, beraz *errena*.

## Aurrerapenagaz arrotu ete geintkez?

Itaun oneri, Wladimir D'Ormesson'en itzakaz erantzungo dautsogu: Igaro dan udagoyenean Daniélou Kardenala Prantzi'ko «Académie»n sartu zanean, Ormesson zan erantzuteko, eta ille bi lenego il zalako, gertauta itxi eban itzaldia Guittou yaunak irakurri eban. Ara bere itzak: «Egia, gauza andiak lortu doguzala ta arrigarriak yaritxi —esaterako illargiraiño eltzea— ta askoren bizikerea obetu dala. Baiña, atomo-indarra munduari azkena emoteko gertauta ikusten dogunean; ainbeste eundaka gizon-erailtze zentzunbako; alkarrarren bildurragaitik bakea zaintzen dala; arrolioa errege dala ikustean; eguneroko ogia yateko bear dogun dirua; laterrien norbekeriz eta batetik bestera dabillen diru-lapurretak dirala-ta, meago, merkeago, balio gitxiagoko ikusten dogunean; ankerkeri ta gogorkeri aldira eldu gareanean; atxillotze, baitura ta beren-beregi su emotea; etsu gayak ikastoletan irakasten diranean; ume-galtzea, lizun-itzulketak egunoroko gauza lez artu, lizunkeri idazle ta abar maitakeriaz batera aberastuteko biderik onentzat dagozanean; drogen bitartez gazteai inpernuko zerua eskintzen ikusten dogunean; eta gugandik urrin barik erri osoak, gosez gorputzak biurtuta, ezbearrez usteltzen; ainbeste apainkeri ainbeste ezbearren ondoan ikustean, gure azkatasunakaz ain arrot egoteko eskubiderik ete dogu?».

Argi ikusi geinke ba, aurrerapenagaz ezin arrotu geintkezala, ainbeste txarregaz nastuta datozeanean ta ondiño ainbeste aurrerapenen bearrizanean dagozan bitartean; asko dakian batek, ez dakiana geyago dala oartzan ba'dau, zertan arrotu ez daben lez. Asmakizun ta aurrerapena «oso-osoan» pozgarri ta txalogarri izango litzakez, «*baiña...*» barik etorriko ba'lira.

Onek ez dau esan gura baikor izan bear ez dogunik, baiña bai, gauzak bear diran lez ikusteko, alderdi guztietatik begiratu bear dautsegula.

## Egizko aurrerapena

Aurrerapena gizartearen onerako, eta gizon osoaren osotasunerako izan bear dau. Arimearen onerako bakarrik ba'litz ez litzake naikoa izango, eta soiñaren onerako bakarrik ba'litz, gitxiago; aurrerapena *abere* ederrak egiteko bakarrik ez da-ta. Neurri bardiñean izan bear dau, ostantzean aurrerapen «errena» izango litzake. Egizko aurrerapena gizona, eta kristiñauon artean kristiñauago izateko erreztasunak emoten dituauna izango litzake, eta orixe da ikusten ez doguna.

## AGOTAN BIZI BIZI BIZI

Gizonaren duintasun eta eskubideak «agotan» iñoz baiño geyago erabilten dira. Baiña besterik aitatu barik be, gaurko langilleari begirutzen ba'dautsogu, irabazi geyago ta aukera geyago izan arren, sendiaren bearrizana erantzuteko, or dakusgu gau eta egun lanean sendiko bizitzarako asti barik, langintzan al baitekin geyago atarateko *makiña* bat ba'litz lez, edo azkeneño tantaraiño atarateko aurrerapeneko «limoi» bat, beste alper asko lasai biziko ba'dira.

Onek esan gura dau, gaur eguneko aurrerapen guztiak gora-bera, zerbait oker dagola, aurrerapen guztiak arimearen bearrizana dabela. Bardin gertatzen da, langintza-bazkunak «S. A.» diranean. Niretzat, «S. A.» orreik erderaz «Sin Alma» sarritan beintzat esan gura dau.

«Diz-Diz egiten daben guztia ez da urregorri», esaten dan lez, «aurrerapen dirudian guztia ez da aurrerapen», egiz esan geinke.

# ZER

# EDO

# ZER

## Eleizearen Gurutzea

Edestian garbi ikusten da Eleiza Amaren bizitza Gurutz-bidea izan dala. Ez gara arritu bear gaur egunean bardin yarraitzean, Kristo berberak iragarri eban Berak baiño zori ohea ez ebala izango-ta. Ori yazoten da komunisten menpean yausi diranetan. Beste zeregin barik ito ez dabe egingo, baiña biziten itxi be ez. Olango errietan bizi diran eleiz gizon eta katolikuburu egiten dabenen zoria, benetan tamalgarria da. Martiri ez dituez egingo, ori goragarria izango litzake-ta. Ori baiño bide maltzuarragoa da kontzientziz bete ezin leikezan legeak emon ta gaizkin biurtu. Arein arerio agertzen diranen artean be, beste ainbeste egiten dabena, Eleizaren azkatasunari buruauste gitxi ez dautse emoten.

Gizonaren eskubideak, indarkeriz, gogorkeriz eta ankerkeriz zapalduta ikusten dituanen, zuzentasuna zapalduta ikuste dabenean, ixillik egotea ontzat emotea uste izan leikenean, Eleizak, edo eleiz-gizonak zerbait esaten asartzen ba'dira, gorriak bakarrik ez, zuri antzeko asko asarrez yarten dira, Eleizaren arazoa arimak zaintzea dala esanaz. Dana izaten da, gizonak gorputza be ba-dabela aztuten diralako, eta Eleiza gizon osoa salbatzen alegindu bear dala, *gorputz eta arima* betiko zoriontsu egiteko. Eleizaren Buru Yesu-Kristo be orretarako gizon egin zan, Eta EGI BER-BERA, izan arren ezker eta eskoi, lapur biren erdian gurutzean yosi eben. Mundu onetan Eleizeari be orixe yazoten yako.

## Argi itz-egiteko ordua

Eleizea, bidebagekeriak ikusita, ixillik lan egiten dau okerrak zuzentzeko, zarata asko eginda sarritan txarrago izaten dalako. Baiña nozbait zarata egiteko aldia eltzen da-ta, Ipar-Amerika'ko Gotzain Batza'ren Batzorde-egilleak, 48 gotzaiñek, ango agintari-iei adierazo dautse, Txile ta Brasil'en gizonaren eskubideak aintzat artzen ez dabezalako, diru ta izkillu languntzarik ez emoteko, gizonaren eskubideak zaintzeko baldintzapean izan ezik. Eta gotzaiñok, agintari-iei diñotse, ori, kontzientziak eskatzen dabena gauzea dala.

Gogorkeri, ankerkeri ta zuzenbagekeri azpian dagozanei laguntzea, ez iñoren gauzetan sartzea maitasunak agintzen dabenean baiño, Sao Felix'eko gotzain adoretzu Kasaldaliga yau-nak idatzi dabena, naiko da Ipar Amerika'ko gotzaiñak zuzen dagozala yakiteko.

Brasil'en lur-yabetasuna zelan dagoan yakiteko, auxe baiño ez dogu aitatu: Lur-alde izugarriak ezerekeri bategaitik saldu dautsez langintza edo empresa batzueri, eta beste askoren artean bat dago 695.843 ektarea sendi batena dana, eta Para estaduan beste bat 1.500.000 ektarearen yaube dana. Eta menpekoak ogia urri ta lurrik non yuasi be ez. Orretarako ez dala eskubiderik argi dago.

## Solzhenitsyn. Otoi bat

Aspaldian ainbeste aitatzen dan errusitar idazle ospetsuaren, Nobel saria irabazi arren, an yazo diran bidebakeriak azaldu ditualako yaurtia izan danaren otoi bat ingalanderaz, *Catholic Herald* asterokoan, argitaldu dabe. Zerbait esan gura daben otoitz au, euskeraz biurtuta ara emen:

«O. Yauna!, Zugaz bizitea gauza  
(erreza da,

Nitzat Zugan ziñestea beste errez.

Espiritua nire gain illuntzen danean,  
eta ni zapalduta mututu.

Gizonik bizkorrenak be,  
biarko egunak ekarriko dabena  
ezagutzen dabenean.

Zuk ziurtasuna emoten dauskuzu  
ziurkiro eragozpenbako Ontasunaren  
erretena zaintzen dodala.

Lurreko aintzaren erpiña olan goituaz  
Nik egundo, bakarrik aurkituko ez  
(neban

Bidea ikusten dot

Bide arrigarria, etsipenaren aurrez  
(dagoana.

Zure munduaren diztira izatera eldu  
(naitenean

Zer esan bear dodan Zeuk bakarrik  
(agertuko daustazu

Eta aurrera eroateko astirik ez ba'dot,  
Orrek esan gura dau,  
orretarako beste batzuk autu dozuzala.

Otoitz au, yakiña, lenengoz errusieraz idatzi eban. Gero Txikago'ko Prantzizkotarren egutegi baten kroatarren izkuntzan agertu, eta andik ingalanderara aldatu.

Otoitz onetan ikusi geinkenez, ziñestedun gizona da, eta aldi bateko Bakon'ek esaten eban lez, yakituri askok Yaungoikoagana eroaten dau, eta yakituri gitxik aldendu.


# URTEBETE

## J. MARITAIN'EN GOMUTAZ

*Bere eriotzeatzaz zerbait esan gendun, baiña ain yakitun andi ta euskeldunon adizkide zintzoa izan zan ezkeru, bere gomutaz zer edo zer geyago esatea egoki deritxogu.*

*VI Paul'ek bein baiño geyagotan bere itzaldietan aitatu dau. Igaz, Yorraillak 29'garrean, itz oneik aitatu zituan: «Edozein irakaslek, berak irakasten daben gaya al bait zeatzen azaltzen alegindu bear dau, al daben ondoen gai ori sakonduten aleginduta. Baiña ondiño sakonago egiaren serbitzari izan bear dau. Egiari osoan opalduta dagon ezkeru, danen gaiñetik egia maitatu bear dau; eta kristiñau ba'da, Yaungoikoa bera maitatzen dau».*

*Eta itandu eban: «Olan itz-egiten dabena, nor da? Au da Maritain atzo Toulouse'en il zana. Gure aldi onetako adinlangille andia, oldoztu, bizi ta otoitz egiteko erea irakatsi euskuna. Bakarrik eta txiro il da Foukauld Anayetxoen etxean».*



*Goyan aitatutako itzak oin amar urte inguru esandakoak dira, baiña igaz il-obiratu ebeneneko eleizkizunean, itzaldi ordez, berak esandako itzok entzun ziran.*

## VI Paul'en adizkide andia

*Bere samin agurra agertzeko Aita Santuak Jesus'en Anayetxuen nagosiari bialdu*

# IL ZALA

*eutsan mezuan, esaten eban Maritain izan zala «guztionzat pilosopo andi bat, ziñestean eredu zan kristiñaua, eta guretzat berariz maite genduan adizkidea». Batez be, Batikano'n Prantzia'ren Ordeleri izentau eben ezkerotik.*

## Maritain Yakituri-zale ta Egizale

*Lenengo gizaldietako Yustino deunaren antzera pilosopoen irakatsiak arakatuta egia aurkitu arte ez eban izan bakerik. Bein egia ondo ezagututa idazti sakonen bidez eta irakasletzan batez be, alegin guztia egin eban. Egiaren arerioen aurka kemen-tsu yokatu eban bere bizi guztian, iñoren bildur barik. Bere ikurritza aldi bateko euskaldun ospetsu batena izan zan non-bait: «Egia geugaz, danen aurka». Baiña batez be, egia ezagutu, egia maitetu ta egia egiten izan zan guztion eredu.*

# ZER EDO ZER

## INDIOTARREN ALDE

Brasil'eko sei gotzaiñek 34 orrialdeko agiria agintariei zuzendu dautse Amazonia'ko indiotarren alde. Izan be, Transamazonia'ko bide zabala egiten diarduenak indioen erri osoak ondatu ta euren kultura-yakintza yator berezia galtzeko zorian ipiñi ta Europa'koak sartzen dituelako, agintariei eskatzen dautse, alegin guztiak egin daizela kalte orreik galerazteko. Indiotarren gauza onak zaindu ta erbesteko kultura onagaz geyagotutea, ederto etorriko litzakie, baiña dauken ona ondatu ta txarragoa ezartea, gizabidea danik iñork be ez dau esango.

## GIZONAREN ESKUBIDEAK

Alde guztietan ondo zainduko ba'lira ainbeste aitatu bearrik ez litzake izango, baiña, zoritxarrez, VI Paul Aita Santuak diño ONU'k iragarri zituan ogetabostgarren urtean, toki askotan ez dira aintzat artzen, ez azalez ez mamiz, ori izenpetu ta ontzat emon ebezan laterri askotan. Ori dala-ta Olinda ta Refize'ko gongotzain Helder Kamara'k Suiza'n 7.000 lagunuen aurrean egin eban itzaldi baten eskatu dau laterri arteko epaitegi bat eraldu bear litzakela, gizonaren duintasunaren aurkako bidebakokeri ta gogorkeriak zigortzeko. Epaitegi onetan alde guztietakoak, zixestedun eta ainbakoak be sartu bearko litzakez, gogorkeri guztiak gizaditik baztertzeko. Ainbeste buruauسته eta lan bakearen, eta langille, gosegi ta beartsuen alde egin dan deya aizeak ez al dau eroango.

Gotzain ospetsu onek oraintzu artu dau berarizko bake saria, Nobel'en ordez, eta orain barrero eskatzen dabe aurtengo bakearen aldezko Bake-sari beroneri emoteko, eta beste askoren artean, Ingalanda'ko 36 aldun edo diputauk.

## KATOLIKUAK INGALANDA'KO ALDUNDIAN

Oraintzu auteskundeak izan dira Ingalanda'n eta apur bategaitik laboristak urten dabe nagosi. Alderdi guztietakoak 37 dira katolikuak, egin-egiñean, len beste. Norbaitek uste izan lei geyenak konserbadoreak izan dirala. Orretan oker legoke. Ingalanda'ko katoliku diputauak laboristen artean beti izan dira geyago, konserbadoreen artean baiño. Eta oingoan be bardin da. Izan be, erlejiño arazoan ango laboristak emengo «sosialisten» antzik ez dauke. Lenengo batzarraren aurretik egiten daben eleizkizunean Idazti Deuneko irakurteak gobernuko buruak egiten ditu, eta oingoan Wilson'en txandea izan da.

## GOSE DIRANEN ALDE

Aspaldian sarritan entzun dogu, lurbiran irutik bi gosez edo bear dan beste yateko barik bizi dirala. Eta ez oin egon dan siketeagaz Apirka'ko laterri askotan Sahara inguruetan eta Etiopia'n be millakaz asko gosez il diralako, beti be lurbiran gosez asko ta asko ilten izan dira-ta. Eta ointxe be egunean 500 Sahara inguruan ilten dirala-ta, Batikano irriatiak dei bat egin dau laguntzeko. Gosez ilten diranen artean zaspitik bost umeak izaten dira. Irrati orrek diñonez, izkilluz, armaz, ornitzearren, birritan ilten dabe: lenengo erri atzeratuen artean arek bear daben ogia izkullutan eralgiten dabelako, eta bigarren gudak egitean. Au da, lenengo, tirorik yaurti barik, ogitako bear dana izkullutan eralgiten dalako, eta bigarren, tiroka ilten dabenean. Alan ba or gabiltz arro-arro «zibilizau» ta «aurretatuak» gareala esaten! Itxurea ba'dago...!

## BETIKOA!: BESTEREN ONA EZIN IKUSI!

Lawrence Elliott amerikar idazleak XXIII Yon'en bizitza bat argitaldu dau. Itz-aurrea Edward Kennedy'ña. Beste gauza askoren artean Ronkalli'n umeoroa azaltzean, mutil bizkorra izan zala diño. Ori, abadetzarako lagundu eutsen parrokoak, laster ezagutu eban, baiña lagunak ez eben aintzat artzen. Egun baten ikastola-ikerlariak, guztioi txikitari egin yakun itauna egin eutsen: «Zer da astunago, tonelada bat burdiña ala tonelada galtzu?» Mutiko guztiak garrazi baten erantzun eben: «Tonelada bat burdiña». Danak ixildu ziranean Ronkalli txikiak erantzun eban: «Astuntasunez tonelada bat, tonelada bat da». Ikerlariak txalotu eban, baiña, bere lagun batek diño: «Guk lepoa berotu geutson». Alde guzti eta betiko gatxa: Besteen ona ezin ikusi!...



# ZER EDO ZER

## «BAL» ETA «EZA» EZIN ALKARTU

Aspaldian asko dira ames ori lortzeko alegintzen diranak. Gauza eziña dala zentzunak esan arren, zer edo zer egin gurarik ba dira orretan alegintzen diranak.

Ointzu Burdeos'en zosialista ta kristiñauen batzar bat izan da. Protestanteak be an izan ziran. Katolikotarren artetik Graffé abadea yoan zan. Azkenean komunistak agertu dabe, euren irakatsiak eta kristiñauenak zuztarrez alkartu ezindakoak dirala. Beste ainbeste iragarri dabe Ungria'ko komunistak. Komunisten asmoa, ziñeskera guztiak ondatutea da, Yangoikoaren izatea zearo ukatzen dabe-ta. Egia da, zur ez dabillena atzipetuteko, euren legedietan, ziñeste azkatasuna aldeztzen dabe, baiña era berean erlejiño guztien aurka ekiteko azkatasuna, eta orretan dira mutillak! Bardin dira marxista ta marxista irakatsietan oifarria daben zosialistak, Baita egia da izen ori artzen daben asko Yaungoikogabeak ez dirala, baiña egi andiagioa da XI Pio'k esan ebanez: «Iñor be ezin leiteke izan batera katoliku on eta benetako zosialista».

Orrek ez dau esan gura, langille arazoetan gizarte zuzentasunaren alde batera jo ezin leikenik, baiña bai, euren irakatsietan «bai» ta «ez» ezin alkartu leikezala.

## ENTZUN ETA GOR

Atsegin ez dan egiari entzun eta gor egitea, gizartean zabal dabillen gexoa da. Batez be indarkeriz yokatu gura dabenez artean. Auxe jazoten da Txile'n be. Lengo udagoyenean, yazokun negargarrien ondoren, gudari-buruak aginpi-deagaz yabetu ziran. Eta indarragaz yayoten dana indar barik ezin bizi daiteke-ta, zuzentasuna opor-aldira bialdu dabe nonbait.

Gauza negargarriak yazo dira gizonaren eskubideak aintzat artu ez diralako. Txile'n eleiz-buru dan kardenal Raul Silva Henriquez'ek diño: «Guk esan dogu indarkeriak indarkeria baiño ez dakarrela. Guk gure erriari ta agintariei esan dautsegu gizonagazko itzala aldeztzen daben irakatsiak aintzat artu bear dirala; gizonaren eskubideak itzalgarririk dirala, eta iñork be ez dituala ausi bear. Egia era guztietara esan dautsegu, baiña, entzun eta gor, egin dauskue». Auxe esan dau eundaka lagunuen aurrean Santiago'ko Gotzain-eleizan. Orrez gaiñera, nork esan barik, «eriotzeagaz zemaitu ebela». esan eban. Agintariak laster iragarri eben eriotzeagaz zemaitu ebenak «ezker-ezkerrekoak dirala. Batek baki!

Dana dala, kardenal adoretu onek, igaro dan Azillean, Erroma'ra egin eban osteran, argi azaldu eban Allende'n aldian, eta agintari barriekaz be, egi ta zuzentasunez yokatu ebela, egia esan bear zanean egia esanaz, naiz barri zabaltzailleak bein baiño gayagotan gauzak naspiltzen alegindu. Egia erregarri ezpa'litz mundu au beste era batekoa izango litzake!

## LOURDES'KO BIDEZTIAK 1973'GNEAN

Igaro dan urtean Lourdes'era bidezkundez yoan diranak 3.568.610 izan dira. 413.739 bultzi edo trenez; berarizko bultziz 759.873; 144.714 egazkiñez; 390.360 berarizko autobusetan; 1.740.814 bakoitzaren berebilletan; azkenez 215.000 eurak euretara, bultziz ala oiñez. Askoren epelkeria gora-bera, ba-da Andra Maria'ganako zaletasuna!

## «GABAZ BAKARRIK»

XXIII Yon Aita Santua abade egin barria, Bergamo'ko gotzain ospetsuak bere idazkari egin eban. Ronkali'k gero, aren bizitzea idatzi eban eta «bere abadetzako artizarra» izan zala esaten eban. Radini Tedeski gotzain kementsua izan zan. Bein burdiñolako langilleak, aloger gitxi emoten utsela-ta, opor egin eben eta euren alde urten eban. Aldi aretan benetan adoretua izan bear ori egiteko. Amar urte gotzaiaren idazkari igarota lenengo guda nagusia zalata-1915'garrenean gudatzitzara eroan eben, eta sarjento izatera eldu zan.

Egun baten gudari bat, egin eban utsen bategaitik, iru egunean gudaletxe kuartelean egoteko zigortu eban. Beste guztiak opor aldia eukela-ta urira yoan ziran.

Ronkali gudaletxera yoan zanean an aurkitu eban zigortu eban gudaria ta itaundu eutson: —Zu zergaitik ez zara yoan besteakaz urira?»

—Zuk iru egunean gudaletxean egoteko zigortu ninduzulako.

—«Bai, bai; erantzun eutson Ronkali sarjentoak —nik esan gura neuntzun gabaz bakarrik egon bear ziñala. Egunez zeuk gura dozun tokira yoateko azke zagoz». Or ikusten da bere gogo ona, eta biotz gogorrekoa ez zala izan.

# ZER EDO ZER

**Trotxta Kardenalaren eriotzea.**—Yorraillak 7'gnean, Limorize, Txeko-slobakia'ko Gotzain ospetsu au ilzan. Benetan ziñoepa zala esan geinke. Abade zala, «nazien» espetxeetan urteak egiña, eta gero, gotzain zala, ainbeste urte komunistenetan. Azken baten azkatu eben; Limorize'ko gotzaintzan yardun eban. Millaka asko bildu ziran bere illeta-eleizkizunetan, gotzain eleizan eta inguruan, Praga'ko Tomasec agurgarriak Mezea esan eban, eta an ziran txeko gotzain guztiak eta Biena ta Krakobia'ko kardenalak be. Baiña komunista agintarian menpean bizi diran katolikotarrak ze eratako azkatasuna daben yakiteko, auxe da naikoa: Agintariak beste iñongo eleizetan eleizkizunak egitea galerazo dabe eta ildakoen ikurrin baltza ipintea be bai.

**Eurok diñoenean.**—Mosku'ko izparringi «Pravda»k diño, yainkobako zabalkunde ohea egin bearra dagola. Zer dala-ta? Gaztediak erlijiiñoari, yainkogabekeriari baiño, ardura geyagoz begiratzen dautsolako. Bere tamala agertzen dau gaztediak Eleizeak gizaldiak zear ertilanen alde egin dabena ikusita, Eleizak yakintza arazoetan euki daben eraginpena ikusten dabela-ta.

«Pravda»k, erlijiiñoaren kaltez ekiteko, nastukeriz eta zentzun barik ez dala yokatu bear diño. Lenengo aldietan olan yokatzeak yainkobagekeria zabaltzeari kalte egin eutsola-ta. Izan be, erlijiiño barik gizonaren biotza uts gelditzen da, eta ez da munduan uts ori bete leiken gauzarik.

**Ungria'n be...**—Guztiok dakigun gauzea da, Ungria'n, inguruko Txeko-slobakia'n, Polonia'n eta abarretan lez, komunisten menpean indarrez yausi zirala, eta ardiak otsoaren ardurapean lez bizi dirala. Eta komunisten menpean yausi diran katolikoak, edozein gizonek, izate legez daukozan eskubideak zapalduta bizi dirala. Ez itzez, ez idatziz, bakarrean naiz alkartuta, euren eskubideen alde yokatzea galerazo egiten dautsee. Ungria'n be gorriak ikusiak dira. Ikusten danez, erria eurekanatutea ez dabe lortu.

Urte askotan komunisten buru dan Janos Kadar'ek, oraintzu egin daben itzaldi baten esan dau: ziñestedun eta ziñestebakoen auziak ebatzi leikezela. Baiña politika arazoetan bakotxak munduagazko dauzan eretxiak *garrantzirik ez dabela*. Eta Ungria'ko agintariak bultz-eginda, Aita Santuak, Mindszenti kardenalaren ordekoa izentau dabela diñoenai, erantzunez diño: «Ori esaten dabena Aita Santua dan baiño gitxiagotzat artzen dau». Uste dogu Ungria'ko sei milloi katolikoak, Janos Kadar'en itzoi abegi ona egingo eutsela, baiña zentzunak eskatzen dabenez, ez bayan yokatuko dabela, euren alkar-izketa guraria, komunistak benetan artzen dabela ikusi arte.

**«Paco Vargas» zala-ta, «ZELETA»ri.**—Igaro dan Yorrailleko 27'gneko zenbakian, «GOIZ ARGÍ» asteroko begikoan, zure lantxo bat irakurri neban, «Cristobal Colon»en yayoterra zala-ta. Ara gai orretzaz zer edo zertxo geyago. Oin 50 urte inguru, ni Eibar'en bizi nintzala, Isasi'ra etorri yatan aldi bateko Sanchez Gerra'n antzeko bizarragaz, mesede bat eskatzera. Sorluzetarra zala esan eustan, «Paco Vargas» izen ordez deitzen eutsela eta bultz, trenen ikertzaillea —inspector de ferrokarriles— zala. Eta idazti anditxo bat atarata, esan eustan, idazti a «Cristobal Colon» euskelduna zala egiztuteko idatzí ebalá, eta ea euskerara ta bertsoetan itzuliko ete neban, eskatzen eustan.

Idaztia aztertu ondoren, esan neutson, euskeraz eta bertsoetan ipinteari ondo neritxola, baiña tamalez nik ez neukola gaitasunik ezta astirik be.

Euskeldunak, Tubal'en yatorrikoak zirala azaldu ondoren, zeaztasun guztiaz azaltzen eban Kolon Elorrio'koa zala. Au egiztuteko Kolon'ek arakatu eban lenengo ugarteá «Concepción» zala, ta izen ori ipiñi eutsola, Elorrio'ko Eleiza nagusia, Bizkaia'n izen orregaz lenengoz deitua izan zalako. Kolon'en ikurdia, oingo Colon de Larreategi'ña berbera zala, ta ainbeste ugarteri euskel izena ezarri eutsela, euron artean «Jamaika», berak idoro eban «amaika»garren ugarteá izan zalako, ta abar.

Dana dala, benetako euskelzale agertu zan, bere idaztia euskeraz eta bertsoetan atarateko asma agertu ebanean. Eta ori berrogetaka urte asko dirala! Gero erderaz argitaldu ebalá entzunda neukon, baiña geyago bere barririk ez neban izan.

# EUSKERA



## ZER EDO ZER

### BAKOTXAK BERE IZKUNTZEA

Batikano,ko II Eleiz-Batzar Nagusian, Mezea ta beste cleizkizunak erri bakotxak bere izkuntzan egitea ontzat emon eben. Ori gauzeak bera eskatzen dabena dala igarteko, zentzunak berak eskatzen dabela esan bearririk ez dago. Egi andia da izan be, XIII Leon Aita Santuak, 1901'goan Boemia'ko gotzainei idatzi eutsena: «Gizonaren izate-maminiñean dago asabakandik artutako izkuntzea maitatu ta zaindutea». Zirilo ta Metodio anai deunak, arerio asko izan arren, orixe eslaobaterrentzat IX gizaldian lortu eben. Eta alderdi atako errien zaindari maitatuak dira.

Eta Eleizearen izena ezin aitatu leike ba, zuzentasunak eskatzen dabeneri aurka egiteko.

### BRETONDARREN APOSTOLU

Be aldeko Bretaña'n lan egin eban Aita J. Maunoir, Yesus'en lagundikoa benetan ospetsua da. Erri orretan 42 urtetan eten barik Onaren irakatsiak zabaltzen ekin eutsen. Lenegotan, eragozpen andiak izan zituan bretondarren izkuntzea ez ekialako. Eragozpen au azpiratzeko gogo bizia eukon, eta Ti Man Loe Andra Maria'ren eleizara bidezkunde baten, bearrizan andia eukola-ta, izkuntzea al bait lasterren yakiteko guraria agertu eban. Eta beste barik, bretondarren izkuntzea ondo ekiala biurtu zan. Eta 42 urtetan, izkuntza ori ekian erriari, ziñeste egiak eta bizitzea irakasten yardun eban. Eta egin zituan mirariak ontzat emonda, XII Pio'k, 1949'ganean zoriondunen arteko zala iragarri eban. 1606'ganean yayo zan.

### BESTE EREDU ON BAT

Marsella'ko gongotzain Etchegaray, euskaldunak, iragarri dabenez, uste da, Urte Santua dala-ta, datorren urtean Mazendin gotzain agurgarria zoriondun iragarria izango da! Aix-en-Provence'n 1782'ganean yayo Prantzia'ko matxinada aldian, erbestuta bere sendikoak, Paris'en bizi izan zan, abadegeietxeke zuzendari. Bere erri aldera biurtu zanean, amalau urtean bere osaba gotzain zar baten ordelari izan zan, eta il zanean, bere ondorengo. Parroki-eleiza asko iragi,

abadeak ugaritzeko alegin andiak egin eta Notre Dame-de-la-Garde eta Gotzain-cleiz barria be berak egin zituan.

Baiña bere lanik andiena, Probenza'ko izkuntzaren alde egin ebana izan zan. Arles'ko abade lagun bategaz, Probenza'ko Sorkunde Garbiaren Mixiolarien gopatza irasi eban, Mixiolari onein elburua, probentzeraz Ebanjelioko irakatsiak zabaltzea izan zan. Egundoko lan ederra egin ben. Napoleon III'ak «senadore» autu eban eta 1861'goan il zan.

### GOGOAN EUKITEKOA DA

Izan be, ainbeste aitutzen dan Aita Karberaz'en esan au: «Gure probetxo on askoren animak salbatzeko, euskarak burua jatztea Jainkoak nai du».

Eta gai onetzaz ara «Urte Guztiko Meza ta Besperak» idatzi ederraren itz-aurrean «Orixe» idazle argi, ospetsuak diñoana: «Aita Kardaberaz'ek akar egin zion bizkai tar apaizei itzaldiak gizpuzkeraz egiten zitutelako».

Eta Mallorca'n gertatua: Jesuita bat gazteleraz ari zan Jainkoaren izta adierazten, eta berakin eraman zuan laguna, San Alfonso Rodríguez, ototzean ari zan. Ontan, zeruko mintzo bat entzuten du: Esaiozu Aita orri, Purgatorioan garbitu bearko dula uts orri».

### GUZTIOK BATERA TA ETEN BARIK

Euskeltzaleok dana bearrean ondiño bizi gara, baiña apur bat aurreratuez gozala ikusteak, adoretu egin bear gaitu. Oin berrogeta amabi urte sortu zan «Jaungoiko Zale» abade bazkuna, baktzari bere izkuntzan eta «Eu keldunei Eu keraz» Kristiñau-Ikasbidea irakasteko asmoaz. Eta goitik, betik eta alboetatik zenbat eragozpen azpiratu bearra izan zan bertan sartuta egozanak ondo dakie. Oin berrogei urte yayo ziranak baiño obeto!

Gaur zerbait lortu dogula-ta, ernai yarraitu bearra daukogu; ta ezer egin barik, «Geurea da-ta»... abestutea naiko dala uste ba'dogu, inguratzen gaituan erdel-giroak arnasa barik itxiko gaitu.

Amesetan ibilteko aldietan ez gara bizi. Guztiok batera eta eten barik ekin!

## Izketan

—Aspaldian, Peru, gure Erriaren etorkizuna dokala-ta, buru-auste andiak erabilli yoadaz, eta gai oneri alderdi onetik begiratzen alegindu arren, etorkizuna illun ikusten yoa.

—Ez az ba, Manu, illunzale agertu, orain arteko alkar-izketetan eta eure itzok apur bat arritu egiten ñabek.

—Etorkizuna illun ikustea, ez dok neu aldatu nokalako, gauzak aldatu dozakalako baiño.

—Gauzak aldatu dozakala egia dok, baiña ez dok uste onerako izan dozakala?

—Batzuentzat ba'leitekek olan izatea, baiña erriarentzat ez yoa uste.

—Ezetz diñok? Erriaren onerako ez dozak ba, alde guztietan egin diran ainbeste etxebarri, ainbeste ola ta lantegi, sendientzako ainbeste aukera, alde guztietara urak eta argia eroatea, bizitza eroso ta aukerakoago bat izan dagien, lan sarietan ainbeste diru irabaztea, yoa-eterrietarako erreztasunak, bizitzarako ta ikasketarako ainbeste egokitasun, mundu guztiko barriak yakin eta ikusteko etxean bertan ainbeste aukera eta abar, ez ete dozak ba errien onerako?

—Nik ez doat esango ori guztiz ondo ez dagoanik, baiña, ezta errien aurrerapena bakarrik eta geyen batean yagoanik be. Gizon baten on izatea, aberatz izan, aukeran bizi ta buru-austerik ez eukitean, ta berak nai dabena egitean ez yagok; gizon zintzo, egi-zale, zuzentasuna zaindu, bere eskubideak eta besterenak be zaintzen alegintzen izatean baiño. Erriakaz be bardin. Erri aberatz, aurrerapen guztiak dituena, etxe ederrak, kale garbiak, soñeko apañak, gauza onak dozak, baiña gizonaren eskubiderik aintzat artzen ez ba dok, maitasunik ez ba dok, bakotxari zor yakona emoten ez ba yakok, bere nortasuna eta eskubideak aintzat artzen ez ba dozak, ezin esan geinkek erri ori aurreratua danik. Yakiña, bai eskubideak eta eginbearrak beti alkartuta yabizek-eta.

—Bai, emen beste gauza batzuetan yazoten dokana; alde batetik begiratu ezker, gauza bat yirudik, eta bestetik begiratu ezker, beste bat. Orixe dokala-ta, esan dokan guztia ontzat emoten yoa, baiña aurrera-bidea ez yagok azalean, barruan baiño.

—Izan be, neu be orretan ñagok; gizon bat nai erri bat aurrerantz ala atzerantz yoyan yakiteko, lenengo zer doan «aurreruntz» ala «atzeruntz» yotea yakin bear, eta orretarako, egizko «aurrerapena» zetan yagoan yakin bear, ostean ez yakok alkar aitzerik. Eta orretan, ez yok iñork auxe ukatuko: «Gizona gizonago egiten yoa dana dok aurrerapena, eta bardin Euskal-Erriatzaz esan geinkek: geroago ta Euskal-Erriago egiten yokan guztia guretzat «aurrerapen». Orren kaltezko dan guztia «atzerapen» dokala esan bearko».

—Ik diñokana arautzat artu ezker, aspaldi onetan aurrerapen andirik ez yoguk egin.

—Tamalgarria dok baiña egia dokala ezin ukatu. Baserriak utsituez yoazak, eta egunero entzuten yoguk, alan dok izan be-ta, baserria gure erriaren oiñarri dokala, antxiñako ekandu onen eutsigarri ta gure euskerearen abi gozoa... Baserria galdu ezker ba, zer geldituko yakuk?

—Ori esaik. Ointxe gomutatzen nok, emengo oiturak ezagutzen etorri zoa alemandar gazte batek, Gipuzkoa'ko erri txiki baten ezagutu yoa oitura bakan bategaz: «Erri aretan baserri bat ustuten zanean, erriko eleizan il-kapayak yoten ebezela».

—Esangura andikoa dok izan be oitura ori. Baiña erri guztietara zabalduko ba'litzok, uste yoa, kanpai yotzailleak lan-sari andi goa eskatu bearrean aurkituko litzakezela. Egunero ba, ez dok besterik entzuten: «Urlie erosoago biziteko landola ondora biziten, baserria itxita yoa dok, iñork ez yotsak ba bere bizi-bidea indartzen lagundu; berendiek beste ainbeste egin yok, an euren izakerea, izkuntzea ta bizikereagaz zer ikusi ez daukenagaz nastean biziteko».

Eta orren ostea guztiok yakiguk.

—Egia dok, laterri guztietan bardin yasoten dala, baiña baita egia be, beste guztietan gexo ori zabal egoteak gure gexoa ez yoala obetuten. Geure gatxa besteetan be zabal dabilleta-ta, ezer egin barik egotea, lelo izatea izango litzakek.

—Orixe izango litzakek gero ta atzerago yotea, eta egunero ikusten yoaguna dala, aurrerantz ez yoazan erriak atzerantz eta ondamentirantz yoaten dozakala.

—Alantxe dot, baiña igarri barik astia yoa yakuk eta urren goan yarraitu bearko.

# ZER EDO ZER

## JEAN DANIELOU KARDENALAREN GOMUTAZ

Igaro dan Orrilleko 20<sup>g</sup>nean, 69 urtedun, babatean il zan ain entzute andiko yakintsu au. G. B.

Gerketar yakintza, Idazti Deun, Eleizaren lenengo edesti gaillendu gai orreitzaz, idazti sakon eta ugari idatzi ebazan. Eleizaren barrizkunde aldietan aita Kongar eta Lubac<sup>g</sup>egaz batera, aurrenenetakoa izan zan. XXIII Yon<sup>g</sup>ek Batikano<sup>g</sup>ko Eleiz Batzarreko trebe ta ikastunen arteko izentau eban. Geroztik, VI Paul<sup>g</sup>ek 1969<sup>g</sup>nean kardenal egin eban. Erextietan apur bat bigunago agertu zan, aurreragi yoan gura eban Suenes eta Alfrink kardenalalakaz eztabaidak izan zituan.

Toki askotan irakatsi eban, batez be, urte askotan Paris<sup>g</sup>ko Katoliku-Ikastelexean. 1973<sup>g</sup>nean Prantzi<sup>g</sup>ko Akademia<sup>n</sup> artu eban. Baiña, idazle yori ta sakon, eztabaidalari zorrotz, izlari trebe izatez gaiñera, ikasle gazteen suspartzaile bardin bakoa izan zan. Toki askotan gaztedi-bazkunak sori ta eurakaz batera bidezkunde ospetsuak egiten zituan, eta ointxe urte bi be, Xabier<sup>g</sup>era egin oi dabean bidezkundean buru agertu zan.

Aitaren aldetik bretondarra izan zan. Aita erriketan gaillendu zan ministro izatera eldu arte. Ama normandarra, ikasten eta irakasten gaitasun andikoa. Danielou gorputz ta gogoz amaren seme izan zan. Wladimir Ormeson<sup>g</sup>eri esan eutsonez, «kristautasunaren edertasun arrigarriak amak irakatsi eustazan». 1928<sup>g</sup>nean abade egin zan eta urrango urtean yesuita sartu. Bere illetetan, Arrupe abak itzaldia egin eban, eta esan, Danielou<sup>g</sup>k nai izan ebalu, bere illetetan Kristo<sup>g</sup>an berak ukon zihesteak bakarrik aitatzea.

## G. K. CHESTERTON<sup>g</sup>EN EUNGARRENA (1874-1936)

Gizon bakana, bakanik ba<sup>g</sup>da. Ingalandar idazle ospetsu onek, luzeran 1<sup>g</sup>90 zituan, eta astunean 140 kilo. Morrosko itzal onek, gaztetxo baten abotsa eukon. Lenengo begirakadan betozko itzaldun gizona, baiña izakeraz begiko, amultsu ta maitekorra. Gogo arginduna, guzur antzaz egirik sakonenak esaten ekiana, eztabaidalari yaoa, idazle yori ta trebea. Bere idatziak irakurri dituanen arten ez dot uste bere izena entzunda beste barik irribarre egiten ez dabarik izango dan. Ezkerreko begiaz gauzei ez eutsen begiratzen eta beti baikor agertzen zan.

Mutil baldrasa.—Bere bizitzako idazti andi baten diñozan, gaztetan argal eta luzea ei-zan. Yanzkeraz eta ibiltean baldras samarra. Ixil eta bakar zalea. Baiña buruz zer edo zer ba-zala,

laster agertu eban. Bost urtedun zala, bere anai Zezil yayo zanean, etxeko<sup>i</sup> auxe esan eutsen: «Oin, ba-daukot entzule bat». Entzule bakarrik ez zan izan, erantzule be, ta ez makala. Anai biok, gaztetan, ordu osoak eztabaida baten igaroten zituezan, egundo be asarretu barik; yatekoa gertu egoala ta etoriteko, baiña alperrik, anayok eurenearn yarraitzen eban ta sarritan yatekoa aurretik kendu bearrean aurkitzen ziran. Tamalez, Zezil, munduko lenengo guda nagusiaren amayeran, bakea eginda gero, uste bako tiro batek zauritu ta il zan.

Mutikotatik bere gogo argia agertzen eban. Gurasoei, ingalandarren artean zeozertzat dagozan sendietan itzak ondo oguztea atsegin izaten yake, Chesterton mutikoak ba-ekian ori, eta berak eskatzen ebana emoten ez ba<sup>g</sup>eutsoen, txarto oguziko ebalu zemaizen zituan.

Oso oargea izan zan.—Ospe apur bat artu ebanean, alde guztietara itzaldiak egiteko deitzen eutsone. Egun baten erri batera eldu ta ez ekian norako trenara artu bear eban, aztu egin yakon, eta emazteari urrutizkiñez itz egin bear izan eutsen. Bere gogo argia ezagutzeko, auxe bakarrik. Egun baten autobusean yuala, iru andrazko sartu ziran, eta berak zutundu eta iru «Graziak» bai liran, bere yarlekua irurei eskeñi eutsen.

Idazle bakana.—Egi sakonenak guzur antzean eta irribarreka irakasten, gatz andiaz atan be, berak eukon txatala iñork ez langoa izan zan. 1908<sup>g</sup>nean, «Ortodoxy» eritxon idazti sakon a atara eban. Eta mamiñez katoliku izan arren, 1922<sup>g</sup>rate Katoliku Eleizan ez zan sartu. Belloc eta Baring<sup>g</sup>en adizkide andia izan zan. Oneik katoliku idazlerik onenak ziran, orduan.

Eta Belloc<sup>g</sup>ek ez eban uste katoliku egingo zanik. Zergaitik? Aim zintzoa zalako ez eban uste ziheste auizan ezpairik izan zeikenik be, eta alan, Belloc<sup>g</sup>eri Chesterton katoliku biurtu zala esan eutsonean, ez eban zihestu gura izan. Katoliku izan ez arren, Bernard Shaw<sup>g</sup>en adizkide izan zan. Eztabaida gogorrak izan arren, egundo ez ziran asarretzen. Ori dala ta, Bernard Shaw<sup>g</sup>k esaten eban: «Chesterton adizkide baiño gurago dot arerio euki».

Ego-aprika<sup>g</sup>ko Boers<sup>g</sup>ekaz Ingalanda<sup>g</sup>k izan eban gudan, Boers<sup>g</sup>en alde yarri zan; areik euren buruyabe izateko, Ingalanda<sup>g</sup>k aiñako eskubidea eukala aldeztuaz.

Eun idaztitik gora idatzi zituan, baiña ezagunenak Aita Brown<sup>g</sup>en polizi-ipuñiak dira. A. Brown, Mons. O<sup>g</sup>Konnor, bera eleizen artu eban abadea izan zan.

Beste gauza asko esan leike, baiña zer edo zer bat zor yakola uste dot beintzat.

# Alkar-izketan

## GURE ERRIARI BEGIRA-II

—Bakik, Manu, azkenengo alkar-izketan erabili giñoan gaya, nik usteñoan baiño garrantzi andiagokoa dokala-ta, aste guztian burutik kendu eziñik ibilli nintzoala?

—Poztuten nok, Peru, errien benetako aurrerapena buruz zerbait oldoztea, guztioi yoakun gauza dokalako. Ori, erriaganako maitasun zintzoak eskatzen yokana dok.

—Bai, olantxe dok, baiña nik «zintzotasun» gitxi oartzen yoat bazterretan, Len, gure erria, zintzotasunean aurrenengoa zoala ao batez esaten zoon; gaur, ez yoat uste olangorik esan leikenik.

—Zuzen ago, orretan «aurrera» gozanim ez yoat uste, naizta gizon bako-txarentzat eta errientzat «zintzoa» izatea gauzarik txalogarriena izan. Len, aldi bateko esakuna gogoan eukiten zoon: «idia adarretik ta gizona berbatik». Eta Amerika aldean gaur be, zin-egiten dala esateko; «euskaldunen berbea» emon dokala esatea naikotzat artzen dok. Gaur, euskaldun askoren itzak be, axeak eroaten yozak...

—Ez ori bakarrik, len iñoren gauzeari itzalez begiratzean, gure erria lenengo maillan egoten zoon. Au egiztuteko, naiko dok auxe: 1870'gn urtean batzar bat egin zoon Paris'en, ea munduan esku garbikoen erria zein zoon yakiteko. Eta Euskal-erriak lenengo saria irabazi yoan. Yaungoikoaren aginduak naiko zoazan, ortuarieri ta bakean isteko. Eta Markiña ta Gernika'ko espetxeetan, lapurretan egitearren, bat bakarrik aurkitzen zoon, eta bera erbestekoa. Ori 50.000 biztanleen artean. Orrek ez yok esan gura orduan emengo guztiak aingeruak zozanim, baiña zerbait esan gura yoala ezin ukatu.

—Bai, zerbait baiño geyago be bai, gaurko guzur eta lapurretari begiratu ezker. Ainbeste yente ta naste ugaritzeagaz, ez dok arritzeko gauza, baiña argi yagok zintzotasunean atzerantza egin yogula.

—Ba, edozeinentzat be bai, baiña erri batentzat gexo txarra dok, zintzoa ez izateak, gizarteari kalte asko ekarten yautsozak-eta. Erri zintzoa, erri jatorra dok, ta zintzotasunaren lokarria urratu ezker, erriak bere izatea be galdu egiten yokala esan geinkek.

—Egi andi bat diñok, izan be, gizartean artu-emonetarako zintzotasuna bear-bearrekoa dok, zintzotasun barik ez yagok alkarrenganako usterik, eta alkarrenganako uste barik, erria zetan gelditzen dok? Gizon pillo baten, eta gizon pilloa, edonork yakik, erri ez dokala.

—Orrenbesteraíño eldu goazanik ez yoat esango, baiña bidean gaituala bai. Uri andietan yazoten danari begiratzea baiño ez yagok. Kanpantorrea baiño etxe andiagoz bete, an gizatalde pilloak pillatu, alde guztietako sendiak marraskilloen antzera, bakotxa bere bizilekuan sartu, auzokoak ia ezagutu barik, eta bata besteen arduta barik, nork ez yozak ikusten?

—Ori bakarrik ba'litzok! Gaurko bizi-bideak, beste ondorengo bat, txarra goa atan be, ekarten yok: Sendikoen sakabanatzea. Gaurko egunean, nagusieganako itzal eta maitasuna urritu egin dok, biurrikeria ugaritu ta gurasoakanako menpetasuna galdu, batasuna ezereztu ta norberekeria ugarituaz, sendiko batasuna galdu egin dok, eta orregaz beste dana.

—Ez ñok orrek bape arritzen. Len sendiak alkartu ta auzoak osotuten yoezan; auzoak erria osotuten yoen, Erriak ez zoazan sortzen erritar, bakotxa besteakaz alkartzen zoalako, erriko sendien batasunetik baiño, ortik alkarri laguntzeko oiturak: bidegintzak, auzo-lanak eta abar. Gaur olangorik ikustea arritzekoa izaten dok.

—Yatortasuna ta zintzotasuna arritzeko gauzak diran errian, urri dabil-tzala esan gura yok. Eta ori, etorkizunari begiratu ezkerro, ezaugarri txarra dokala ezin ukatu, gauza orreik lotsearen antzera, baten bakarrik galtzen dozak-eta.

—«Ezpanetakoa» naiko ba'litzok zerbait itxaron leikek, baiña orixe dok gauza bat egitan agertzen ez ba'dok, utsen urrengoa baiño ez dok izaten. Euskaldunak antxiña abestuten yoen: «Barriketea ba'litz gorua...»

—Ori be egia dok, baiña alkar-izketa au luzeegi egin baiño len, urrengorako itxi bearko yoaguk.

# Alkar-Izketan

## Gure Erriari begira-3

Lengoan, Peru, euskaldunak zintzotasun ta yatoritasunean entzute onekoak izan zoazala esan giñoan, baiña ori egia izan arren, lelokeri bat izango litzakek, zintzo izateko euskaldun izatea naiko dala izango litzakela esatea.

—Ori, Manu, esan bearrik be ez yagok, beste edozein lekutan lez, arbasoen ikasi galtzen danean, emen be ardi zurien artean baltzak be beti egin dozak, eta ez gitxi be. Naizta aoin ta-malez, ugaritzen yoan.

—Ortik ikusi geinkek, antxiñako esanak: «Euskaldun fededudun» eta prantzesak esaten ekiena: «Qui dit basque, dit catholique» batasun aren esanak besterik ez yok esan gura, geyen baten olan izaten dokala baiño. Zentzuna yaukanak beintzat olatxe aitua bear yozak.

—Ziñestea aitatu dokan ezkeru, ez dok uste gure errian ziñistek berantzta egin yokala?

—Ori, mutil, ezin ukatu leikek, begi aurean agertzen dokan gauzea dok-eta.

—Eta gaitz ori nondik sortu dokala uste dok ik?

—Orren barri Yainkoak bakarrik yakik, Yainkoak eta orretan dabilzan salduak, zoritxar orrek zuster asko yaukezak-eta. Baiña ainbeste guda, asarre ta ondorengo ekandu txarrak, aukera zalekeriak, erbesteko oitura okerrak, ziñeste gayetan yakin-eza ta yakin gura-eza, ta norbere buruagaz ibilli bearrean, iñoren «adarleri» dabilzan ez-ikasiak, itz baten, giro epelean bizi ta batpatean lilluratzen yokanari gertatzen yakona lez, gaixoak arrapau...

—Baiña ez dok uste au nasaikeria zabaldu dokalako izan dokala? Sarritan oldozten egoten nok, oitura alper txarretatik ziñeste epekeria sortzen ete dokan, ala ziñeste-epekeritik oitura lasai-txarrak.

—Batzuetan ziñeste galtzea, alperkeritik, oitura txarretatik, eta beste batzuetan alderantzira yaso leitekek.

—Bitzuetan, errusitarrak esaten yabeken lez, arraiña burutik galtzen asten dokala, baiña nire ustez, gizona geiñean biotzetik asten dok galtzen. Zintzotasuna ta zuzentasuna galtzen asten dokanean, burua illundu egiten dok, eta begiateko gaixoari lez yazoten yakok, min emonten yatsoen argitik iges... ta, iñoren lanetik bizi.

—Zoritxar onen zusterak asko ta sakonak dozak, eta ezin geinkezak aztertu, baiña ikusten doguna auxe dok: Eleizak utsago ikusten dozakala, gaztediak eleizarako oztasun andia agertzen yokala, oiturak nasaitu egin dozakala, ta... iñork ez yokala bizi-nekerik nai.

—Orren ordez, alde guztietan, «yolas etxeak» ugaritu, nire lagun batek esaten yokanez: «gazteen burua illundu, biotzak usteldu ta sakelak ustuteko» aukerakoak.

—Orren barri, bertean egon diranakandik entzunda bakarrik yakiat, baiña esan yaustenez negargarria dok. Izparringiak be, nozik bein, zerbait esaten yabek, baiña iñork ezer ez yok egiten gaztediaren ekandu garbiak zaintzeko. Lengo baten, ama batek idatzi yoan bere senarragaz, ikusguraz, zer yazoten zoan olango toki batera yoan zoala, ta ikusi yoanagaz samintasunez beterik urte yoala, bere bost semeetatik bat edo beste olango tokietara yoan leitekela oldoztuta bakarrik.

—Olan ba'gozazak esku onetan geratukok erriaren etorkizuna!

—Ez dok ori txarrena. Gaitz orren aurka ezer ez egitea ta orren inguru oartzten dokan ixiltasuna baiño. Gero, bizianaren antzera osagaitz agertzean, zarata egiteak, tamala agertzeak, ez yok balioko.

—Gaurko egoerari begiratura, sarritan gomutatzen nok, beiñolako idazle ospetsu T. Mann'ek idatzi yoana: «Etrorkizuna, erri *gabi*na izango da», ala izan be izan dok edestia zear. Au olan dala, ze etorkizun itxaron geinkek?

—Munduko giroa olantxe dokala, alperkeria nagusi, ta ezer egiten ez ba'yoguk, etorkizun onik ez. Alperekoa dokala ta ezer egin barik egotea gitxiago... Alperarentzat dana dok eziña, zintzoak barriz eziñik ez yok ezagutzen.

—Orduan ez yagok bide bat baiño, guztiok eta bakoitzak, gure izkuntzea, ekandu garbiak, yatoritasuna ta erriaren onerako dokan guztian alde jokatu.

—Orretan ñagok neu be, ori egin ezik, gitarrea artuta «geurea da-ta» abestuagaz bakarrik urrin ez gozak elduko. Alparkeria, gaurkoen Jainko barria!

—Uste yoat gaurko naiko izango dokala, agur urrenerarte.



# ZER EDO ZER

## «ARTOA» DALA-TA

Gizaldi onen asierararte urrean au zan baserritar askoren eguneroko ogia, gaur gitxi ikusten dana. Orren ordez gari-ogia yaten dogu, ta egin-egiñean be guk yaten dogun ogiari gerkeraz *artos* deitzen yako. Diez'ek gerkerazko ogiaren izena euskerazko *artos*'etik datorrela diño. Dana dala, or-emen artotza ederrak ondiño ikusten dira, naizta, tamalez, gitxiagotuez yoan.

Artoa ez da antxiñakoa emen. Ameriketatik ekarri zan, baña izen ori lenago be ezaguna zala dakigu, Azkue jaunak diñoanez, oin *artatxiki* deitzen dautsogun «*mijoa'ri*» esaten yakon-eta.

Emen noiz erein zan? Ara zer iñoan Errotaetxe'tar Iñaki'k, ain ospetsu egin dan Deustu'ko zubiaren egille, Zeanuri'ko udaletxean egin eban itzaldi baten: «1768'gn urtean, Bizkai'ko baserrietan eta Zeanuri'n be bai «txargiñarto» deitzen yakon arto klasearen ereitea egin zan. Gogoan euki bear da, ondiño urte gitxi zala. Lenago ez zan ezagutzen artoa, ba, Amerika'tik ekarria da».

Era edo mota askotakoak izan ziran ezkeru ikusi egin bear zan areitatik Bizkai'rako onena zein zan yakiteko, izan be berrogei klase arto baño geyago dagoz ta onena zein dan yakitea ez da errez. «Txargiñarto» zein dan askori itandu dausiet, baña iñok ez daki erantzuten.

## ZEANURI'TAR GIZON OSPETSU BATEN GOMUTAZ

Errotaetxe'ren itzaldia bere senitarteko Zulaibar'tar Yoane Antonio'ren gomutaz izan zan. Nor zan? Manila'ko Gongotzain edo Artzobispo izan eta 1826'gnean il zana. Ara udaletxean ipiñi eben gomutakiak diñoana: «Zeanuri'ko seme Domingo Santuaren Anadi edo Ordeneko ZULAIBA'TAR YOANE ANTONIO, gizaldi onen asieran, erlejiño zabaltzalle, yakitun, biozpera ta esku zabala zala, ta txalo asko irabaziz, Filipina Ugartean Manila'ko Gongotzaingo edo artzobizpadura eroan eta bere yayotzako irurogeta amaikagarren urtean, milla zortzireun eta ogetaseigarren urtean il zanaren gomuta ta goral-benez.

Ain bikain, argi ta errikideen gorabidearen gomuteak, ondorengoegan irauñ dagian Zeanuri'ko Udalak, Kristo'ren milla zortzirein ta larogeta sei-garren urtean auxe deduzko ezaugarri au ezarri dautso». Auxe diño lateraztik euskerara biurtuta. Gaur, erri guztietan, gitxi-asko izan diran gizon ospetsuena tamalgarriko galduez doa ta zer edo zer esatea otu yaku.

## ERROMA'KO GOTZAIN BATZARRA

Illabete osoan irauñ dabén batzar au, illa onen 26'ean amaitu da Aita Santuaren itzaldiagaz. Laterri guztietako ordelari lez berreun batu dira gaurko munduan Barri Ona zelan zabaldu adiraltzeko. Bear izan au guztiak autortzen dabena da. Zelan?, ortxe dago untzea. Gauza bardiña, ertz bardiñetik ezker, gauza erreza izango litzake batera yotea, Baña ortxe dago lorra. Bakoitzak bere lurraldeetako bear-izana ta egoerea ederto aztertu dauz, eta azkenean erabagi, iru urterik iru urtera batzar oneik egitea. Bitartean, bakoitzak itzez eta egitez al dabena *egitea*, gaurko mundu nastu onetan ba-dago bearrizana be-ta. Suenens kardenalak oraintsu idatzi dabenez, «gure mixiñoen alde yokatzeko erantzupenak Eleizaren lenengo orduan lez irauten dau».

## GOTZAÑEN AGIRI BI

Azkenego illa bi oneitan gotzaiñen Batzordeak agiri garrantzitsu bi argitaldu ditu. Batak gaurko diru arazo edo ekonomi gayetan, kristiñauak yokatu bear dabén erea erakusten dau; bigarrenak, «Giza-bizitzaren alde», yayoteko dagozan ume-galtze edo abortoaren aurka kristiñau irakatsia azaltzen dau. Azkenengo onetan. Lenen eta bein bizitza gizonaren ondasunik aundiena eta bere yabetasuna Yaungoikoarena bakarrik da. Gizonaren duintasun eta nortasuna ezin neurtu leike berak egin eta irabazten dabenetik. Alan da be, gudarik aundienetan, geyagori era orretan bizia kentzen yake. Ainbeste aurrerapiden gizaldian benetan tamalgarri ta lotsagarri. Toki batzuetan legeak ez dabela zigortzen? Orrek ez dau esangure besteari bizia kentzea zigorgarri ez danik eta txarto ez dagoanik. Kristiñauen artean ez litzake aitatu be egin bear... baña...

Ekonomi gayetan aspaldiko urteetan aurrerapide andia egin dala, begien aurrean dago. Baña ondo banandu barik, zuzentasunak eskatzen dabenez. Izan be batzuk ogetamarregaz eta beste batzuk bategaz bakarrik gelditzea, edonok daki zuzen ez dagoala, Gitxi daukanak geyago eskatzeaz ez gara arritu bear. Gaitzak zusterak sakon ditu eta zuzentzeko aldakuntza asko egin bearko dira, mundu onetako betiko gauzea da-ta.

# IKASTOLETAKO UMETXOENTZAT

## GABON ABESTIA

Poztu gaitazan ume guztiok,  
gaur dogu Gabon Eguna;  
Belen urian estalpe baten  
yayo da Jesus kutuna.

Inguru danak argitasunez  
artzaintxoak ikusita,  
alkar begira gelditu ziran,  
itaundurik arrituta:

—Gaba onetan zer gertatzen da,  
illuntasunen erdian,  
olan argiak diz-diz eiteko  
Belen inguru guztian?  
—Ez bildur izan— diño gotzonak—  
Barri On au, ara emen:

Gaizkatzaillea yayo yatzue  
okoillu baten Belen'en.

Era berean, gotzonak auxe  
ezaugarritzat damotse:

—Yayoparri bat oyal artean  
askan aurkituko'zue.

Ta bapatean gotzon taldea  
eldu zan goyan kantari:

—Aintza ta aintza, goyan Yaunari,  
bake maitatzen daunari.

Maite gaituzan ume guztiok  
goazen pozez Belen'era,  
Guretzat maitez yayo dan Jesus  
biotz guztiz gurtutera.

## GABON

Oi! Gabon zorionsua,  
goiko Argiz betea,  
Belen'en yayo zalako  
gure Jesus maitea.

Gizonaren maitasunez  
aska baten etzunik,  
Yaungoikoaren Semea...  
nok ames olakorik?

Ezkutapen arrigarri,  
ulerkaitz gizonontzat:  
«gauza danen Egillea  
gizon egin guretzat».

Guk zelan ordaindu geinke  
ain maitasun andia,  
Berari eskiñi ezik  
gure biotz guztia?

Esker onez goazen danok  
Jesus maite gurtuten,  
artzaintxo onen antzera  
geu-biotzok eskintzen.

# IKASTOLETAKO UMETXOENTZAT

## GABON ABESTIA

Poztu gaitazan ume guztiok,  
gaur dogu Gabon Eguna;  
Belen urian estalpe baten  
yayo da Jesus kutuna.

Inguru danak argitasunez  
artzaintxoak ikusita,  
alkar begira gelditu ziran,  
itaundurik arrituta:  
—Gaba onetan zer gertatzen da,  
illuntasunen erdian,  
olan argiak diz-diz eiteko  
Belen inguru guztian?  
—Ez bildur izan— diño gotzonak—  
Barri On au, ara emen:

Gaizkatzailla yayo yatzue  
okoillu baten Belen'en.  
Era berean, gotzonak auxe  
ezaugarritzat damotse:  
—Yayoparri bat oyal artean  
askan aurkituko'zue.  
Ta bapatean gotzon taldea  
eldu zan goyan kantari:

—Aintza ta aintza, goyan Yaunari,  
bake maitatzen daunari.

Maitte gaituzan ume guztiok  
goazen pozez Belen'era,  
Guretzat maitetz yayo dan Jesus  
biotz guztiz gurtutera.

## GABON

Oi! Gabon zorionsua,  
goiko Argiz betea,  
Belen'en yayo zalako  
gure Jesus maitea.  
Gizonaren maitasunez  
aska baten etzunik,  
Yaungoikoaren Semea...  
nok ames olakorik?  
Ezkutapen arrigarri,  
ulerkaitz gizonontzat:  
«gauza danen Egillea  
gizon egin guretzat».  
Guk zelan ordaindu geinke  
ain maitasun andia,  
Berari eskiñi ezik  
gure biotz guztia?  
Esker onez goazen danok  
Jesus maitte gurtuten,  
artzaintxo onen antzera  
geu-biotzok eskintzen.

GABIREL

# GIZONA

## LENENGO MAILLAN

Lurbira onetako izaki guztien artean lenengo maillan agertzen dana gizona da. Yainkoak «Bere antz eta irudira» egiteaz adimen eta aukeramena emon eutsazan eta beste gauza guztiak beretzat egin. Gizonaren nortasun eta duintasunaren oinarrria ortxe datza.

Orregaitik gizonari «gizon» dalako, beste barik, itzal eta begirune andia zor yako. Zor yakon itzal onen zusterria yakitun, aberatz naiz indartsu izatean ez dago, beraz, gazte naiz zar, yakitun ala ezyakin, aberatz naiz beartsu, baltz naiz zuri, bardin da, Beintzat alan izan bear leuko.

Tamalgarrria da, len eta oindiño be gauzak besterantzta gertatzen dirala ainbeste bider ikusiaz, oitutea, ta alan izan bear dabela uste izatea.

## AITA BATEN SEME

Guztioak gareala irakatsi euskun Yaunak, gizonaren duintasuna gorengo maillara yasoaz. Eta anayak legez guztioak alkar maitatu bear gareala.

Alan da guzti be, edestian atzeruniz begiratu ezkeru, guda, asarre, alkar aitu ezina ta iskanbilla ta indarkeri ugari bazter guztietan ikusten da. Gizona, gizonarentzat otso bihurtuta. Kontzientzia nagosi izan bearrean, grina gaiztoenak nagosi. Eta guztioak dakigu kontzientzia kendu ezkeru gizona ondatuta gelditzen dala.

Gaur guk ezin dogu ulertu be, gizon bat bestearen yopu izan litekenik. Gizon batek uskeriATEGAITIK, bestea il eta saltzeko eskubidea aurrez ontzat emoten zan, eta erririk aurreratuetan be, legez galerazo ebela, ez dira oindiño eun eta berrogetamar urte.

Eta ointxe Apirka aldean eta ixillean baiño ez ba'da be, txalak saltzen diran lez, azoka edo ferietan saltzen dira. Gaur ainbeste buruauste emoten daben Ipar-Amerika'ko baltzak, olantxe eroandakoen semeak dira.

## GIZONAREN ESKUBIDEAK

Gaur egunean, besterik ez da aitatzen gizonaren eskubideak baiño. Onek gauza bat esan gura dau: orain arte benetan ez dirala aintzat artu. Ta, oin be, ONU ta «Pacem in Terris»ek aitatzen dituezan erdiak alde guztietan beteko ba'lira, asko poztuko giñake. Izenbetu laterri guztiak egiten dabez, baiña betetea auzozartzat sarritan izten da.

Baiña eskubideak eskubide dira, naizta iñork aintzat artu ez. Eta gizon eta erriak, gizonaren eskubideak aintzat artzen dabezan neurritz, aurreratua izango dira. Au arautzat artu ezkeru, gaurko gizartea aurrera doala esan ete geinke? Gauza askotan, bai, baiña onetan...!

## BIZITEKO ESKUBIDEA

Gizonaren eskubideen artean lenena biziteko eskubidea da. Ori iñork ez dau ukatuko. Alan da guzti be, gaur ikusten danak ez dauko izenik. Su-izkillua eskuetan artu, eriotzaz zemaitu eta egun argiz lapurretan egiten da, ta bear ba'da, gizonari bizia kendu be bai ezertarako begirapen barik; lerkiak yaurti eta errubakoak il; gizonak eta egazkiñak be baituran artu eta eskatzen dabena emon ezik, errubakoa izan arren, bizia kendu... Orixe da izparringi ta irrati-urrutikuskiñak begien aurrean ipinten dauskun eguneroko ogia.

Eta epai ala epai barik ilten diranak, egunokaz Etiopia'n yazo dan lez? Orrez gaiñera, «legez» ontzat emoten daben, munduratzeko umeak, abortu bidez erailtea? Ba, Prantzia'n be ontzat emon, edo beintzat, zigorgarritzat ez dabe etsi lenengo amar asteetan erailtea abortu bidez. Eta ori eriotza bat dala ikusteko ez da zentun andirik bear. Non da ba biziteko eskubidea?

Ta gaiztakeri ori aurrerapenaren izenean egiten dabela esango dautzue oindiño!

## ANTXIÑAKO GOGORKERIA

Ba-dakit lenagoko gizaldietan, epai gogorak, garrantzibako okerrakaitik emoten ziralala. Baiña orrek ez dau esan gura, gaurko gogorkeriak txikiagoak diranik. Esaterako erru txiki bateagaitik eriotza epaya emon.

Ara olango bat. Erbestean nintzala Cobemartin deritxon erri batera igandez yoaten nintzan. Lenengo egunean, an begien aurrean agertzen zan mendizkea zelan eritxon itandu neban: «Hangman» erantzun eusten. —Eta, an goragoko mendiari? —«Great-hangman». Ta, esan neutsen, —Orrek urkamendi usaiña dauko. —Bai, orixe esan gura dau; or mendi txiki orretan, arkume bat ostuten ebana urkatuten eben, eta ardi bat ostu ezkeru, an goiko mendian».

Orduan be ba-zan gogorkeria, baiña oin gertatzen dana ez da txikiagoa. Eta ori gu «zibilizeuta» gagozala! Basatiak ba'giña, zer yazoko ete litzake?

Gizonaren eskubideen alde zintzo yokatu bearra dogu ba, benetako «gizon» izatea gura ba'dogu.

# Urtearen Amaieran

**GOSE DIRANEN ALDE.**—Batikano'ko irriak oraintzu dei bat egin dau Sahara ego aldean gosez dagozantzat laguntzea eskatzeko. Egunero 500 ume gosez ilten dirala diño eta zaspitik bost gosez ilten dagoz. Eta diño, izkilluetan erri aberatzak eralgiten dabena, gosez dagozanei laguntzen eralgitea obeto izango litzakela. Erri aberatzak egiten diardu izkilluak gizona birritan ilten dabe. Lenengo erri atzeratueta, eta gero guda tokietan. Eta lotsagarrikeri ori ainbeste aurrerapen eta asmakizunez arrotutako XX gizaldian eta gizonaren eskubideak agoa betean aitatzen diran aldian.

Ori baiño, gizonai, biziteko yanaria ez ete yake zor? Ointzu amaitu dan Erroma'ko Gotzaiñen Batzarrak bere azkenengo agirian, barriro autatzen dau, gizonak «bizi ta alikatuteko daukon eskubideak». Eta izan be bizitza ta mundu onetan, itargira yoan daitenerako itxi barik...

**«LABORISTA» KATOLIKUTARRAK.**—Lenago be aitatu nebala uste dot, «laboristak» emengo «sozialisten» antzekoak ez dirala. Erlejiño arazoan zintzo diranak «laborista» onak be izan daitezke. Ingalanda'n egin ziran auteskondeetan, eurak urten eben nagusi. Eta danen artean katoliku diranak 39 izan dira; «laboristak» 22 ta «konserbadoreak» 13. Enparauak beste alderdi batzuetakoak dira.

**YATEKOA URRI TA NORK YAN ASKO.**—Ori adierazoten dabe, lur-alde batzuetan egiten diran batzarrak. Alde batetik, Hungaria'n laterri-arteko gizon ospetsuak batu ziran. Batzuk agoak gitxitu egin bear zirala aldezten eben, erri aberatzetakoak; baiña erri beartsuak, «irugarren mundukoak», besoak ugaritu bear zirala, lurak landu ta yanaria ugaritzeko. Ta gauza bakana, Errusitar eta Batikano'ko ordelariak, batera yo eben erri beartsuen alde. Orixe berberori agertu dabe Erroma'n «FAO»k eraldu daben yanaria ugaritzeko egin dan batzarrean.

Euren irabaziei bakarrik begirutzen dautsen erri-aberatzik ez ba'lego, uste izan lei, yanariak ugaritu ta obeto banandutakoak izango litzakezala.

**URTEURREN GOMUTAGARRIAK.**—Gotzain-batzarra egin za ezkerro, Eleiza ta munduarentzat urteurren gomutagarri bi ospatu dira. Bata «Pacem in Terris»en X urteurrena ta bestea Laterri-Alkartuak gizonaren eskubideak iragarri ebazanetik XX urtea.

Biok, gizonaren duintasuna ta eskubideak azaldu ta goraltzen ditue, mar-goari begiratu barik gizon guztiok bardinak gareala azalduaz. Guztiok dakigu gizonaren duintasunaren zusterre Yaunak Bere antz eta irudiko egiña izatetik datorkiola. Gaur Goizparki edo Ebanjelioaren argiz, eskubide oneik aintzat artu ta garrantzi andiagoa emoten yake, eta zeatago ta sakonago azaltzen dira. Baiña egitez bete ta zaintzetik ondiño urrin bizi gara.

Izan be indarkeri zaleak aitatzerik ez dabe gura! Gizonaren izatetik sortzen diran eskubideak izan arren, iñon, bear diran lez, ez dira zaintzen.

**ESKUBIDERIK LENENAK ZAPALDUAK.**—Erroma'ko gotzain batzarrak, azkenengo emon daben agirian garbi esan dabenez, «gai onetan iñongo laterri ez da errubako». Izan be gizabidea ta kistartasuna aitatzea ta agiriak izenbetetzea ez dira naiko zintzo yokatzeko. Gizaki biziak bizirik irauteko eskubidea dabela esan bearrik be ez litzake izan bear. Eta ikusten dana ikusita, aurreratutzat ta «zibilizauta» dagozala diñoen errietan sarritan esan bearra dagola ikusten dogu.

Mundura etorteko bidean dagozan umeai bizia kentzea zigorgarrizat emoten ez dabenean «legeak» be ugaritzen doaz. «Legezko» izatea ez da naikoa «ona» izateko, ainbeste on ez diran lege, lurbiran zear ontzat emonak dira-ta. Baiña on ez dana, au ala ori dala aitzakitza artuta zigorgarrizat legeak artzen ez dabenean, asko nastuta gelditzen dira, legeak txartzat emoten ez dabena ontzat artzen dabelako. Bidean diran umeen galtze edo abotoagaz orixe gertatzen da, eta giza-erailte garbia izan arren, ez yako bear dan garrantzia emoten.

Urrengo baten, osatu-eziña daben gaxoai be, bizitza laburtzea ontzat emongo ba'litz, bardin gertatuko litzake. Orixe dala, Eleizeak gizon-iltze orren aurka gogor egiten dau, eta eten barik diardu «abortoa» gaiztakeri andia dala irakasten. Legekoa izan ez arren, lotsagarria, kistartzat dagozan errietan be eundaka milla asko yazoten dirala yakitea. Negargarria!

# GIZA-BIZIA

## BIZIA ZER DA

Itaun oneri garbi erantzun leikionik, yakitunen artean be, ez dogu aurkituko. Iñon diran azalbenak, gizaldiak zear, emon ditue, baiña azken baten len lez itxiten gaitue. Ori, landara ta abereen bizitza danean. Azalben guztiak emonda gero, gauza bat da ziur, bizia ezkutapena dala. Eta giza-bizia danean, andiago.

Odolaren eta gorputzeko atalen eragiña baiño bizia goragokoa da, gurasoen bidez semeakana eldu arren, eurak ez dira egille, goitiko emoitze bat baiño. Gizonaren adimena ta azkamena ez dira begiz ikusi ta eskuz ikutu geinkezanak. Gaitasun orreik, beste gauza askon antzera, «sentidu» obeto egiten doguz aitu baiño.

Orregaitik norbaitek bizia zer dan itanduten ba'dausku, erantzunik onena auxe izango litzake: «Nik, bizia *zer ez dan* ba-dakit, baiña *zer dan*, ez». Eta es da arritzeko gauzea. Begien aurrean daukogun argia ta esku artean darabilgun «denporea» be *zer* diran ez dakigu-ta. Eta ori ainbeste aurrerapen egin dituan gizaldian. Gizona ba, asko ezin daiteke arrotu!

## ONDASUNIK ANDIENA

Gizonaren bizia gizonaren ondasunik andiena dala ezin ukatu, berau barik beste ondasun guztiak ezertarako ez yakoz-eta. Gizona bere nortasun, adimen eta azkamenagaz, lurreko izaki guztien gaiñetik agertzen da, «pentsetan» dabena bera bakarrik dalako.

Mendi erpiñera igoten danean, bere aurrean agertzen yakozan zelai, ibar eta basoai begiratuta esan daike: «oneik guztiok ni baiño gitxiago dira, ez dabe «pentsetan» eta. Orregaitik esaten eban Paskal'ek, «Gizona inge edo kaiñabera bat da (au da, argala, aizeak batera ta bestera darabillana) baiña «pentsau» daiken inge bat».

Gizonaren biziari itzal andia zor yako, lur onetako ondasunik andiena da-ta.

## ITZAL ANDIA ZOR

Orixe dala-ta, biziari itzal andiena zor dautsagu. Geure biziari ta besteenari Gai onetzaz lengo idazkian zerbait esan gendun, barriro zerbait esatea egoki izango da, eretxi zuzen eta sakonak izan dagiguzan. Gizona erailtzea, norbere bizia zuzenean zaintzeko izan ezik, iñork be ontzat ez dau emoten; gaizkillea epaituta eriotz-zigorragaz iltzearen aurka be asko agertzen dira. Ta, au be, zuzentasunaren aurka, bizia kendu gura dauskunean.

Gizon bat beste barik erail dabela entzuteaz bakarrik alango «zarrada» bat biotzean eragiten dausku. Orregaitik lenengo gizon-eraille, Kain'ek bere anai Abel erail ebala ikasi gendunean, alango «zer» bat sumau gendun eta bere gomuta ezezgarri egiten yaku. Giza-biziari itzalik ez dauksen erriei, orixe dala-ta, «basati» deitzen yake. Eta erri baten gizabide ta zentzuna gizonari zor yakon itzaletik neurtzen dogu. Ori gizon lez begiratuta bakarrik.



## KRISTIÑAU GAREANEZ

Alkar maitatzeko agindua dogu ta geidiari, edozein dala, maitasuna zor dautsagu. Ori dala-ta, «iñor ez dozu ilgo», gogoan eukiaz Eleizeak, beti irakatsi dau, gizonari bizia kentzea, naizta yayoteko egon, gaiztakeri andi bat dala. Au egiztuteko or dogu *Didaje* deritxon lenengo gizaldiko idaztitxoa, 80'tik 100'era bitarteko urteetan idatzia.

Ara zer diñoan: «Ez dozu semerik aren amaren sabelean ilgo, ez sein bariari bizia kenduku be» (II, 11'gn ing.). Eta orixe berori diño Batikano'ko II Eleiz Batzarrak: «Aborto ta ume-galtzea gaiztakeri iguingarriak dira» (G. s. 51). Yakituri'ko idaztiak diñonez: «Yaunak ez dau eriotzarik sortu» (Yak. 1,13).

## IRAKATSI TA IKASBIDE TXARRA

Gizonak eta laterriak, besteak egiten dabelako, egoki ala txar diran gauzak egiten zaleak dira. Zergaitik ori egin dozu?, itaunari, «besteak be egiten dabe» erantzuten zaleak dira. Eta egunokaz Prantzi'ko agintariak, amar aste barruan, ume-galtzea ez dala zigorgarri artu daben erabagiak, gure eretxian, kalte andia egin leike. «Atzeratuak» deituko ete dautsien bildurak eragin ete dautse? Eta bai pen ori emoteko gai izango ete ziran, eurak ontzat emoten dabena *eurakaz* egin izan ba'eben?

Bizitzearen yaube ez da Yainkoa baiño. Gizonak, zaintzeko eginbearra dau, eta naizta osagille izan, ez dauko laburtzeko eskubiderik gizona erailteko, iltea izango litzake-ta. Bat edo batek esan leike, gai oneri zergaitik ainbestean ekiten dautsodan. Ba, gaiztakero dalako, eta gaiztakeri au «euskerazko» idazti baten, oin urte batzuk, aldeztuta ikusi nebalako, eta gaiztakeri au zabal dabillelako.

Kristiñauak orretan eretxi zuzenak euki bear ditu.

# Urtearen Amaieran

**GOSE DIRANEN ALDE.**—Batikano'ko irratiak oraintzu dei bat egin dau Sahara ego aldean gosez dagozanentzat laguntzea eskatzeko. Eguneroko 500 ume gosez ilten dirala diño eta zaspitik bost gosez ilten dagoz. Eta diño, izkilluetan erri aberatzak eralgiten dabena, gosez dagoazanei laguntzen eralgitea obeto izango litzakela. Erri aberatzak egiten diarduen izkilluak gizona birritan ilten dabe. Lenengo erri atzeratuetan, eta gero guda tokietan. Eta lotsagarrikeri ori ainbeste aurrerapen eta asmakizunez arrotutako XX gizaldian eta gizonaren eskubideak agoa betean aitatzen diran aldian.

Ori baiño, gizonai, biziteko yanaria ez ete yake zor? Ointzu amaitu dan Erroma'ko Gotzaiñen Batzarrak bere azkenengo agirian, barriro autatzen dau, gizonak «bizi ta alikatuteko daukon eskubidea». Eta izan be bizitza ta mundu onetan, itargira yoan daitenerako itxi barik...

**«LABORISTA» KATOLIKUTARRAK.**—Lenago be aitatu nebala uste dot, «laboristak» emengo «sozialisten» antzekoak ez dirala. Erlejiño arazoan zintzo diranak «laborista» onak be izan daitekez. Ingalanda'n egin ziran auteskundeetan, eurak urten eben nagusi. Eta danen artean katoliku diranak 39 izan dira; «laboristak» 22 ta «konserbadoreak» 13. Enparauak beste alderdi batzuetakoak dira.

**YATEKOA URRI TA NORK YAN ASKO.**—Ori adierazoten dabe, lur-alde batzuetan egiten diran batzarrak. Alde batetik, Hungaria'n laterri-arteke gizon ospetsuak batu ziran. Batzuk agoak gitxitu egin bear zirala aldezten eben, erri aberatzetakoak; baiña erri beartsuak, «irugarren mundukoak», besoak ugaritu bear zirala, lurrak landu ta yanaria ugaritzeko. Ta gauza bakana, Errusitar eta Batikano'ko ordelariak, batera yo eben erri beartsuen alde. Orixe berberori agertu dabe Erroma'n «FAO»k eraldu daben yanaria ugaritzeko egin dan batzarrean.

Euren irabaziei bakarrik begiratzen dautsen erri-aberatzik ez ba'lego, uste izan lei, yanariak ugaritu ta obeto banandutakoak izango litzakezala.

**URTEURREN GOMUTAGARRIAK.**—Gozain-batzarra egin za ezker, Eleiza ta munduarentzat urteurren gomutagarri bi ospatu dira. Bata «Pacem in Terris»en X urteurrena ta bestea Laterri-Alkartuak gizonaren eskubideak iragarri ebazanetik XX urtea.

Biok, gizonaren duintasuna ta eskubideak azaldu ta goraltzen ditue, margoari begiratu barik gizon guztiok bardiñak gareala azalduaz. Guztiok dakigu gizonaren duintasunaren zusterria Yaunak Bere antz eta irudiko egiña izatetik datorkiola. Gaur Goizparki edo Ebanjelioaren argiz, eskubide oneik aintzat artu ta garrantzi andiagoa emoten yake, eta zeatzago ta sakonago azaltzen dira. Baiña egitez bete ta zaintzetik ondiño urrin bizi gara.

Izan be indarkeri zaleak aitatzerik ez dabe gura! Gizonaren izatetik sortzen diran eskubideak izan arren, iñon, bear diran lez, ez dira zaintzen.

**ESKUBIDERIK LENENAK ZAPALDUAK.**—Erroma'ko gotzain batzarrak, azkenengo emon daben agirian garbi esan dabenez, «gai onetan iñongo laterri ez da errubako». Izan be gizabidea ta kistartasuna aitatzea ta agiriak izenbetetzea ez dira naiko zintzo yokatzeko. Gizaki biziak bizirik irauteko eskubidea dabela esan bearrik be ez litzake izan bear. Eta ikusten dana ikusita, aurreratutaz ta «zibilizauta» dagozala diñoen errietan sarritan esan bearra dagola ikusten dogu.

Mundura etorteko bidean dagozan umeai bizia kentzea zigorgarriztat emoten ez dabenean «legeak» be ugaritzen doaz. «Legezko» izatea ez da naikoa «ona» izateko, ainbeste on ez diran lege, lurbiran zear ontzat emonak dira-ta. Baiña on ez dana, au ala ori dala aitzakitza artuta zigorgarriztat legeak artzen ez dabenean, asko nastuta gelditzen dira, legeak txartzat emoten ez dabena ontzat artzen dabelako. Bidean diran umeen galtze edo abotoagaz orixe gertatzen da, eta giza-erailtze garbia izan arren, ez yako bear dan garrantzia emoten.

Urrengo baten, osatu-eziña daben gaxoai be, bizitza laburtzea ontzat emongo ba'litz, bardin gertatuko litzake. Orixe dala, Eleizeak gizon-iltze orren aurka gogor egiten dau, eta eten barik diardu «abortoa» gaiztakeri andia dala irakasten. Legekoa izan ez arren, lotsagarria, kistartzat dagozan errietan be eundaka milla asko yazoten dirala yakitea. Negargarria!

# GIZA-BIZIA

## BIZIA ZER DA

Itaun oneri garbi erantzun leikionik, yakitunen artean be, ez dogu aurkituko. Iñon diran azalbenak, gizaldiak zear, emon ditue, baiña azken baten len lez itxiten gaitue. Ori, landara ta abereen bizitza danean. Azalben guztiak emonda gero, gauza bat da ziur, bizia ezkutapena dala. Eta giza-bizia danean, andiago.

Odolaren eta gorputzeko atalen eragiña baiño bizia goragokoa da, gurasoen bidez semeakana eldu arren, eurak ez dira egille, goitiko emoitze bat baiño. Gizonaren adimena ta azkamena ez dira begiz ikusi ta eskuz ikutu geinkezanak. Gaitasun orreik, beste gauza askon antzera, «sentidu» obeto egiten doguz aitu baiño.

Orregaitik norbaitek bizia zer dan itanduten ba'dausku, erantzunik onena auxe izango litzake: «Nik, bizia *zer ez dan* ba-dakit, baiña *zer dan*, ez». Eta es da arritzeko gauzea. Begien aurrean daukogun argia ta esku artean darabilgun «denporea» be *zer* diran ez dakigu-ta. Eta ori ainbeste aurrerapen egin dituan gizaldian. Gizona ba, asko ezin daiteke arrotu!

## ONDASUNIK ANDIENA

Gizonaren bizia gizonaren ondasunik andiena dala ezin ukatu, berau barik beste ondasun guztiak ezertarako ez yakoz-eta. Gizona bere nortasun, adimen eta azkamenagaz, lurreko izaki guztien gaiñetik agertzen da, «pentsetan» dabena bera bakarrik dalako.

Mendi erpiñera igoten danean, bere aurrean agertzen yakozan zelai, ibar eta basoai begiratuta esan daike: «oneik guztiok ni baiño gitxiago dira, ez dabe «pentsetan» eta. Orregaitik esaten eban Paskal'ek, «Gizona inge edo kaiñabera bat da (au da, argala, aizeak batera ta bestera darabillana) baiña «pentsau» daiken inge bat».

Gizonaren biziari itzal andia zor yako, lur onetako ondasunik andiena da-ta.

## ITZAL ANDIA ZOR

Orixe dala-ta, biziari itzal andiena zor dautsagu. Geure biziari ta besteenari Gai onetzaz lengo idazkian zerbait esan gendun, barriro zerbait esatea egoki izango da, eretxi zuzen eta sakonak izan dagiguzan. Gizona erailtzea, norbere bizia zuzenaren zaintzeko izan ezik, iñork be ontzat ez dau emoten; gaizkillea epaituta eriotz-zigorragaz iltzearen aurka be asko agertzen dira. Ta, au be, zuzentasunaren aurka, bizia kendu gura daukunean.

Gizon bat beste barik erail dabela entzuteaz bakarrik alango «zarrada» bat biotzean eragiten dausku. Orregaitik lenengo gizon-eraille, Kain'ek bere anai Abel erail ebala ikasi gendunean, alango «zer» bat sumau gendun eta bere gomuta ezezgarri egiten yaku. Giza-biziari itzalik ez dauksen erriei, orixe dala-ta, «basati» deitzen yake. Eta erri baten gizabide ta zentzuna gizonari zor yakon itzaletik neurtzen dogu. Ori gizon lez begiratuta bakarrik.

## KRISTIÑAU GAREANEZ

Alkar maitatzeko agindua dogu ta geidiari, edozein dala, maitasuna zor dautsagu. Ori dala-ta, «iñor ez dozu ilgo», gogoan eukiaz Eleizeak, beti irakatsi dau, gizonari bizia kentzea, naizta yayoteko egon, gaiztakeri andi bat dala. Au egiztuteko or dogu *Didaje* deritxon lenengo gizaldiko idaztitxoa, 80'tik 100'era bitarteko urteetan idatzia.

Ara zer diñean: «Ez dozu semerik aren amaren sabelean ilgo, ez sein bariari bizia kenduku be» (II, 11'gn ing.). Eta orixe berori diño Batikano'ko II Eleiz Batzarrak: «Aborto ta ume-galtzea gaiztakeri iguingarriak dira» (G. s. 51). Yakituri'ko idaztiak diñonez: «Yaunak ez dau eriotzarik sortu» (Yak. 1,13).

## IRAKATSI TA IKASBIDE TXARRA

Gizonak eta laterriak, besteak egiten dabelako, egoki ala txar diran gauzak egiten zaleak dira. Zergaitik ori egin dozu?, itaunari, «besteak be egiten dabe» erantzuten zaleak dira. Eta egunokaz Prantzi'ko agintariak, amar aste barruan, ume-galtzea ez dala zigorgarri artu daben erabagiak, gure eretxian, kalte andia egin leike. «Atzeratuak» deituko ete dautsien bildurrak eragin ete dautse? Eta bai pen ori emoteko gai izango ete ziran, eurak ontzat emoten dabena *eurakaz* egin izan ba'eben?

Bizitzearen yaube ez da Yainkoa baiño. Gizonak, zaintzeko eginbearra dau, eta naizta osagille izan, ez dauko laburtzeko eskubiderik gizona erailteko, iltea izango litzake-ta. Bat edo batek esan leike, gai oneri zergaitik ainbestean ekiten dautsodan. Ba, gaiztakeri dalako, eta gaiztakeri au «euskerazko» idazti baten, oin urte batzuk, aldeztuta ikusi nebalako, eta gaiztakeri au zabal dabillelako.

Kristiñauak orretan eretxi zuzenak euki bear ditu.

# GIZONA TA ASMAKIZUNAK

## ALDE ONARI BEGIRA

Yainkoak gizona egitean auxe agindu eutson: «Lurra bete ta menperatu egizu». (A. I-28). Eta gizaldiak-zear lortu dituan aurrerapen guztiak, agindu ori betetera yoten dabe.

Buru lanari dagokionez, bere adimen sakontasuna, idatzi dituan idazti zoragarrietan arrigarrero agertzen dau; yoan-eto-rietarako, asmau dituan, lur-gain, urpeko ta aizetarako ibilpideak izutu egiten gaituez; Ta gizarte-bizitzarako asmau dituan tresnak lan astunak arintzeko lanabesai agoa zabalik begiratzen dautsoegu; baiña bere burua ezi, ta egi, zuzentasuna, maitasun eta azkatasuna oiñarriztat artuta, ta naime-naren kemena, ta sendotasuna agertzen dabenean, guztiak burua makurtzen dautsoe. Alde orretatik begiratura, gizona benetan txalogarri da.

## BAIÑA BESTETIK...

Begiratu ezker, or ikusten dogu, egia ezagutzeko burua argitu eziñik, ta itaunak egin eta erantzuteko gai ez dala, bere naimen argalez grüen menpean yausten ta euren yopu egiñik ia gizatasuna bera be galtzen dabela dakusguz, zuzentzea bizitzako oiñarriztat ipinten ez dabelako. Gaurko naste, anabasa, izkanbilla, gizon-baitura ta erailtzeak gomutatzea naiko da gizona noraiño yausi leiteken ikusteko.

Gizarte auziari begiratzen ba'dautsogu alde guztietan arteak artu eziña aurrez oartzen dogu. Sarritan gizonaren eskubideak aintzat artu bearrean zapaltzen diralako, gertatzen da ori, ta beste batzue-tan, bakoitzak bere eskubideai, eginbearri baiño yaramon geyago egitearren ez ete da izango? Eskubideak eta eginbearrak eskutik yoaten ez diran artean, gizonen arteko bakea igeska sarritan ikusiko dogu.

## ASMAKIZUN ARRIGARRIAK, BAIÑA...

Gizonak bere adimenaren sakontasuna ta trebetasuna, gauzak egin, obetu ta onuratsuago egiteko asmakizunetan agertzen dau. Eta egunerik egunera asmakizun arrigarrigoak begien aurrean agertzen yakuz. Oin eun urte bizi ziranak agoa zabalik arri-tuta istekoak. Egia da eurok dirala-ta, gizon askok, tamalez, bizia galtzen dabela. Aurrerapen eta. asmakizunak ordaindu bear daberen zergak dirala dirudi.

Orrez gaiñera erri andiak iñurritegi bi-urtu ditu ta eguratsa kutsutu, erreketako urak zikindu, ta olak bialtzen dituen ke kaltegarri ta lurrunak giza osasunerako kaltegarri dira, gaiñera ortuari ta zugatzei be mesederik ez dautsoela egiten edonork ezagutu leikena da. Eta or dakusguz sarritan kalteak urritzeko zer egin ez da-kiela!

## LANDOLAK ETA GIZONA

Gizonak bere aurrerapenerako asmau di-tuan landolak, gizon geyenen ogibide biur-tu dira. Len, gizonak egin bear zituan tres-nak, bere trebetasunaz gero ta obeto egi-teko asmoaz, lan neketsuago izan arren, pozgarriago izaten yakon. Gaur urteak zear asmauteko tramankulu ederren bidez, biz-korrigo ta txukunago egiten dira. Gizonak sarritan, beti gauza bat egiten daberen traman-kuluaren aurrean yarrita, bururik nekatu bearrik ez dauko. Ta egunak yoan ta egu-nak etorri beti gauza bat egiten bizitza doakio, bere burua obetuteko ezer egin barik. Benetan gogaikarri da.

Gizona «gauza» bat ba'litz lez artzen da, limoi bateri lez, al bait zuku geyen atar-ateko erabilli, bere trebetasuna ugaritu-teko aukerarik emon barik. XI Pio'k esan eban lez, «landoletatik gauza guztiak obe-tuta urteteten dabe, gizonak eurak izan ezik». Lanak, bere nortasuna geyagotuteko izan bear dau, ez eguneroko ogia irabazteko bakarrik. Ori tramankulu antzera lan egi-tea izango litzake-ta. Gorputza bakarrik ez dau ipiñi bear lanean, gogoia be bai. Ori gogoan euki bear leuke ez bakarrik langilleak, ugazabak be bai.

## TA AURRERAPENAK...?

. Laiño arte oneik gora bera aurrerapen eguzkiak argi egiten dauskula ezin ukatu geinke. Gizona adimedun dalako, aurrerapen zalea izan da gizaldiak zear. Baiña batez be gizaldi onetan izugarritzko aurrerapenak egin ditu, igarotako milla urteetan baiño geyago. Ori da gizonaren legea; aurrera egitea. Bizitzaren laztasunak gitxiagotu, adimen lanez bizitza erosoagotu, baiña geroago ta gizonago izan bear dabela aztu barik.

Ori egin ezik, zintzotasunik eza, esku-bideak zapaltzea ta norberekeria berez bedar txarren antzera, ugaritzen da, anditzat dagozan erri-zuzendarietan oraintsu ikusi dogun lez. Or ikusten da gizonik ospetsuena be urrin ez doala.

# BATZAR BAT DALA-TA

## YESUS'EN LAGUNDIAREN BATZARRA

Epaillaren erdi inguruan Jesus'en Lagundiko Batzar Orokorra amaitu da. Batzar au garrantzi aundikoa izan da guretzat, Jesus'en Lagundia, gopatz edo orden ugariena, Eleizan eragipen geyen dabena, euskaldun batek, Loyola'tar Iñaki'k irasia dalako. Batzar au XXXII'a izan da, eta Erroma'n egin dabe. Mundu guztitik 29.436'ren 237 ordelari bildu eta Batzar onek eun egun inguru iraun dau. Euren artean ezta-baida gogorak batzar aurretik izan ziran, eta zurrumurru asko ebillen gauza asko aldatuko zirala-ta.

Aita Santuak, asieran, itzaldi bat egin eutsen, asierako gogoari yarraitzeko esanaz. Eta ondo erantzun dautsoe. Bere oarrak gai guztietan ondo artu dituez.

## AITA SANTUAREN MENPEKO

Jesus'en Lagundiak beti Aita Santuaren menpeko zintzoen entzutea euki dau. Eta oin be alantxe agertu da, Aita Santuaren oar guztiak aintzat artu ditue-ta. Zurrumurrua ebillen bizitza guztirako Lagundiko Buru izatea ez zala aurrera izango, baiña ez da aldakuntzarik izan. Baita Aita Santuari, batzuk egiten eutsen eskintzea, mixiño arazoetarako, kenduko ebela. Au be ez da yazo. Abade ez diranetara zabaldu gurea batzuk agertu eben, baiña lenean gelditu zan. Aldakuntza sakonik ez dabe egin, baiña *gaurkotuteko* erabagia artu dabe, ta batez be zuzentasunaren alde lan egiteko.

## AITA ARRUPE

Guztiok dakigu, gaur yesuita guztien Buru bilbotar bat dala. Aita Arrupe. Batzarraren amayeran izparringilari batzuk egin dautsoezan itaunei auxe eran-tzun dautse: Bere agintaritzita itxitez, ez Batzar aurretik ezta Batzar bitartean be, ez yakola burura etorri, Gerora barriz, gexo ala beste gauzaen bategaitik, buru izateko gaitasunik ezpadauko, inguruan dituan lau onulariak: «Ala, Aita! Oin buru izateko ez zara gauza-ta, zeregin ori itxi egin bear dozu, ta eskerrik asko! egin dozun lanagaitik», esan dagionean, pozik itxiko dabela.

Batzar onetatik, Lagundiak indartsuago ta bizkorrago urten dabela, lan egiteko gogo biaz, esan daikegu.

## LAGUNDIAREN YASARPENAK

Lagundiak gizaldiak zear, adizkide sutsuak ta arerio amorratuak izan ditu. Asiaren bertan eragozpen ugariak aurkitu zituan. Bere Iraslea, Loyola'tar Iñaki deuna ez zan eragozpenakaitik etzera egitekoa. Eta ezpai barik esaten eban, yasarpenez obeak izango zirala, eta tamala izango zala, yasarpenez barik bizitia. Eta izan be izan zituan. Yanseniotarren aldiaren eta geroago amazortzi-garren gizaldian; euron arerioak alegin izugarriak egin ebazan, ondatuteko. España ta Portugal'go agintariak aurretik zirala XIV Klemente Aita Santuari bultz eginda ezereztutea lortu eban. 1914'ganean, VII Pio'k barriro ontzat emon arte. Orduan buru izan zanek. Lorentzo Ricci'k, aldakuntzak eskatu eutsoe-zanean, auxe esan eban: «sint ut sunt aut non sint»: «diran lez izan daitezela; ala ez deitezela izan». Oingo Batzar Nagusian be orixe erabagi dala esan leike.

Emendik be, III Karlos'ek yaurti egin zituan, eta nonbait euskerearen kalterako izan zan, gure Aita Kardebaraz ospetsua be, erbesteratua izan zan-eta. Ordurako argitalduta itxi eban bere idazti ederra: «Euskeraren barri onak». Antxe diño: «Euskerak burua jasotea Jaungoikoak nai du». Kardaberaz A. 1770'ganean erbestean il zan. Len aitaturtako itzak, batzuk, Klemente XIV'ari ezarten dautsez, arerioak Lagundia ondatzeko alegin andiak egiten ebezala oartu ebanean.

# ZER EDO ZER

## BAKE ZALE?

Urtearen asieran Aita Santuak esan eban: «Bakea egin bear da; bakea lortu leike». Alan da be garbi adierazten emon eban, erriak iskilluz ornitzeak, guda aurretiko era ta eztabidak, bakearen kalteko bideak gomutara ekarten daskuzala. Orrez gaiñera, azkenengo urte oneitan ugaritu diran eraikeriak eta beste zeregin barik orretarako taldeak ugaritzeak, gure izatea dar-darka ipinte dau.

Laterririk andienak iskilluak salteari gogor ekiten dautse euren itzetan oso bakezale agertu arren. Or da Egipto, Errusi'tik berrogetamar egazkiñetati lenengoak artzen diardu. Kuwait'ek 350 milloi dollarren egazkiñak erosi ditu. Iran'ek 110 milloi dollar eralgi dituz sei gudaontzi erosten. Eta emen be 200 milloen egazkiñak erosi dira.

Guztiok, benentan, bakezale dirala esango dautzue, agiñetaraiño iskilluz orniduta. Antziña esan yakun: «Begiratu egiteari!...

## IDATZI DEUNA EUSKERAZ

Idatzi Donea, osorik euskeraz irakurtzeko aukerea izango dogula dirudi. Eta dirudianez laster. Orain arte 1.549 izkuntzatarata aldatua izan da. Osorik 257 izkuntzatarata. Itun Barria bakarrik enparau izkuntzetan. Lendik ba ditugu euskeralben batzuk, esaterako Duvoisin'ena, oraintsu barriz argitaldua. Ta Olabide'n «Idazteuna». Lenago be, igaro dan gizaldian Bonaparte'ren aginduz Uriarte aba prantzizkotarrak euskeratu eban, baiña lenengo bost idaztiak baiño ez ziran argitaldu.

Oingo itzulpena errikoya izango da, eta Kerexeta euskaltzale abade ta idazle trebeak egingo dau. Izpar onek euskeltzale guztiak poztuko dituala uste dogu, ordua be izan da-ta.

## ELEIZEAREN BARRI

1975'ngongo urtean, Katoliku Eleizan diran bateatuak, 685 milloitik gora dira. Kardenalak, 129. Gotzainburu ta Gotzaiñak 2.219. Gotzain izendunak 1.980. «Nullius» deritxoenak, 22. Aita Santuaren Ordetzak, 11. Erka-errikoak, 26. Apostolu erkiak, 66. Mixiño erkiak, «sui iuris», 41. Gudal ordelaritzak, 26. Gotzain batzarrak,

98. Eleiz-barrutietako abadeak 268.976 lekaideak zenbatu barik.

Katoliku Ikastetxe Nagusiak, 46. Eleiz-ikastaroetako ikastolak, 25. Teologia ikasteko laterrietako Ikastetxek nagusiak, 33.

## ISUNAK DIRALA-TA

Igandetako itzaldiak dirala-ta, iru urte oneitan, abadeeri ezarri dautsezan isunak —multak— 11.095.000 lauerlekora eltzen dira. Geyenak napparrak izan dira. Berrogeiren bat inguru. Bizkai'koak ogetamarren bat, batzuk, iru bider be zigortuak izan dira. Itzaldiak egitean kristiñau-arauz gauzak azaltzen ez ba'ditu, zer esana ugari, ta itz garbi egiten ba'dau, zigorra. Gero esango dabe itzaldiak ezer ez dabela «balio»...

Edonork daki, itzaldiak kristiñau-arauz egiñak diran ala ez, esan bear dabena, Eleizako nagusiak dirala, baiña...

## AITA SANTUA TA YOLASAK

Sarritan aitatu dau Aita Santuak «deportea», kirola gaztearentzat txalogarria ta ona dala esanaz. Yolases artean «txirrinka-uts» edo bizikletarien txapelketan danean, buru diraranak aintzat artu ta txalotzen ditu. Ointsu be bere onespenta artzen yoan dira. Euren artean Merckx. Bere lagunen aurrean, Merckx'ek igezko txapelketan irabazi eban txirrinkutsa Aita Santuari eskiñi eutson. Eta Aita Santuak, munduko txapeldun dan Merckx'eri domiña bat emon eutson.

## GOTZAIN IZENTATZEAK

Komunistak agintari diran tokietan, gotzain izentatzeak buruausterik andiena emoten dautso Aita Santuari; euren gogoko diranak baiño ez dituez nai izaten-eta.

Or da Txekoslovakia, berak nai dituanak izentatzeko ainbeste buruausteri Aita Santuari emoten dautsona. Ungria'gaz be, beste ainbeste yazotenzan, baiña azkenean VI Paul'ek lortu dau barriak izentatzea.

Bost Gotzain barri ta beste lau Eleiz-barrutiko egin ditu. Bakez zenbat aldi iraungo dabena ikusi egin bearko.